



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN MEMORIA.

I.- Aurrekarien azalpena eta arau-ekimenaren justifikazioa

II.- Lege-proiektua izapidetzea

III.- Jasotako alegazio, proposamen eta oharren laburpena

IV.- Alegazio eta oharren azterketa: egindako aldaketen azalpena eta baztertutako alegazioen justifikazioa

IV.- Lehenengo zirriborroarekin alderatuta egin diren aldaketen laburpena

VI.- Arautegiaren gaineko eragina

I.- AURREKARIEN AZALPENA ETA ARAU-EKIMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea zenbait aldiz aldatu da; bereziki Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen bidez, lege hartatik segurtasun publiko osoaren alde erkideak bereizi baitzituen, hala nola Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren erregulazioa, udaltzaingoaren arteko koordinazioa edo polizia-lankidetzako mekanismoak.

Legearen bosgarren aldaketa honetan, erreforma partzial batzuk egin dira, baina, oro har, indartu egin dituzte polizia-ereduaren zenbait alderdi, hain zuzen ere, herritarrei zerbitzua eta kontuak ematearekin erlazionatutakoak eta polizia-zerbitzuen eta eskubide berberak dituzten gizon eta emakumez osatutako gizarte ireki, plural eta elebidunaren arteko loturarekin erlazionatutakoak.

Neurri zehatz hauei heldu zaie:

a) Polizia-eredua indartzeari dagokionez:

- Poliziaren Etikaren Kode Europarraren edukia jaso da, zeinak, polizien jokabide-jarraibideak ez ezik, polizia-agintarienak ere finkatzen baititu, bai herritarrekiko harremanetan, bai zerbitzuen barruko antolaketari dagokionez, eta, horretarako, jarraibideak ezarri ditu kontuak emateari buruzko atalean.
- Zerbitzu poliziala ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak indartu dira. Horretarako, poliziaren jardun onari lotutako pizgarri positiboaren sistema indartu da, zenbait ordain-pizgarri sartuta, hala nola produktibitate-osagarri batzuk, jardunaren ebaluazioari lotutako lanbide-karrerako osagarriak, aparteko ordainsariak edo kondekorazioen eta sarien sistema. Era berean, diziplina-erregimena aldatu da, barneko mekanismo eraginkor, proportzional, egoki eta justuak ezartzeko, betiere, diziplina-ezaren kasu partikularretatik eta arrisku-faktoreetatik harago joz, prestakuntzan edo prozeduran edo lan-giroan hobekuntzak egiteko orientazioa emateko helburuz.
- Poliziaren eta herritarren arteko derrigorrezko interakzioa jaso da, kexak tratatzeko mekanismoak zerbitzu polizialarekiko independenteak izango direla bermatuz, herritarrek neutraltasunez eta korporatibismorik gabe tratatuko direlako konfiantza izan dezaten.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Jokabide Egokien Batzordea sortu da, erakunde iraunkor hibrido gisa, autonomia funtzionala duena erakunde polizialarekiko, eta espezializatutako pertsonen osatua, aditu polizialak barne. Batzordearen funtzioak dira aztertzea, organo eskudunek eskatuta, Ertzaintzaren edo udaltzaingoaren baitako jokabideak eta jardunbideak, baldin eta herritarrek kexak badituzte haien gainean edo polizialarekiko zuten konfiantzan eragina badute. Gainera, poliziaren esku-hartze edo operatibo baten testuinguruan edo zaintza poliziala egiten den bitartean pertsona bat hiltzen edo larriki lesionatzen bada, ofizioz ikertuko ditu gorabehera horiek, eta zerbitzua hobetzeko neurriak

proposatuko ditu. Batzordearen araudiak batzordekideen neutraltasuna eta independentzia babesten ditu.

b) Langileak hautatzeari eta kidegoan sartzeari dagokionez:

- Probetan onartua izateko baldintzak lege-mailako arau baten bidez zehaztu dira, eta ez orain arte bezala, erregelamendu bidez. Bestalde, hautaketa-organoetako arauak egokitu dira, bi kontu hauek gogoan hartuta: organo horiek inpartzialak, profesionalak eta dena delako espezialitatekoak izatea, eta, funtzionario publikoen artean, orokorrean, gizon eta emakume kopuruari dagokionez oreka egotea. Era berean, deialdietako oinarrien arteko lotura egin dadila xedatu da, eta orobat zehaztu da zein kasutan izango den zilegi deialdi bateko lanpostu hutsen kopurua aldatzea edo akatsak zuzentzea, eskabideak aurkezteko beste eperik hasi gabe.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia hautaketa-organo iraunkor gisa eratu da, eta, gainera, aukera eman da udaltzaingoan sartzeko hautaketa-prozedurak batera egiteko, toki-administrazioako erakundeek beren borondatez hala eskatzen badiote.

c) Ekintza positiboko neurriak ezarri dira emakumeak polizia-kidegoetan sartzeko eta polizia emakumeen kopurua handitzeko, gaur egun kopuru hori urria da eta.

- Hala, bada, polizia-kidegoetako emakumeentzako lanbide-sustapeneko planak arautu dira, kidegoetan sartzean eta lanbide-karreraren berdintasuna bermaturik izan dezaten, dagokiena baino daukaten ordezkari urriago hori zuzentzeko, eta poliziaren eraginkortasuna handitzeko.
- Nabarmentzekoak dira, berrikuntza dakarten aldetik, txanda libreko hautaketa-prozeduretarako emakumeen alde ezarri diren ekintza positiboko neurriak, zenbait egoeratan emakumezko hautagaia gizonezkoaren gainetik hobestea ekarriko baitute, Europako Erkidegoetako jurisprudentziak lege-neurriei, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari buruz ezartzen dituen eskakizunen kontra jo gabe.

d) Barne-sustapenari, lanbide-karrerari eta lanpostuak betetzeari dagokienez:

- Administrazio-karrera bultzatu da, barne-sustapenaren bidez. Horretarako, erraztu egin da langileek erakundearen barruan gora egitea, goragoko kategoria batera igaro ahal izateko zerbitzuan bete beharreko urte kopurua gutxituz. Beste alde batetik, bertan behera utzi da barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga, muga horrek murriztu egiten baitzuen administrazio-karrerarako eskubidea, baita funtzionarioek probak gainditu bai baina plazarik lortzen ez zuten kasuetan ere. Eta, azkenik, zerbitzu aktiboaren pareko administrazio-egoeretan daudenen barne-sustapena ahalbidetu da, lanbide-sustapena izateko eskubidearen ondorioetarako.

- Beste neurri batzuk ere ezarri dira, gizonen eta emakumeen arteko aukeraber dintasuna sustatzearekin zerikusia dutenak, hala nola haurrak edo senitartekoak zaintzeko edo genero-bortizkeriarengatik eta zerbitzu bereziengatik eszedentzian direnek barne-sustapeneko prozeduretan aurkezteko duten aukera. Era berean ezarri da ezen, barne-sustapeneko benetako zerbitzuetan emandako denbora kalkulatzeko aldera, kontuan hartuko direla barne-sustapenean parte hartzea ahalbidetzen duten egoera administratiboetan emandako denboraldiak.
- Lanpostuak lehiaketa bidez betetzeari dagokionez, alderdi hauek bereizi dira: batetik, legearen arabera merezimendutzat jo daitezkeen alderdiak eta, bestetik, bete beharreko lanpostuak berezko dituen ezaugarrien arabera merezimendutzat jo daitezkeenak. Gainera, lehiaketa-prozedurek eduki behar dituzten edukiak zehaztu dira.
- Superintendente-kategoria kendu da, eta, horrela, Ertzaintzaren erantzukizun goreneko lanpostuak eskuratzea eta betetzea bizkortzen da, lanpostuak betetzeko prozedura arrunten bidez.
- Lanbide-karrera horizontala arautu da, lanpostua aldatu beharrik gabe garapen profesionalaren mailan aurrera egiteko aukera gisa ulertuta. Lanbide-karrerako sistemak berarekin dakar ezagutza-mekanismo bat ezartzea, kategoria bakoitzean aurreikusitako garapen profesionaleko maila desberdinetara urteetan zehar sartu ahal izateko, gaitasun profesionalak egiaztatuta. Garapen profesionaleko mailaren arabera jasotzen da ala ez lanbide-karrerako osagarria, eta, hala badagokio, maila horrek lanpostu jakin batzuk betetzeko gaitzen du. Orain arte adierazitakoaren ondorioz, ordainketa-egitura aldatu da, lanbide-karrerako osagarria ordainsari osagarrien artean sartzeko.
- Ertzaintzaren espezialitateen erregimena arautu da, ezagutza espezifikoak eskatzen dituzten zereginetarako. Espezialitate horietan sartzeko, espezializatzeiko ikastaro bat egin beharko da, eta titulazio edo ezagutza jakin batzuk eskatu ahal izango dira. Espezializatzeko jarraitzeko konpromisoa dakar berekin, baita espezialitatean jarraitzeko gaurkotze-probak egitea ere, hala behar izanez gero. Halaber, lege honetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta segurtasun-arloan eskumena duen sailak deialdi bateratuak egiteko aukera jaso da; deialdiotan, espezializazio-ikastaro batean sartzea eta hura gainditzea lotuko da borondatezko zerbitzu-eginkizunak berehala ematearekin, hutsik dauden lanpostu espezializatuetan.

e) Egoera administratiboetarako dagokienez:

- Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa arautzen da, zeina honetan baitatza: zerbitzu aktiboan jarraitzean, poliziaren egoerarako egokiak diren eginkizunak eginez; gau-txandarik gabeko lanaldi-erregimena izatean; eta adina dela-eta zerbitzua emateko baldintzen bestelako aldaketak egitean; esaterako, urteko lanaldia gutxitzean.
- Lan polizial guztiak normaltasunez betetzeko gaitasun psikofisiko nahikorik ez dutelako bigarren jardueran aritzen diren polizien egoera administratiboari buruz ere arau berriak ezarri dira; hala, bada, haien arabera, funtzionarioek beren benetako gaitasunetara egokitutako lanpostuak edo funtzioak bete beharko dituzte,

aurreko araudietan ez bezala, hura premisa honetatik abiatzen baitzen: bigarren jardueran aritzen zirenek oinarrizko ordainsariak kobratzen zituzten, lanpostu bat betetzeko edo jarduera polizialak betetzeko deitzen zieten arte. Lege honetan, berriz, egoera administratibo horretara igarotzen diren funtzionarioek lan egiten jarraituko dute, nola aurreko lanpostuan —bigarren jardueran aritu ahal izanez gero— hala bete dezaketen beste lanpostu batean; eta birkokapena berehala egin ezean, poliziaren lanpostua bere premietara egokituko da aldi baterako.

- Behin-behinean eginkizunez gabetuta egoteari dagokionez, bi zehaztapen egin dira: bata, behin-behinean eginkizunez gabetuta emandako denbora gabetze irmoan kontuan hartzeari buruzkoa; bestea, horrekin lotua, behin-behineko gabetzea irmo bilakatuz gero, behin-behineko gabealdian jasotako dirua itzuli beharrari buruzkoa.

f) Funtzionarioen eskubide eta betebeharren erregimenean:

- Kapitulu berria sartu da, EAEko polizia-kidegoen babes sozialari buruzkoa, oinarrizkoa zein osagarria izan, eta bereziki kontuan hartuta administrazioek langileen baldintza psikofisikoak, laneko osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa zaintzeko obligazioa dutela.
- Lanean edo lanaren ondorioz sortutako gaixotasunak edo laneko istripuak sortutako lesioak edo patologiak direla-eta izaten diren aldi baterako ezintasunen kasuetarako, babes sozial osagarriko mekanismoak izatera behartu da.
- Polizien heriotza edo laneko ezintasunak direla-eta dauden eskubide osagarri horiei buruzko arau gehiago ezarri dira, egoera horiek zerbitzu poliziala edo haren funtzioak betetzen edo EAEko polizia-kidegoetako funtzionario izatearen ondorioz gertatzen diren kasuetarako, ez baitzaio lotzen poliziaren merituzko jokabidearen ebaluazioari.
- Aurreneko aldiz jaso da kondekorazioak eta ohorezko sariak emateko erregimena, zerbitzu-egintzan hildako funtzionarioak edo erretiroa hartu dutenak goiko kategoriara ondorio ekonomikorik gabe eta ohore gisa igarotzeko aukera jasoz.
- Ertzaintzako funtzionarioen ordezkartzari eta partaidetzari dagokienez, argitu egin da Ertzaintzaren Kontseiluak izan beharreko esku-hartzea diziiplina-prozeduretan eta birgaitze-espedienteetan, bai eta kondekorazio-erregimena aplikatzean ere.

g) Diziiplina-erregimenari dagokionez:

- Sexu-jazarpenarekin eta laneko jazarpen errepikatuarekin zerikusia duten falta berriak sartu dira, oso larriak, bai eta polizia-bideokamarak erabiltzerakoan eginiko arau-haustek ere; halaber, beste era batera idatzi da polizia izatetik abantaila ateratzeari buruzko faltaz eta funtzioak nabarmen bete ez izanaz, enplegatu publikoen arau orokorrekin bat etorritz.
- Arindu egin da ezarri beharreko zehapen-multzoa, eta, hala, falta arinagatik ezartzen den eginkizun-gabetzerik luzeena 4 egunekoa da, 5 egunekoa izan beharrean; falta larriengatik, urtebetekoa (lehen, 2 urtekoa zen); eta oso falta larriengatik eginkizun-gabetea, berriz, gutxieneko mailan zehatu da: urtebete eta egun bat.

- Zehapena graduatzeko irizpideen artean, curriculum profesionala inguruabar aringarritzat jo da, berriz egin izanaren kontzeptua larrigarria izatea mugatu da, eta, delitua dela-eta izandako falten kasuan, berariaz baloratu da ezarritako zigorraren zenbatekoa edo entitatea epai irmoaren arabera, bai eta delituzko jokabideak eginkizun polizialekin duen harremana ere.
- Espedientepeko pertsonen bermeak indartzen dira, deklarazioak ez egiteko dituzten eskubideei dagokienez, bai eta beren buruaren kontra ez egiteko, beren burua erruduntzat ez jotzeko eta errugabetasun-presuntzioa izateko ere, bai eta prozeduraren izapideen egoeraren berri izateko eskubideei dagokienez ere. Defentsa-eskubideari dagokionez, espedientepeko pertsonen jarduneko abokatu edo konfiantzazko kidego polizialeko funtzionario baten aholkularitza eta laguntza izateko aukera bermatu zaie, eta ezarri da, baita ere, agintariek erraztasunak emango dizkietela izendatutako funtzionarioei espedientatutako pertsonaren agerraldi pertsonaletan egon daitezen.
- Orobat, prozeduraren erregimena eta iraungitze-epea arautu dira, eta falta eta zehapen oso larrien preskripzio-epea gutxitu da, 6 urtetik 3ra; aitzitik, legeak preskribatzeko epea zabaldu egin da, hilabetetik 3 hilabetera.
- Zehapenen bete beharra jaso da, bai eta zehapena eten beharreko edo baldintzapean kentzeko kasuak ere, horrela jokatzeko motiboak daudenean. Zehatutako pertsonari albait kalterik txikiena eginda beteko dira zehapenak; horrela, bada, aurreikusi da zehapena baldintzapean kentzea, baldin eta zehatutako pertsonak zehapena betetzeko hautazko neurri gisa hartzen badu lanalditik kanpo lan egitea, soldatarik edo inolako konpentsaziorik gabe, jarritako zehapen-aldia bitartean.

h) Ertzaintzako funtzionarioei eta haien egitura profesionalari buruzko titulu espezifikoari dagokionez:

- Superintendente-kategoria desagertu da; hala, eskala eta kategoria horretan sartutako plazen eginkizunak lanpostu jakin batzuetan bereizten dira, eta hark lanpostu horietara sartzen laguntzen du, betiere, lanpostuaren baldintzak lanpostuak betetzeko ohiko sistemen bidez betetzen badira.
- Berridatzi egin da Ertzaintzak polizia judizial gisa duen eginkizunaren antolaketa-egiturari buruzko erregulazioa; izan ere, indarrean zegoen testuan Botere Judizialaren Lege Organikoaren arau jakin batzuetara jotzen zen, bidalketa horiek zaharkituta geratu baitziren.

i) Udaltzaingoko kidegoei dagokienez:

- Dauden jardunbideei erantzun juridikoa emateko, askotariko neurriak aurreikusi dira, esaterako, udaltzaingoak udalerritik kanpo jarduteko aukera, tokiko agintariak babesteko funtzioak gauzatzeko, etab.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak lan-poltsak osatu ahal izatea ezarri da, berak antolatutako oinarritzko ikastaroak gainditu dituztenekin, haien bitartez, toki-korporazioen eskaerei erantzuteko eta bitarteko funtzionarioei prestakuntza emateko.

- Udaltzaingoetako lanbide-egitura jaso da, Ertzaintzako bezalatsu. Bereziki, udaltzaingoetako buruzagitza-kategoriak zehaztu dira, biztanleriaren arabera edo kidegoa osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera. Hori kontuan hartuz, lege-proiektuak udaltzaingoko langileak eskala berrietan sartzeari arautu du, bai eta udaltzaingoetako buruzagitza-lanpostuen egokitzapena ere.
- Azkenik, aguazilaren figura arautu da udaltzaingoa ez duten udalerrietarako; eta mugikortasun-agentearena, hirigunean zirkulazioa arautzeko.

II.- LEGE-AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEA

a) Segurtasuneko sailburuaren 2015/06/18ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketaren lege-aurreproiektua prestatzeko prozedurari.

b) Aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa egin ondoren, haren berri eman zitzaion, 2015eko uztailaren 12an, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzari. Orobat, egun berean, zuzendaritzak aurreproiektuaren azalpen-memoria eta generoaren arabera eraginaren txostena egin zituen.

c) 2015eko uztailaren 13an onartu zuen Segurtasuneko sailburuak hasierako zirriborro hori.

d) 2015eko uztailaren 13an, ebazpena argitaratu zen EHAAn, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak emana, egun berean. Ebazpenaren bidez, 20 egunez jendaurrean jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketaren lege-aurreproiektua. Lege-aurreproiektua Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu zen (Euskadi.net).

e) 2015eko uztailaren 17an, txosten hauek eskatu ziren:

- Hizkuntza-normalizazioari buruzko txostena.
- Emakunderen txostena. Eskabidearekin batera, generoaren arabera eraginaren txostena ere bidali zen, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak egina.
- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (DACIMA) txostena.

f) Egun berean, entzunaldi-izapidea egin zitzaion sindikatu nagusiei, foru-aldundiei eta EUDELi, eta erlazionatutako elkarte profesionalei. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzako sail guztiei helarazi zitzaion lege-aurreproiektua, egokitzen jotzen zituzten oharrak egin zituzten.

g) Hauek egin zituzten alegazioak:

- EUDEL (2015/07/29)
- ESAN sindikatua (2015/07/14)
- UGT sindikatua (2015/07/30)

- ERNE sindikatua (2015/08/06)
 - Euskadiko Aguazilen Elkarte (2015/07/29)
 - Euskadiko Udaltzainburuen Elkarte (AJEPLA-EUBE) (2015/08/07)
- h) Eusko Jaurlaritzako sail hauek egin zituzten alegazioak: Lehendakaritza (2015/09/10); Ingurumena (2015/09/18); Osasuna (2015/08/22); Enplegua eta Gizarte Politikak (2015/09/29); eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (2015/10/21). Baita Bizkaiko Foru Aldundiak ere (2015/08/10).
- i) Txosten hauek jaso dira:
- Emakunderen txostena (2015/07/24)
 - Hizkuntza Normalkuntzako Zuzendaritzaren txostena (2015/07/17)
 - DACIMAREN txostena (2015/07/27)
- j) Jasotako alegazioak eta txostenak ikusita, lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroa prestatu zen, eta, bertan, ustez testua hobetzen zuten oharrak jaso ziren. Bigarren zirriborroa EPLren 103. artikuluan ezarritako negoziazio-mahaiari bidali zitzaion. Hilabetez egon zen zabalik negoziazio-aldia, eta negoziazio-mahaiak bilera formalak egin zituen 2015eko azaroaren 10ean eta abenduaren 10ean. Azken data horretan eman zen amaitutzat negoziazio-izapidea.
- k) Negoziatio-fasean, zenbait sindikatuk alegazioak egin zituzten, idatziz:
- CCOO (2015/12/05)
 - ERNE (2015/12/10)
 - ELA-Ertzaintza (2015/12/10)
- l) Euskadiko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak 2015eko abenduaren 2an eman zuen lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren berri. Bilera hartan, ELA-Udaltzaingoak oharrak egin zituen, eta idatziz aurkeztu ditu 2015eko abenduaren 14an.
- m) Ertzaintzaren Kontseiluak 2015eko abenduaren 14an eman zuen lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren berri.
- n) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak 2015eko abenduaren 22an egin du txostena.
- o) 2016ko urtarrilaren 14an, memoria ekonomikoa eta prozeduraren memoria egin dira.
- p) 2016ko urtarrilaren 16an txostena eskatu genion Kontrol Ekonomikoko Bulegoari. Erantzuteko epea otsailaren 6an amaitu zenez, izapideekin aurrera jarraitzea erabaki genuen KEBak erantzun bitartean.
- q) 2016ko otsailaren 8an, Segurtasun sailburuak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari (EABJ) txostena eskatzeko Agindua eman zuen.

III.- JASOTAKO OHARREN ETA EGINDAKO ALDAKETEN LABURPENA

1) Partaidetza-fasean, entzunaldian eta jendaurreko informazioaldian lehenengo zirriborroari buruz egindako alegazioak.

a) Poliziaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak:

Kapitulua hau berritzeko proposamenei dagokienez, ekarpen hauek egin dira:

ERNE sindikatuak kendu egin nahi du.

ESAN sindikatuak kapitulua kentzea iradoki du, haren ustez, “asmo politikoak” dituelako. Haren iritziz, kontrol-batzordearen eginkizunek, lehenengo zirriborroan zehaztutakoaren arabera, epaileen lanean eskua sartzea ekar zezaketen, gertakari berberengatik ikerketa penala egonez gero.

UGT sindikatuak dio udaltzaingoen sistema propioa dutela.

Kontrol-batzordearen osaerari dagokionez, Emakundek eskatu du gizon eta emakume kopuru orekatua izan dezala eta genero eta berdintasunaren arloko adituak izan ditzala.

ESAN sindikatuak nahi du batzordekideak ez daitezela izan A taldekoak (hau da, oinarrizko eskalako agenteak ere izan daitezela, unibertsitateko titulua baldin badute).

Oinarrizko Arauaren Taldeak eskatu du udaltzaingoko funtzionarioak ere izan daitezela batzordekide.

Beste funtzionario batzuk kontrol-batzordeari laguntzera joateari dagokionez, **ESAN** sindikatuak uste du ez luketela zerbitzu-eginkizunean joan behar, haren ustez, horrek bidea ematen duelako aukera politikoengatik ezeza dakien.

ERNE kexu da barne-arazoengatik jardunei hasiera emateko tresna eksklusiboa bihurtu delako Ekinbide, baina ez du horren inguruko proposamenik egin.

b) Kode deontologikoa:

Kode deontologikoari dagokionez, **ERNE** sindikatuak zenbait aldaketa proposatu ditu.

- Agintaritzako agentearen izaera aitortzea (33. art.), baita zerbitzuz kanpo ere, polizia berme juridiko berberak eskaini ahal izateko euren edo ondarearen aurkako erasorik izanez gero.
- 34. artikulua aldatzea, armak erabiltzeari buruzkoa; hain zuzen ere, arriskua larria izatearen eskakizuna kentzea, baita erresistentzia armatua dagoenean edo norberarentzat edo hirugarrenentzat arriskua dagoenean eta beste bide batzuk erabilita erasotzailea gelditu edo azpiratu ezin denean su-armak erabiltzea muturreko neurria dela esaten duen aipamen oro ere. Egin nahi den aldaketa atzerapauso nabarmena da poliziak armak erabiltzearen inguruko legeetan.
- Akusazio penalen kasuan funtzionarioek duten babes juridikorako bermea beste kasu batzuetara ere zabaltzea, besteak beste, funtzionarioei eurei edo ondasunei kalte eginez gero, eta polizia izanagatik mehatxuak edo irainak jasoz gero.

c) Prestakuntza eta elebitasuna:

ERNE sindikatuak zenbait proposamen egin ditu gai batzuen inguruan (gai horietako batzuk EPLren beraren esparrua gainditzen dute, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren araudiari buruzkoak direlako, eta araudi hori beste lege batean jasota dagoelako):

- a) LOSSPE aldatu behar litzateke, PLEAko Kontseilu Errektorean udaltzaingoetako sindikatu nagusiak ardura daitezen kidego horietako ordezkarietzaz.
- b) Zehaztu egin behar litzateke PLEAko zer lanpostu bete behar dituzten polizia-funtzionarioek, publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituta.
- c) 39.2 artikulua berariaz ezarri behar luke PLEAko prestakuntza-planak nahitaez bete behar direla.
- d) Legeak gaitasuna eman behar lioke erregelamenduari prestakuntza-, gaikuntza- eta euskalduntze-ikastaroak zer maiztasunarekin egin behar diren zehazteko.
- e) Elebitasunaren konpromisoari eta euskalduntzeari dagokienez, xedapen gehigarri eta iragankor berri hauek barneratu behar lirateke, gai hauei buruzkoak:
 - Erregimen iragankorra, LPZk hizkuntza-profilik ezar ez dezan lanpostuetan, funtzionario guztiak euskalduntzeko liberatzen ez diren arte. Denboraldi horretan, hizkuntza-profila pertsonari lotuta egongo litzateke, eta ez lanpostuari.
 - Liberazioa, hutsetik has daitezen euskara ikasten, behin betiko atxikita dauden ala ez. Beren kabuz ikasi nahi dutenek ordu-kreditua izango dute gainditutako ikastaro bakoitzeko.
 - 47/2012 Dekretua automatikoki aplikatzea, euskarazko ikasketak aitortzeari eta tituluen egiaztapenetik salbuesteari buruzkoa.

ESAN sindikatuak liberalizazio-plana eskatu du euskara ikasteko.

d) Hautaketa eta sarrera:

EUDEL pozik dago, hautagaiei zuzenean eskatzen baitzaie C1 azpitaldeko titulua izatea. Hala ere, uste du mekanismo iragankorra ezarri behar dela azpitaldean legea indarrean sartu aurretik sartu direnentzat, ordainketa- eta administrazio-ondorioetarako.

UGT, ERNE, CCOO eta ELA sindikatuak eskatu dute ken dadila kidegoan sartzeko gehienezko adina.

Bestalde, **EUDELe** proposatu du ez dadila automatikoa izan gehienezko adina udaltzaingoetan emandako zerbitzuekin konpentsatzeko aukera, baizik eta deialdiaren oinarrietako udal erabakira jo dadila.

Hautaketa-epaimahaiak osatzeko arauari dagokienez, ERNE sindikatuak uste du ez direla kanpo utzi behar bitarteko funtzionarioak.

e) Ekintza positiboko neurriak:

ERNE sindikatua ez dago ados gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzera bideratutako ekintza positiboko neurriekin. Bestalde, **Emakundek** proposatu du seme-alabak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik hartutako eszedentzia-aldiak ere kontuan har daitezela erretiro aurreratuari begira.

f) Lanpostuak betetzea:

ERNE sindikatuak eskatu du **lanpostuen katalogoa** egin dadila eta, bertan, polizia-kidego guztietako lanpostuak eta lanpostuen eginkizunak jaso daitezela, bigarren jarduerako lanpostuak ezagutzeko, kudeatzeko eta zehazteko. Aurrekoaren ildotik, 68. artikuluari buruz dio ez dadila lanpostu bereizirik egon lanpostuen katalogoa egiten den arte.

Espezialitateak egoteari dagokionez, **ERNEk** 43.2. eta 65 bis 3 artikulua ezabatzea proposatu du, iraupen-konpromisoa eta eguneratze-hautaprobak gainditu beharra ezabatzeko. Bestalde, **EUDELe**k proposatu du udaltzaingoetan ere espezialitateak egotea.

ERNEk iradoki du 67.1 artikulua aldatzea eta 67.2 artikulua ezabatzea, **lanpostuak betetzeko deialdiak eta haien ebazpena** Ertzaintzaren aldzkarian eta iragarki-tauletan argitara daitezen, eta ez EHAA-n.

Lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeari dagokionez, ERNEk proposatu du 65.2 artikuluan jasotzea merezimendu gisa ez daitezela hartu, soil-soilik, antzinasuna eta egindako lana, gainerako merezimenduak (prestakuntza-ikastaroak, titulazioak, etab.) ez daitezela hartu besterik gabe berdinketa hausteko, eta aldi batez, kolektibo osoa euskalduntzen ez den arte, euskara ez dadila baloratu berdinketa hausteko irizpide gisa. Bestalde, **UGT** sindikatuak proposatu du arauen bidez gara dadila egindako lanaren kontzeptua.

Lanpostuak **izendapen aske bidez betetzeko** prozedurari dagokionez, **ERNEk** proposatu du 63.3 artikulutik kanpo utz dadila prozedura, oinarrizko eskalako lanpostuei, ikuskaritzakoei eta komisariorde-lanpostuei dagokienez, eta ezaba dadila izendapen aske bidez bete daitezkeen lanpostuen gehienezko ehunekoari buruzko paragrafoa.

Udaltzaingoko **trukeari** dagokionez (21. xedapen gehigarrian jaso), **EUDELe**k proposatu du LPZn ezarritako baldintzak bete daitezela. **UGT** sindikatuak dio ez dela halako araudirik behar, badagoelako aurreikuspen hori. UGTren proposamena zentzuzkoa da, eta onartu egin da.

ERNEk proposatu du 105.3 artikuluan gehitu dadila klausula bat sei hilabetetan gara dadin fakultatiboen eta teknikarien eskala (unitateak eta plazak ezartzea, eta lanpostuen zerrenda aldatzea).

g) Karrera eta barne-sustapena:

Barne-sustapenari dagokionez, **ERNE** sindikatuak proposatu du ez dadila inoiz baldintzetatik kanpo utzi titulazio akademikoa (horrek gaitasun-ikastaroak kentzea dakar), ez dadila eskatu aurreko kategorian gutxienez urte kopuru jakin bat eman izana (hau da, ez daitezela soilik merezimendu gisa baloratu), eta ez daitezela kendu ezin

eratako laneko bajak benetan egindako zerbitzuen zenbaketatik. Bat dator gehienez hiru deialdi egingo direla dioen esaldiarekin.

Lanbide-karrera horizontalari dagokionez, **ERNE** sindikatuak proposatu du idazketa ordezka dadila eta Ertzaintzaren 2011ko erabakia jar dadila. **ESAN** sindikatuak zuzenean eskatu du kapitulua kentzeko. **UGT** sindikatuaren ustez, eskubidea eratu baino, emakida anbigua arautzen du. Bestalde, eskatu du udaltzaingoa sar dadila ordainsari-erregimenaren araudian, lanbide-karrerako osagarriari dagokionez. **EUDELeK** adierazi du beharrezkoa dela ELA-Udaltzaingoen karrera horizontalean eta funtzionarioenean aldi berean sartzea oro har, denborazko edo bestelako disfuntziorik gabe.

h) Eskubideak eta betebeharrak:

Ordainsari-erregimenari dagokionez, **ERNE** sindikatuak proposatu du ordainsariak murrizteko debekua sar dadila 74.1 artikuluan. Proposamen horrek ezin du izan polizientzat espezifikoa; horrenbestez, hala badagokio, enplegatu publikoen araudi orokorrean jaso behar litzateke. Bestalde, **UGT** sindikatuak nahi du udaltzaingoa ere sar dadila lanbide-karrerako osagarriaren araudian.

Bateraezintasunen erregimenari dagokionez, **ERNE** sindikatuak proposatu du sei hilabeteko epea ezar dadila erregimena egokitzeko eta leuntzeko. UGTk proposatu du argi utzi behar dela inguruabar jakin batzuetan bateragarritasunerako eskubidea dagoela.

Bestalde, **ERNE** sindikatuak iradoki du ezaba dadila 76. artikuluan ezarritako **betebeharra, hots, bizitokia bertan izatekoa**.

Gizarte-babeserako mekanismoei dagokienez, ekarpen hauek egin ditu **ERNE** sindikatuak:

- Doluaren aipamena ezabatzea (79 bis 2 artikulua).
- Zerbitzu-egintzan hilez gero ematen den konpentsazioa hiru urterokoetakoa izatea (eta ez biko), hildakoek 25 urtetik beherako seme-alabak badituzte.
- Zerbitzu-egintzaren ondorioz ezinduta geratuz gero, pentsio osoa jasotzea, eta ez pentsioaren % 80, orain arte bezala.

Horretaz gain, **ERNE** sindikatuak proposatu du akordio arautzailearen V. tituluan idatzitakoa ere (**laneko arriskuen** prebentzioari eta laneko osasunari buruzkoa) jaso dadila legearen testuan.

i) Administrazio-egoerak:

- Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa:

Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboari dagokionez, **EUDELeK** proposatu du legean jasota gera dadila udaltzaingoetan lanpostua egokitzeko adina ez dela izango 56 urtetik beherakoa (Ertzaintzan bezala). Hori eskatzeko arrazoia da, nahiz eta positibotzat jotzen den tokiko autonomia errespetatzea, komenigarria dirudiela legeak erreferentziako edo gutxieneko adina ezartzea.

Bestalde, **EUDELe**k proposatu du udaltzaingoan ere aukera egon dadila egokitutako zerbitzu aktibora atxikitzen diren funtzionarioek erretiro aurreratua eskatzeko konpromisoak barneratzeko, eta 85.4 artikuluan jaso dadila aintzatespen horren ondorio ekonomiko eta administratiboak tokiko araudian ezarriko direla.

UGT sindikatuak proposatu du Ertzaintzarako aurreikusitako egokitzapenaren araudi zehatza udaltzaingoetara ere hedada dadila nahitaez.

ERNE sindikatuak eskatu du ezaba dadila polizia-zerbitzuan jarraitzeko bermearen baldintza 85.4 artikuluan ezarritako adina dela-eta lanpostua egokitzeko arauditik.

EUDELek iradoki du egokitutako zerbitzu aktibora pasatzeko aukeratik kanpo uztea udaltzaingoetako goi-mailako eskalako eta eskala fakultatiboko langileak.

ERNE sindikatuak proposatu du, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboko funtzionarioak aldi batez destinatorik ez duen bitartean, ordain diezazkiotela egoera horretara igarotzerakoan jasotzen zituen ordainsariak, eta ez gaur egun egiten dena eta proiektuak ezartzen duena; alegia, ez ordaindu berariazko osagarriaren osagai berezia.

Azkenik, zerbitzu aktiboa adina dela-eta egokitzeari dagokionez, **ERNE** sindikatuak eskatu du 194/2012 Dekretuan ezarritako idazketa jaso dadila legearen testuan.

- Bigarren jarduera:

ERNE sindikatuak iradoki du bigarren jarduerako egoerara pasatzeko aukera ematea fakultatiboen eta teknikarien eskalako langileei.

UGT sindikatuak uste du araudia asmo handikoa dela (laudorio moduan, agian), baina ez dela eraginkorra udaltzaingoetan akordio instituzionalik egiten ez bada. Ez du esaten, ordea, zer eratako akordioak izan behar luketen.

EUDELek proposatu du bigarren jarduerako egoerara pasatzeko ebaluazio-epaimahairen osieran (86.3 art.) fakultatiboetako bat interesdunak proposatutakoa izan dadila edo, bestela, ordezkari sindikalek proposatutakoa.

Bigarren jarduerako egoerara pasatuz gero jaso beharreko ordainsariei dagokienez, Saileko langile-zerbitzuek iradoki dute ezaba dadila ordainsariak arau bidez ezarriko direlako erreferentzia. Izan ere, araua bada administrazio-egoera horretan lanpostua betetzen dela, erreferentziako ordainsariak lanpostuari dagozkionak izango dira. Egokia dirudi arrazoibideak.

Bigarren jarduerako ordainsariekin jarraituz, **ERNE**k proposatu du 86.7 artikuluan ezar dadila ordainsariak ez direla izango administrazio-egoera horretara pasatu aurretik zegozkienak baino txikiagoak.

UGT sindikatuak bermearen osagarriari buruz (87. artikulua) proposatu du, egokitutako zerbitzuan edo bigarren jardueran dagoen funtzionarioa salbuespen gisa eta aldi batez altan geratzen bada beste lanpostu bat eskaintzen edo egokitzen zaion arte, aldi baterako osagarri pertsonal gisa jasotzen zuen guztia ordain diezaiotela, ez bakarrik Ertzaintzaren kasuan, baizik eta baita udaltzaingoaren kasuan ere.

EUDELeK proposatu du ezaba dadila 20. xedapen gehigarria, bigarren jardueran udaltzainek poliziarenak ez diren lanpostuak betetzeko aukera izateari buruzkoa. Haren iritziz, ez da beharrezkoa legean sartzea, udalen antolaketa-ahalmenak onartzen baitu atxikipen hori.

j) Diziplina-erregimena:

- Faltak.

92.2.b) artikulua dela eta, **ERNEK** exijitu nahi du tratu gizagabea bereziki larria izan dadila, falta oso larritzat har dadin.

92.2.g) artikuluko faltari dagokionez, **ERNEK** proposatu du “behin eta berriro edo jarraian” gehitzea funtzioak nabarmen ez betetzeari. **UGTk** proposatu du errendimendu-falta “ziurtatua” izan dadila, eta ez “nabaria”.

92.2.l) artikuluari dagokionez, **ERNEK** proposatu du ez daitezela areagotu jokabide larriak oso larrietara behin eta berriro gertatu izanagatik, erantzukizuna banakatu egin behar baita falta bakoitzean.

Emakundek iradoki du “jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpenera lanean” esamoldea gehitzea 92.1bis artikuluko falta oso larrien artean, Berdintasun Legearen 43.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, irizpide hori jasotzen baitu. Bere horretan onartu da.

- Zehapenak:

ERNE sindikatuak areagotu egin nahi ditu falta arinengatiko zehapenak. Gaur egun, 1 eta 4 egun bitartean kentzen dira lana eta soldata, baina, sindikatuak proposatu duenez, 14 egunez ere kendu ahal izango dira. Era berean, falta larriengatiko zigorra ere areagotu nahi du, gutxieneko zehapena 15 egunekoa izatea nahi baitu. Bestalde, eskatu du ken dadila “ordainsaria galtzea” erreferentzia eginkizunez gabetzen direnean.

- Graduazioa:

ERNE sindikatuak ohartarazi du 94. artikuluko e) eta h) letrak ia berdinak direla.

ERNEK uste du, zehatzerakoan zigor penalaren garrantzia haztaperen irizpide gisa hartu ordez, hobe litzatekeela doluzko delituaren falta oso larria aldatzea. Horrela, askatasunaz gabetzeko zigorra dakarren doluzko delituagatiko zigor-kasuak soilik zehatuko lirateke diziplina-bidetik kausa horrengatik, delitua zerbitzuarekin erlazionatuta badago edo Administrazioari nahiz pertsonen kalte larriak eragiten badizkie. Halaber proposatu du berariaz sartzea ordezkaritza sindikalaren erreferentzia espedientepeko funtzionarioari 95.2.bis artikuluan aipatzen den konfiantzazko pertsonaren laguntza jasotzeko eskaintzen zaion aukeran.

- Preskripzio-epeak:

ERNEK preskripzio-epeak laburtzea proposatu du, 3 urtetik (oso larria), 2 urtetik (larria) eta 3 hilabetetik (arina) urtebetera (larriak) eta hilabetera (arinak). Baita zehapenen preskripzio-epeak ere. **UGTk** proposatu du hilabeteko epean preskriba daitezela falta eta zehapen arinak.

- Betearaztasuna eta betearazpena:

ERNE sindikatuak iradoki du gehi dadila zehapenaren betearaztasuna kautelaz eteteko aukera arautzen duen manuan (97 BIS art.) interesdunak berariaz hala eskatzen badu soilik aplikatuko dela kautelazko etenaldia.

ERNEK iradoki du gehi dadila 97 ter artikuluan, zehatutakoari ahalik eta kalterik txikiena eginez betearazteko printzipioari buruzkoan, unitateko buruzagitzarekin hitzarmena egiteko aukera.

ERNEK proposatu du bost urtekoa izan dadila (eta ez seikoa) zehapenen multzoaren muga 97 TER 3 artikuluan, eginkizunak kentzeko zehapen bat baino gehiago betetzeari buruzkoan. Hortaz, adibidez, launa urteko bi zehapen jarri eta eginkizunak kentzen badizkirate, bost urte baino ez nintzateke egongo zigortuta, eta ez zortzi.

97 ter 5 artikuluari dagokionez, **EUDELeK** proposatu du jaso dadila zehapena betetzeko ordezkotz neurria ez dela izango, besterik gabe, zehatutakoaren eskubidea, baizik eta administrazioak onartu egin beharko duela, bestela, zehapenak eredugarri izateari utziko liokeelako.

97. artikuluari dagokionez, **ERNEK** esan du aparteko lana alta-egoeran egiten dela eta kotizatzen dela Gizarte Segurantzari. Ez dirudi esplizitatu behar denik, langilea zerbitzu aktiboan baitago, eta ez eginkizunez gabetuta.

k) Funtzionarioen partaidetza, negoziazioa eta Ertzaintzaren Kontseilua.

ERNE sindikatuak proposatu du 99.5 artikulua aldatzea, Ertzaintza osorako hautesbarruti bakarra ezartzeko polizia-kidego horretako ordezkarien hauteskundeetan (gaur egun, hiru hautesbarruti daude).

ERNEK eskatu du Ertzaintzaren negoziazio-mahaiaren eskumen eskusiboa izan daitezela negoziatu beharreko gai guztiak, eta ez administrazio-mahai orokorrarena.

l) Udaltzainak

- Lurralde kanpoko jarduna:

AJEPLA-EUBEK proposatu du lurralde kanpo jarduteko aukera sar dadila polizia-zerbitzuak eskaintzeko egiten diren lankidetzari-hitzarmen edo elkartzeetan.

- Sarrera eta hautapena:

EUDELeK proposatu du jasota geratzea gutxienekoak izango direla 50.1 artikuluan aipatzen diren udaltzaingoetan sartzeko oinarriko arauak.

- Fakultatiboen eta teknikarien eskala:

EUDELeK proposatu du udaltzaingoan ere fakultatiboen eta teknikarien eskala sortzea.

- Polizia judiziala:

EUDELeK eta Oinarriko Arauaren Taldeak proposatu dute beste artikulua bat gehitzea, PLEAn polizia judizialari buruzko prestakuntza emateko udaltzainei. **AJEPLA-EUBEren** iritziz, legean jasota egon behar luke PLEAk aukera duela ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko prestakuntza-jarduera espezifikoko antolatze, LOSSPEren 44.3 eta 44.4 artikuluetan aipatutako lankidetzari-hitzarmenak sinatu dituzten udaltzaingoentzat gutxienez.

- Eskalak eta kategoriak:

EUDELen ustez, kidegoan sartzeko C1 taldea eskatzeak garbi uzten du egungo sailkapen-ereduak ez duela funtsik. Hala ere, komenigarritzat jotzen du erregimen iragankorra ezartzea C2 agente plaza dutenentzat (C1 agenteekin parekatu dira orain, baina askok ez dute titulurik). Izan ere, plazak C1 izatera pasatzen badira, birsailkapenak ez du ondorio ekonomiko gehigarririk izango, dagoeneko onartu baitzitzaizkien. Bestalde, kontuan izan behar da egungo bitartekoak ez daudela C2 kategorian sailkatuta ere.

AJEPLE-EUBEK eskatu du goi-mailako eskala eta betearazpen-eskala A1 gisa sailka daitezela (aurreproiektuan A2 dira); ikuskapen-eskala, A2 gisa (aurreproiektuan, C1); eta intendente-kategoria nahitaezkoa izan dadila 150.000 biztanle baino gehiago edo 200 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan (aurreproiektuan, “y”).

Irizpide hori ez dator bat **EUDELen** iritziarekin, egitura berriak hierarkizazio handiegia dakarrela esan baitu.

EUDELeK argudiatu du egitura berriak, gaur egungoak baino goragoko kategorietako buruzagitza-lanpostu berriak ez ezik, bitarteko kategorია guztiak ere sortzera behartzen duela. Hori dela eta, baliteke langile kopurua handitzea eta kostuak igotzea, eta horrek eragina izan dezake euskal udal guztien edo batzuen aurrekontu-egonkortasunean eta finantza-iraunkortasunean. Horren ildotik uste dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera, legegileak finantza-eragin hori kalkulatu behar lukeela, eta udalerrak baliabideez hornitu, diru nahikoa dutela bermatzeko.

- Udaltzaingoko buruzagitza:

119. artikuluari dagokionez, **EUDELeK** dio kontuan izan behar litzateke ELA-Udaltzaingo guztiek ez dutela (eta ez luketela izan behar) pertsona bakarreko buruzagitza profesionala; Bilbo da horren adibide.

Artikulu hori bera dela eta, **AJEPLE-EUBEK** dio zehaztu egin behar dela nola betetzen diren buruzagitza-lanpostuak izendapen aske bidez kidegoaren kategoría gorenetan dauden kidegoko bertako funtzionarioen artean, eta kategoría hori egon ezean soilik beteko liratekeela lanpostu horiek EAEko poliziako beste kidego batzuetako kideekin.

EUDELeK 5. xedapen iragankorra aipatu du, udaltzaingoetako zenbait langile goi-mailako eskalan integratzeari buruzkoa. Elkartearen ustez, transformazio automatikoko irizpideak ezarri behar lirateke.

AJEPLE-EUBEK proposatu du buruzagitzak egokitzeko epea 3 urtetik 2 urtera murriztea, baita denboraldi jakin batean behin betiko destinoa izan beharra ere, 5 urtetik 4 urtera. Ez da onartu, arrazoizko epeak direla uste baita.

AJEPLE-EUBEK eskatu du, integrazioa eginez gero, oinarritzko ordainsariak handi daitezela, eta ez daitezela geratu osagarrietan jasota.

- Bitarteko funtzionarioak:

ERNEK proposatu du debeka dadila udaltzaingoetan bitarteko funtzionarioak izendatzea (25. artikuluan, karrerako funtzionarioen baldintza sartzeari; eta zioen

azalpenean eta 120. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, bitarteko funtzionarioen aipamenak kentzea).

- Mugikortasun-agentek:

UGT ez dago ados figura horrekin, eta, haren ordezt, udaltzaingoetako plantillak indartzeko eskatu du.

Bestalde, **EUDELe**k nahi du ez dadila biztanle askoko udalerrietara mugatu, eta zabal dadila edozer udalerritara edo legeak zehaztutakoa baino biztanle kopuru handiagoko udalerrietara (edo horretarako aukera egon dadila). Oinarrizko Arauaren Taldeak proposatu du ezaba dadila figura sortzeari buruz esandakoa; alegia, "udaltzain kopurua ez handitzea, ezta langile-kostuak ere".

- Aguazilak:

UGT sindikatuak proposatu du figura ezabatzea eta udaltzainen mankomunitateak sortzea.

Euskadiko Aguazilen Elkarteak zenbait alegazio egin ditu:

- Ondorio guztietarako, poliziako agentetzat har ditzatela nahi dute, eta udaltzainen eginkizun guztiak izan nahi dituzte: atestatuak bideratu zauriturik gabeko istripuetan, polizia judizialeko eta delituaren prebentzioko eginkizunetan parte hartu.
- Armak eraman nahi dituzte, edo horretarako aukera izan.
- Udaltzainen uniforme bera eraman nahi dute, baina, polizia jarri ordezt, aguazil jarrita.
- C1 sailkapen-taldera pasatu nahi dute, eta erretiroa 60 urtetan hartu ahal izatea.

Azkenik, **Aguazilen Elkarteak** bi alderdi nabarmendu ditu legea indarrean sartu aurretik aguazil gisa ibilitako lan-kontratudun langileei buruzko xedapen iragankorraren inguruan: a) egoera horretan dauden bitartean agintaritzaren agentetzat hartuko diren argitzea; eta b) 3 urteko epea finkatzea barne-sustapen bidez funtzionario bihurtzeko.

2) Negoziazio-fasean sindikatuek egindako proposamenak.

a) Poliziaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak:

CCOO sindikatuak eskatu du ezaba dadila jardunbide egokien batzordea, edo, bestela, hau gehitu:

- Operatibo polizialean, Ertzaintzaren aginte-kateak emandako agindu guztiak argitara daitezela, gertakari bakoitza baino lehen, eta xehetasun guztiak adierazi: nork ematen dituen eta nola jokatu behar den, eta zer arrisku-maila dagoen. Horren berri eman zaie Ertzaintzaren Kontseiluan ordezkariak duten sindikatuak.
- Emandako aginduak baloratzeko, batzordea sortuko da; bertan, Polizia Kontseiluan ordezkariak duten sindikatuek parte hartuko dute, ordezkari banarekin. Kontseilu hori ez dago, baina baliteke Ertzaintzaren Kontseiluari buruz aritzea.

- Jardunbide Egokien Batzordeari dagokionez, proposatu du bertako kideen erdiak ikertutako ertzainen lanpostu eta kategoria bereko ertzainak izatea, gutxienez 5 urtez, baita ordezkari sindikal bat ere.

ELA-Ertzaintzak esan duenez:

- Jardunbide Egokien Batzordean, kideen erdiek Ertzaintzako funtzionarioak izan behar dute, eta gutxienez 15 urte eraman behar dituzte kidegoan.
- Ofizioz edo agintariek hala eskatuta esku hartzeaz gain, Batzordeak esku hartu ahal izan behar du, baita ere, Legebiltzarreko talderen batek edo Arartekoak hala eskatuz gero.
- Txostena eman aurretik, Ertzaintzaren Kontseiluari entzun behar zaio.

Gainera, **ELA-Ertzaintzak** proposatu du eman dadila zerbitzuaren antolaketan izandako gorabehereri buruz Ekinbideak jasotzen dituen kexen berri, eta entzun dakiela ordezkariak duten erakunde sindikalei (7.3 art.).

ELA-Udaltzaingoak proposatu du ezaba dadila udalerriek kudeaketa Ekinbideren esku uzteko 7.2 artikuluan jasotzen den aipamena.

b) Ertzaintzaren Kontseilua:

ELA-Ertzaintzak proposatu du Kontseiluari funtzio hauek egokitzea:

- Falta oso larri edo larriengatik funtzionarioen aurka bideratzen diren espediente guztien berri eman, eta espedientepekoari eskubidea eman Kontseiluak entzun diezaion. Baita zer espediente hasi diren, nola ebatzi diren eta birgaitzeak onartu diren ala ez ezagutzeko gaitasuna ere (17.d art.).
- Zerbitzu-egintzako espedienteetan entzuna izan, ukoa jaso duen eskatzailea bere borondatez aurrean dela, eta, orobat, dominak ematerakoan eta ohorezko sustapenerako aintzatespenetan entzuna izan (17.i art.).

CCOO sindikatuak hau proposatu du:

- Ertzaintzaren Kontseilua, kontsulta-organoa izan ordez, beste negoziazio-mahai bat izatea, Ertzaintzaren jardunetan segurtasunarekin zerikusia duen guztiaz ardura dadin.
- Ertzainen aurkako salaketak egin dituzten herritarrak auzitara eramateko ahalmena izatea, salaketek ez badute zigorrik ekarri eta salatutako ertzainak absolbitu egin badira. Ahalmen hori ez luke Kontseiluak izango, baizik eta bertako ordezkariak sindikalak.

c) Polizien babes juridikorako eskubidea

ELA-Udaltzaingoak proposatu du funtzionarioarekin “adostea” administrazioak eskaintzen dion babesa (37.2 art.).

d) Hizkuntza-normalkuntza

CCOO sindikatuak hau proposatu du:

- Urtean gutxienez 100 polizia trebatzea hasieratik. Antzintasun-irizpidearen arabera hautatuko lirateke boluntarioak.
- Hamargarren xedapen iragankorra: Ertzaintzako lanpostuetan derrigortasun-data berriak jartzeko debekua, harik eta hala eskatzen duten Ertzaintzako funtzionario guztiek hutsetik liberatzeko aukera ez duten hizkuntza-eskakizuna lortzeko.
- Hamaikagarren xedapen iragankorra: Lehiaketetan, euskararen gehienezko balorazioa, merezimendu gisa (hau da, lehiaketako puntu guztien % 3), harik eta hala nahi duten funtzionarioak hutsetik liberatu arte.

ELA-Udaltzaingoak *erakunde bakoitzeko euskalduntze-planak* aipatzen ditu hizkuntza-gaikuntzari dagokionez. 39.1 artikulua

e) Prestakuntza

CCOOK proposatu du PLEA behartzea polizia bakoitzari jakinaraz diezaion zer prestakuntza-eskaintza osatu behar duen, eta ikastaroak bukatzean haiei buruzko dokumentazioa eman diezaion.

ELA-Ertzaintzak hau proposatu du:

Legean berariaz aipatzea polizia gaituko dela gizarte-eskubideen arloan (besteak beste, grebarako eskubidea eta etxebizitzarako eskubidea) (30 bis 3 art.).

Zentro ofizialetan edo polizia-zentroetan emandako ikastaroak soilik baliozkotuko direla gehitzea (40.2 art.).

Legeak ezartzea administrazio bakoitzak arauz ezarriko duela, negoziazioa egin ondoren, urteko gutxieneko prestakuntza. 39. artikulua

f) Urteko enplegu-eskaintza

CCOO sindikatuak proposatu du urtero egitea deialdiak plantilla osoa betetzeko, baita oinarrizko ikastaroa amaitu aurretik erretiroa hartuko dutenen kopurua ere.

CCOO sindikatuak proposatu du 3 hilabeteko epean egin daitezela barne-sustapenerako deialdiak edo espezialitadedun plazak betetzeko deialdiak, plaza hutsen kopurua kategoria edo espezialitateko plazaren % 10 baino handiagoa denean (46. art.).

g) Aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du, hautapen-prozeduretan 3 plaza baino gutxiago eskaintzen direnean, gutxieneko portzentajea ez dadila zertan izan % 25 baino txikiagoa; bestela, plaza guztiak emakumeentzat gorde beharko lirateke.

ELA-Ertzaintzak proposatu du ez dadila aplikatu berdintasun-legea lanpostuak betetzeko prozeduretan (47 bis art.). Ezin da onartu. E).

h) Kidegoan sartzea:

Bai **ELA** sindikatuak bai **CCOO** sindikatuak proposatu dute ezaba dadila kidegoan sartzeko gehienezko adina.

Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** hau proposatu du:

- Baterako deialdien kasuan, arau bidez zehaztea epaimahaien osaera eta plazak esleitzeko formulak (50.3 art.).
- Prestakuntza-ikastaroaren eta praktikaldiaren iraupena, oro har, ez dadila izan 24 hilabetetik gorakoa; ikastaroa 6 eta 9 hilabete bitartekoa izatea, eta praktikaldia ez izatea 12 hilabetetik gorakoa. Gaur egun, legeak 30 hilabete aipatzen ditu (52.1 art.).

i) Barne-sustapena:

CCOO sindikatuak proposatu du ezaba daitezela barne-sustapenerako gaitasun-ikastaroak (art .59.2).

Era berean, **CCOO** proposatu du 3 hilabeteko epean egin daitezela barne-sustapenerako deialdiak, plaza hutsen kopurua kategorია edo espezialitateko plazen % 10 baino handiagoa denean. Eta ezabatu dadila barne-sustapenerako 3 deialdien muga (dagoeneko ageri da proiektuan).

ELA-Ertzaintza sindikatuak proposatu du barne-sustapenean parte hartzeko aukera ematea 2 hilabetetik gorako falta egin eta zigorra jaso dutenek (alegia, eginkizunetz gabetuta egon direnek) (59.1.a, b, c eta d art.).

j) Lanpostuak betetzea:

CCOO sindikatuak proposamen hauek egin ditu:

- Eginkizunetz gabetzeko zehapenek inoiz ez izatea ondorioz antzinatasunaren merezimendua kontuan hartzean lanpostuak betetzeko prozeduretan.
- Izendapen askeko prozedura goi-mailako eskalako lanpostuetara mugatzea (65.3 art.).
- Lehiaketa berrian parte hartu ahal izateko azken esleipenetik gutxienez 2 urte igaro izanaren baldintza kentzea 69. artikulutik.
- Lanpostua utzi dutenen edo lanpostutik kendu direnen lehiaketetan aurreko lanpostuaren herri berean dagoen lanpostua lortzeko lehentasuna kentzea (71.2 art.). Ez daude ados oraingo interpretazioarekin; alegia, lehengo lanpostutik 30 kilometroko ingurura egotea lanpostu berria. Ondorio horietarako, herri bera zer den zehaztea: kendutako lanpostuaren udal mugartea eta, herri horretan unitaterik egon ezean, herri horretaz arduratzen den komisaria.
- Unitateen arteko zerbitzu-eginkizunak biltzea, lanpostuko antzinatasuna eta kategorian sartzeko puntuazioa hartuta berdintasuna hausteko irizpide gisa (71.1.2 art.).

ELA-Ertzaintza sindikatuak aldaketa hauek egitea proposatu du lanpostuak betetzeari dagokionez:

- Izendapen askeko prozeduretarako “goi-zuzendaritzako” lanpostuak soilik erreserba daitezela, eta ez zuzendaritzakoak edo erantzukizun berezikoak (65.3 art.).
- Lanpostuen zerrendan iraupen maximoko baldintza ezartzen bada soilik eskatzea iraupen-konpromisoa (43.2 art.).
- 71.3 artikuluan jasota gera dadila, gaur egun bezala, aldi baterako osagarria emango zaiela lanpostua ezabatzearen ondorioz behin-behinean atxikita daudenei, parte har dezaketen lehenengo lehiaketa ebazten den arte.

ELA-Udaltzaingoak hau proposatu du:

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean agertzen den maila pertsonala aipatzea 65.2 artikuluan.
- Trukearen arauak berriro sartzea, eta ez aplikatzea udaltzainen artean soilik, baizik eta baita EAEko poliziaren edozein kidegoko funtzionarioen artean ere.

k) Lanbide-karrera:

ELA-Ertzaintza sindikatuak aldaketa hauek proposatu ditu:

- Lanbide-karreraren eraginkortasuna ez egotea aurrekontuetan erabilgarri dauden baliabideen arabera (73.ter.2 artikulua).
- 73.ter.5 artikuluko numerazio-akatsa zuzentzea.
- Maila finkatua galtzeko aukeraren aipamena ezabatzea (73.ter art.).

Gainera, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du 2 urteko epea ezar dadila lanbide-karrerako sistemak ezartzeko (73.TER.1 artikulua).

l) Betebeharrak:

CCOO sindikatuak proposamen hauek egin ditu:

- Bizitokia bertan izateko betebeharra ezabatzea (76. artikulua).
- Bateriaezintasunen erregimena (78.2 artikulua). Haien ustez, ez da beharrezkoa aldaketarik egitea, murriztailea delako.
- Bateriaezina da armadako erreserbista izatearekin. Haien iritziz, “harro egon behar genuke” Ertzaintzako agenteek armadarekin konpromisoa hartzen dutela ikusita. Baina, haien aburuz, erreserbista izatea bateraezina da zerbitzu aktiboarekin Euskadin krisialdiak edo larrialdiak daudenean.

Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** uste du EAEko poliziako kide guztiei aplikatu behar zaiela zerbitzu aktiboan egotearen eta erreserbista izatearen arteko bateraezintasuna (78. artikuluko 2. paragrafoa / 3. paragrafoa).

m) Ordainsariak.

ELA-Ertzaintzak proposatu du, goragoko kategorietako zerbitzu-eginkizunetan, funtzionarioak eskubidea izan dezala ordainsari osagarria jasotzeko nagusia de facto ordeztu duenetik, eta, zerbitzu-eginkizun horretan 3 urte ematen baditu, finka dadila goragoko kategorian jasotzen den destino-osagarria (74.a art.).

n) Jardunaldia eta oporraldia:

ELA-Udaltzaingoak proposamen hauek egin ditu:

- 75. art.: Gehitzea oporraldia ez dagoela soilik zerbitzuaren beharren arabera, baizik eta baita lan-baldintzak arautzen dituen indarreko hitzarmenaren arabera ere.
- 77.1 art.: Gehitzea jardunaldia eta atsedenaldeen erregimena, ordutegia eta jaiegunak negoziazio kolektiboaren bidez ezarri behar direla.
- 77-2 art.: Amaieran gehitzea *salbuespen horiek konpentsatu egingo direla, dagokion erakundeko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean ezarritakoaren arabera.*

o) Laneko arriskuen prebentzioa

ELA-Udaltzaingoak proposatu du 3. paragrafoa gehitzea 79. artikuluan eta, bertan, zehatz-mehatz jasotzea gutxienez zer arrisku hartu behar diren kontuan laneko arriskuei aurrea hartzeko planetan.

p) Gizarte-babes osagarria

Dirudienez, ELA sindikatuak proposatu du, hirugarrenen legez kontrako ekintzek eragindako ezintasunagatik funtzionarioak nahitaezko erretiroa hartu behar badu, aldi baterako prestazio ekonomikoaz gain, kalte-ordaina ere jaso dezala, lanpostuan jasotzen zituen ordainsari osoen bi urterokori dagokiona, heriotzagatiko kalte-ordainekin parekatzeko (79 ter art.). 4. Proposamena ez dago ondo emana, heriotza-kasuetarako ezarritakoa erabiltzen baitu.

q) Administrazio-egoerak:

- Behin-behineko eginkizun-gabetzea

ELA sindikatuak proposatu du ezaba dadila behin-behineko eginkizun-gabetzean jasotakoa behin betiko bihurtzen denean (84.5 art.).

CCOO sindikatuak proposatu du ezaba daitezela 84. artikuluko 5. eta 6. zenbakiak (eginkizun-gabetze irmoa, behin-behinekoa izan ondoren).

- Egokitutako zerbitzu aktiboa.

ELA-Udaltzaingoak 85.4 artikulua ezabatzea proposatu du. Ez dute nahi adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa, baizik eta adinaren arabera bigarren jarduera, proposamen honi jarraiki: Erretiroa hartzeko ohikoa den legezko adina izateko 10 urte falta zaizkien udaltzaingoko funtzionarioek (goi-mailako eskalakoak edo betearazpen-eskalakoak izan ezik), beren borondatez, bigarren jarduerara pasatuko lirateke. Hori eginez gero, hutsik utzi behar lukete uneko plaza, baina kidego berean lan egin, gauez izan ezik (kidego bakoitzean bigarren jarduerako lanpostuen katalogoa egongo litzateke, plantilla zabaldu gisa), edo administrazioko beste lanpostu batzuetan eman behar litzateke zerbitzuak; hori guztia gorabehera, bigarren jardueran hasi baino lehen kobratzen zutena kobratuko lukete. Hala ere, erretiroa hartzeko ohikoa den legezko

adina izateko 5 urte falta zaizkienean, bigarren jarduerara pasatuko lirateke, destinorik gabe (eta lanik egin gabe, non eta, salbuespen gisa, ez zaien herritarren segurtasunarekin erlazionatutako arrazoiengatik dei egiten), eta bigarren jardueran hasi baino lehen kobratzen zutena kobratuta. Dioenez, haien ordainsariaz udala arduratuko litzateke; eta erretiro aurreratua hartu duena ordeztzeko kostuez (plaza hutsak betetzeko soldatez), berriz, Eusko Jaurlaritza. Proposamena zurrizteko dio aldi baterako neurria izango litzatekeela, gizarte-segurtasunerako legeriak udaltzainen erretiro aurreratua aurreikusten ez duen bitartean.

Horrekin nolabait kontraesanean, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du ez dezala udal bakoitzak ezarri egokitutako zerbitzu aktibora borondatez pasatzeko adina udaltzainen kidegoan, baizik eta, legez, 56 urtetan finka dadila, edo negoziazio kolektibo bidez erabakitzen den adin txikiagoan.

- Bigarren jarduera:

ELA-Ertzaintza sindikatuak aipatu du bigarren jarduerako beste hitzarmen bat negoziatu behar litzatekeELA-Ertzaintzan, baina ez du proposamen zehatzik egin, aztertu ahal izateko.

Nahi abstraktua azaldu arren, sindikatuak berak, egindako alegazioen bidez, eta **ELA-Udaltzaingoak** proposamen hauek egin dituzte:

- 86.2. art.: Ez dadila aukerarik egon bigarren jarduerara pasatzeko prozedura hasteko gaitasun psikofisiko nahikorik ez dagoenean.
- 86.3. art.: Bigarren jarduerara pasatzeko ebaluazio-epaimahaiak ez dezala osaera egonkorra izan, baizik eta kideetako bat espediente bakoitzeko interesdun bakoitzak izenda dezala.
- 86.5.2 art.: Ez dira aipatzen udalak udaltzaingoez hitz egiterakoan.
- 86.6.2 art.: Gehi dadila baldintzak berberak izango direla udaltzaingoetan eta Ertzaintzan, borondatezko erretiro aurreratua hartzeko araudia bi kidegoetan parekatzen duenean Gizarte Segurantzak.
- 86.7. art.: Bigarren jarduerako langileek oinarritzko ordainsariak eta ordainsari osagarriak jaso ditzatela, ordainsari osoak murriztu gabe.
- Hamaikagarren xedapen iragankorra. 2 urteko epea, udal bakoitzak bigarren jarduerari buruzko araudia presta dezan.

CCOO sindikatuak proposatu du aldi batez destinorik gabe eta altan dagoen bigarren jarduerako edo egokitutako zerbitzu aktiboko funtzionarioek betetako azken lanpostuko ordainsariak jasotzen jarrai dezatela, berariazko osagarri berezia izan ezik, zerbitzu aktiborako aurreikusitakoetatik txikiena (berariazko osagarri berezia, 11).

r) Diziplina-erregimena:

ELA-Ertzaintza sindikatuak esan du diziplina-erregimena administrazioaren gainerakoan aplikatzen denarekin parekatu behar litzatekeela, baina ez du zehazten zer zentzutan.

Hona hemen **ELA** sindikatuaren beste proposamen batzuk:

- 92.2.g) art.: Errendimendu-falta eta funtzioak nabarmen ez betetzea izango dira diziplinazko falta, baldin eta aurrez jokabide horien ondoriozko informazio-espeditatea egon bada (95.5 art.). Iraungitze-epea 3 hilabetera murrizt dadila
- (97.2. eta 97.3. art.). Falta eta zehapen larrien preskripzio-epeak 18 hilabetera murrizt daitezela, eta arinenak, berriz, hilabetera.

CCOO sindikatuak proposatu hilabetera murrizt dadila (3 hilabetera) falta arinen preskripzio-epea (97.2. eta 3 art.).

s) Langileen ordezkariak eta negoziazio kolektiboa:

CCOO sindikatuak hau proposatu du:

- 99. art.: Hautapen-sistema zerrenda irekiak izan daitezela.
- 101.1.d) art.: Langileen ordezkari bakoitzak kudea dezala ordu-kreditua, eta ez erakunde sindikalek. Ordezkariak berak laga ahal izango du, edo lagapena bertan behera utzi.
- 103.3. art.: Audioan eta bideoan graba daitezela, nahitaez, negoziazio-mahaiaren bilerak, eta sailaren intranetean jar daitezela funtzionarioen esku.

ELA-Ertzaintza sindikatuak proposatu du hau gehi dadila 104.5 artikuluan: "indarreko hitzarmenak alde bakarrez indargabetu nahi badira, onarpenera eman behar du Eusko Legebiltzarrak".

t) Egitura profesionala:

ELA-Ertzaintzak nahi du 105.2.c) artikuluan jasota gera dadila, laneko praktikaldian, C1 sailkapen-taldearen arabera ordainduko zaiela izangaiei. Bistakoa denez, legea onartu ondoren, hala izango da, ezin izango bailitzaieke beste edozein talderen arabera ordaindu (prozesuan parte hartzeko, C1 titulua eskatzen zaie).

Egitura profesionalari dagokionez, **ELAUdaltzaingoak** nahi du unibertsitateko titulua eska dakiela agenteak edo agente lehenak ez diren udaltzain guztiei. Ez dago garbi ELA sindikatuak irizpide bera aplikatzen duen Ertzaintzan ere, edo, bestela, halako egitura-desberdintasuna egotea nahi duen euskal polizia-kidegoen artean.

ELA-Ertzaintzak nahi du aginduzko aditza erabil dadila 112. artikuluan, polizia judizialeko funtzionarioak epaitegi zehatzetara betiko atxikitzeko aukerari buruzkoan.

u) Udaltzainak:

- **Izena:**

ELA-Udaltzaingoak proposatu du "Udaltzaingoa / Policía local" izendapen bakarra erabil dadila udaltzaingoez hitz egiteko. Horren ildotik, 2. artikulua eta 24.3 artikulua aldatzea proposatu du.

- **Erakunde armatua**

ELA-Udaltzaingoak proposatu du paragrafo bat gehitzea 25. artikuluan, “erakunde armatua” kontzeptua eta su-arma eramateko edo ez eramateko betebeharra argitzeko. Hala ere, proposatutako testuak besterik gabe dio arau bidez ezarriko dela polizien hornidura, besteak beste, *su-arma, bastoia eta gainerako ekipamendua, baita haiek erabiltzeko prestakuntza teoriko eta praktikoa ere, bitartekoak* *homogeneizatzeko*.

- Funtzioak

26.3 artikuluari dagokionez, **ELA-Udaltzaingoak** esan du udaltzaingoek antolamendu juridikoaren bidez segurtasun-kidego eta -indarrei egokitu zaizkien funtzioak beteko dituztela, baita legeak berariaz ezartzen dizkienak ere.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du udaltzaingoetako funtzionarioak atxiki daitezkeela polizia judizialeko edo ikerketa kriminaleko unitatera, eta, horretarako, aukera eman dadila funtzionarioek ikerketa kriminalaren eta polizia judizialaren arloko prestakuntza espezifikoa jaso dezaten, Ertzaintzari eskaintzen zaizkien baldintza berberetan.

- Aguazilak

ELA-Udaltzaingoak proposatu du argi eta garbi zehatz dadila zer funtzio dituzten aguazilek, 27.1 artikuluan aipatzen diren udaltzainen funtzioetatik bereizi beharrik izan gabe.

- Egitura profesionala

ELA-Udaltzaingoak proposatu du A2 azpitaldean sar dadila ikuskapen-eskala, eskala horretan barnera daitezela, *automatikoki, egungo ofizialordeak eta ofizialak, unibertsitateko titulua izan gabe ere, eta 4 urteko antzinasuna duten agente lehenek aukera izan dezatela, titulua izan gabe ere, ikuskapen-eskalara sustatzeko* (118.2.b) artikulua eta hamargarren xedapen iragankorra).

ELA-Udaltzaingoak proposatu du legez ezar daitezela kategoria guztietako ratioak: bi agente mila biztanleko; agente lehen bat lau agenteko; ofizialorde bat lau agente leheneko; ofizial bat bi ofizialordeko; komisariorde bat bi ofizialeko; eta komisario bat eta bi komisariordeko (118. artikuluko 7. eta 8. zenbakiak).

- Bitarteko funtzionarioak

ELA-Udaltzaingoak ez du esan bitarteko langileen kontra dagoenik, baina, bere ustez, aldi baterako edo aldi jakinetako aparteko beharrak estaltzeko erabili behar dira, plantillako langileen plaza hutsak betetzeko (120.1 art.). Sindikatuaren iritziz, 120.3 artikuluan, udaltzaingoko lan-poltsak sortzeari buruzkoan, berariazko deialdien bidez osatu behar dira lan-poltsak, eta ez Ertzaintzan sartzeko deialdiak gainditu bai baina plazarik ez dutenekin.

- Mugikortasun-agentekak

ELA-Udaltzaingoak proposatu du ezaba dadila 121.1 artikuluko aipamena, hain zuzen ere, funtzionarioen kidegoak sortzerakoan, “*ez dadila handitu udaltzain kopurua, ezta langile-kostuak ere*”.

3) Txosten eta irizpenetatik ateratako oharrak.

a) Hizkuntza Politikaren txostena:

Txostenak ondorioztatu du aurreproiektua bat datorrela indarreko hizkuntza-legeriarekin, eta nabarmendu du zirriborroa bi hizkuntza ofizialetan dagoela. Ondoren, hizkuntza ofizialen erabilerarekin erlazionatutako edukiak aztertu ditu, besteak beste, zioen azalpeneko edukia, zenbait artikulua (esaterako, 30 bis.2; 39.1; 41.2.d), 45 eta 47.3, zazpigarren xedapen gehigarria eta bosgarren xedapen iragankorra.

Bi proposamen egin ditu txostenaren amaieran:

- a) 30 bis.1.c) artikuluan aipatzea ez dela inor baztertuko hizkuntzagatik.
- b) Xedapen berria txertatzea: EAEko polizia bermatu egin behar du biztanleek nahi duten hizkuntzan (euskaraz edo gaztelaniaz) jaso ahal izatea arreta, ahoz zein idatziz.

b) DACIMaren txostena

Aurreproiektuaren balorazio positiboa egin dute, hainbat arrazoiengatik: udaltzaingoan antolaketa-egitura profesionalak eratzerakoan malgutasuna eta arrazionaltasuna erabiltzea; Ertzaintzaren Batzordearen diziplina-prozeduretan eta birgaitze-espedituetan funtzioak argitzea; prozedurak sinplifikatzeko eta hobetzeko neurriak hartzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokionez, hautapen-organo iraunkor gisa; eta udal arteko lankidetzak sustatzeko mekanismoak erabiltzea.

Haien ustez, Poliziaren Etikaren Europako Kodearen 61. aurreikuspenari erantzuten diote (2001eko Kontseilu Europarraren gomendioa) polizia-kontrolerako mekanismoen arauak, poliziaren eta herritarren arteko elkarrekinak eta kontuak emateko konpromisoak. Aurreikuspen horren arabera, "erantzukizunaren alde egiten duten eta herritarren eta poliziaren arteko komunikazioan eta ulermenean oinarritzen diren mekanismoak ezarriko dira"; hori guztia bat dator Berrikuntza Publikoaren Planeko (2014-2016) gardentasunaren eta gobernu onaren filosofiarekin.

Balioespen positiboa egin dute gai hauen inguruan: kontu ematearekiko konpromisoa, publikitate aktiboaren bidez; polizia-zerbitzua ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak, besteak beste, polizien zeregina ebaluatzeko mekanismoak edo, neurri hertsatzaileez gainera, prestakuntzan, prozeduretan edo lan-giroan hobekuntzak emateko ereduak eta arrisku-faktoreak aztertu ahal izateko prebentzio-mekanismoen ezarpena; eta poliziaren eta herritarren arteko derrigorrezko interakzioa, kezkak tratatzeko mekanismoak zerbitzu polizialarekiko independenteak izango direla bermatuz, herritarrek neutraltasunez eta korporatibismorik gabe tratatuko direlako konfiantza izan dezaten, kanpo-kontrolerako batzorde baten sorrerarekin sendotuta.

Balorazio horretaz gain, ohar hauek ere egin dituzte:

- a) 95.2.ter artikulua aukeran jartzen du espeditetia baliabide elektronikoaren bidez jasotzea. Aldiz, administrazio-prozedura erkideari buruzko lege berriak (oraindik indarrean sartu ez denak) dio nahitaez eta oro har erabiliko dituela administrazioak

baliabide elektronikoak funtzionarioekin eta beste administrazio batzuekin izan beharreko harremanetan. Gainera, horrek esan nahi du halakoetan dokumentuak ez direla zertan baliabide elektronikoen bidez bidali, espedienteko dokumentuen kopia helarazteko betebeharra betetzen baita dagokion administrazio eskudunaren sargune orokor elektronikoan edo egoitza elektronikoan eskura jarrita.

b) Jardunbide egokien batzordeari dagokionez, kontuan izan behar da administrazio-prozedura erkideari buruzko lege berria. Haren arabera, "ahal dela, deialdiak kideei baliabide elektronikoen bidez bidali behar zaizkie, eta, haietan, gai-zerrenda, bilera zer baldintzatan egingo den, konexio-sistema eta, hala badagokio, bilerara bertaratzeko eta bertan parte hartzeko beharrezko baliabide teknikoak zer lekutan dauden eskuragarri zehaztu beharko da"; era berean, "bilera bakoitzeko aktak igorriko dira, baliabide elektronikoen bidez".

c) Adierazi dute oraindik ere erabiltzen direla gaztelaniaz gizonezkoen termino batzuk generiko gisa, eta haiek zuzendu egin behar direla iradoki dute. Esate baterako: "funcionarios", "empleados públicos", "ciudadanos", "el agente de movilidad", "el alguacil"...

c) Emakunderen txostena

Ohar hauek egin ditu:

- Betiere, Gizarte Segurantzaren alorrean indarrean dagoen legediarekin bat baldin badator, zaintzagatiko eta/edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-aldiak benetan lan egindako alditzat zenbatuak izatea, erretiro-pentsioa jasotzeko eskatzen den ohiko adina murriztu ahal izateko. Ez da onargarria. Lege honen eskumena eta esparrua gainditzen du; alderdi hori Gizarte Segurantzaren arloko legediari dagokio.

- 92. artikulua 2. paragrafoko I bis) letran diziplinazko falta oso larritzat begiestea, sexu-jazarpenaz eta laneko jazarpenaz gainera, laneko jazarpen sexista edo sexuan oinarritutakoa, 4/2005 Legearen 43.2 artikuluan eskatzen denarekin bat. Onartua.

- Ertzaintzaren Kontrol Batzordeari dagokionez, proposatu dute, ez bakarrik emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua egotea, baizik eta baita generoaren arloan esperientzia duen pertsona bat sartzea ere.

- Gaztelaniazko testuan, genero maskulinoan soilik agertzen diren terminoak berrikusteko eta egokitzeko eskatu dute, hala nola "funcionario/os", "los empleados públicos", "sancionado", etab.

d) Sailen eta erakundearen alegazioak

Eusko Jaurlaritzako sail hauek egin dituzte alegazioak: Lehendakaritza; Osasuna; Ingurumena eta Lurralde Politika; Enplegua eta Gizarte Politikak; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.

Haietatik guztietatik, sail bakarrak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura) egin ditu aztertu beharreko oharrak, hain zuzen ere, 40.1 artikulua ingurukoak, akats bat zuzentzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak alegazio-aldian esan du ez duela ezer esatekorik.

e) Ertzaintzaren Kontseiluaren txostena.

Ez dakar oharrik.

f) Euskadiko Udaltzainak Koordinatzeko Batzordearen txostena.

Ez dakar oharrik.

g) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena.

29/2015 txostena egin du Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketaren lege-aurreproiektuari buruzkoa. Ekarpen hauek egin ditu:

- Polizia-jarduera kontrolatzeko mekanismoen kapituluan esandakoaren alde dago txostena.

- Bosgarren xedapen iragankorrari dagokionez (udaltzaingoetako funtzionarioak automatikoki goragoko kategorian integratzea), uste du, kidego horietan intendente-kategoria duen langilerik balego, koherentea izango litzatekeela langileen ordainsariak arautzeko atal bat biltzea.

- Hautaketa eta sarrera: Bi ohar egin ditu:

- Sartzeko deialdiaren baldintzak ez aldatzeko araei eta haien salbuespenei dagokienez, txostenak dio neurritz mugatu behar dela deitutako eta eskabidea aurkezteko epe berririk gabeko plaza kopuruaren gehikuntza, hartzaileen espektatibak alda ez daitezen. Hori gertatzen bada, derrigorrean ireki beharko da eskabideak aurkezteko beste epe bat, edo geroagoko beste prozedura baterako deialdia (47. artikuluan bosgarren paragrafoa gehitzea).

- Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten aholkulari adituei dagokienez, proposatu du haien jardunak objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bete behar dituela.

- Lanbide-karrera: gogorarazi du egun ez dagoela arau orokorrik. Hala ere, euskal funtzio publikoaren lege-proiektuak jasotzen du, eta administrazioek arau bidez modu harmonizatuan garatzea aurreikusten du, Euskadiko Enplegu Publikoa Koordinatzeko sortuko den Batzordeak ezarriko dituen oinarritzko irizpide komunetan oinarrituta. Horrenbestez, uste du karrera horizontalaren modalitate desberdinen ezarpen eraginkorra arautu egin behar dela, dagozkion administrazioen aurrekontu-ahalmenaren baitan egongo dela, eta funtzio publikoaren alorreko oinarritzko legeria errespetatu behar dela. Haren ustez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak homogeneotasuna ezarri behar du Euskal Administrazio Publikoetan, eta, hortaz, haren aurreproiektuan bezala, hemen ere aurreikuspen hauek jaso behar dira:

- “Xedapen iragankorra: Ertzaintzako langileei eta Toki Administrazioaren mendeko udaltzainei ezin izango zaie karrera profesionaleko osagarriaren konturako edo aurreratutako ordainsaririk onartu.”
 - “Karrera profesionalari dagozkion ordainsari-eskubideak ezin izango dira atzeraeraginez onartu.”
- Egokitutako zerbitzu aktiboa eta bigarren jarduera: dioenez, araudi hori badago urriaren 9ko 194/2012 Dekretuan, Ertzaintzako langileen 2011ko, 2012ko eta 2013ko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duen dekretua aldatzekoan, eta ez du ulertzen zergatik hartzen den lege gisa araudi hori; egokiagoa dirudi hitzarmen arautzailean biltzea, zerbitzuen prestazioa egokituta eta lan-baldintzak hobetuko dituen neurriak zehaztuta. Haren ustez, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa ez da zerbitzu aktiboaren desberdina, baizik eta lan-baldintzen egokitzapena, negoziazio kolektiboaren bidez egina, eta ez da lege bidez arautu behar. Hori guztia dela eta, proposamenaren aurka agertu dira.

Gainera, ez dago ados egokitutako zerbitzu aktiboaren edo bigarren jardueraren egoera posible denik Administrazioaren esku eta lanik egin gabe egonda, aldi baterako bada ere, eta aurretik jasotzen zituen ordainsari guztiak jasota. Haren iritziz, ordainsari horiek ez daude justifikatuta, destinoaren zain edo nahitaezko eszedentzia-aldian (hau da, lanik egin gabe) edo destinatorik gabeko bigarren polizia-jarduerako egoeran egonda kobra daitezkeenak baino handiagoak baitira. Bestalde, nabarmendu du aurreproiektuak ez duela mugatzen urtero zenbat pertsona pasa daitezkeen egoera horietara, dauden antolaketa-ahalbideak kontuan hartuta. Haren ustez, aldaketa horiek ez dira beharrezkoak, dagoeneko ezarrita daudelako arauetan (hain zuzen ere, hobeto egokitzen zaizkie araei), eta agian ezin izango liritekeela aplikatu antolaketari eta aurrekontuei dagokienez, non eta ez den mugatzen urtero halako egokitzapenetara igaro daitezkeen polizia kopurua eta destinoaren zain eta lanik egin gabe dauden langileei ez zaien zirriborroan ageri bezala ordaintzen. Eta ulertzen du espedientean ez dela justifikatzen proposamenaren bideragarritasun ekonomiko eta antolakuntzako. Haren ustez, baliteke proposamenak arazoak sortzea antolakuntzan. Funtzionario asko eta asko destinoaren zain geratuko liriteke; horrek gainkostu handia eragingo lioke administrazioari, baina, trukean, ez litzuke zerbitzuak jasoko.

Bestalde, uste du nahasgarria dela destinoa esleitzen den arte edo lanpostua egokitzen den arte Administrazioaren esku destinatorik gabe egotea; izan ere, pentsa liteke poliziakoak ez diren eginkizunak ere esleiri daitezkeela Administrazioko edozein arlotan, nahiz eta beste arlo batzuetara zabaltzeko aukera ez dagoen jasota lanpostuen zerrendetan. Proposamenaren aurka dagoela esan du, bigarren jarduerako langileak Administrazioaren esku gera daitezkeela uler baitaiteke, eta ez Segurtasun Sailaren esku.

Bigarren jarduerako administrazio-egoerari dagokionez, proposatu du segurtasun-kidego eta -indarretako funtzionarioek bete dezaketen lanpostu gisa sailka dadila bete beharreko lanpostua dagokion lanpostuen zerrendan.

- Laneko arriskuen prebentzioa: txostenak dio zerbitzu medikoak edo prebentzio-zerbitzuak ez duela kontratuak edo hitzarmenak egiteko eskumenik.

- Aguazilak eta mugikortasun-agenteak: Bi funtzionario mota horiei dagokienez, proposatu du berariaz lot dakiola Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren

(EPOE) bigarren xedapen gehigarriari. Era berean, esan du beharrezkoa dela aguazilek prestakuntza jasotzea armak erabiltzen ikasteko; bestela, lan-kontratudun aguazilek ezin izango omen dute funtzionario izan. Zortzigarren xedapen gehigarri dagokionez (udalek udaltzaingoa sortzea erabakitzen dutenerako hipotesia jasotzen duena), txostenak dio funtzionario aguazilak soilik integratuko direla sortuko den udaltzaingoa, eta funtzionario ez direnak zer egoeratan geratuko lirakekeen ere zehaztu behar dela. Onartu da. Orobat, proposatu du integrazioak ezin izango duela ekarri gastu publikoa handitzerik, ez eta jasotzen diuzten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarriko ordainsarien hazkundera beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute.

- Udaltzaingoen egiturak eta buruzagitzak:

Adierazi du, udalerriko populazio-parametroak aldatuz gero, udaltzaingoaren egitura doitu beharko litzatekeela. Horrek buruzagitzaren kategoria murrizten badu, eta kategoriak titularra badu, titularrak eginkizunak betetzen jarraituko du, eta lanpostua “desagertzeko” daudenen artean sailkatuko da. Aldiz, goranzko aldaketa gertatuko balitz, funtzionarioek lanpostuan jarraituko dute, izendatu zituztenean zeuzkaten baldintzekin eta betetzen ari diren lanpostuari benetan esleitu zitzaizkien ordainsariak jasoz.

Gogoan izan, langileak udaltzaingoetako buruzagitzaren lanpostu berrietan integratzerakoan, beharrezko titulua izan behar dela. Haren ustez, ordea, ez da hori gertatzen seigarren xedapen iragankorreko bigarren zenbakiko bigarren paragrafoan, esperientziak ordeztu egiten baitu titulua.

h) KEBren txostena

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Bosgarren Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua indarrean sartzeak 2016an Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuetan eta etorkizunekoetan ekar dezakeen aurrekontu-eragina dela eta, Segurtasun eta Administrazio Publikoko eta Justiziako sailek emandako dokumentazioa aztertuta, Aurrekontuen Zuzendaritzak uste du kostu ekonomikoen gorakadak izango direla, funtsean, kontzeptu hauengatik:

1.- **Praktiketan dauden ertzainen** atxikipen-taldearen aldaketari dagokion kostuaren gorakada aurreikus daiteke, eta Aurrekontuen Zuzendaritzak urtean 916.000 €-an kalkulatu du.

2.- Halaber, ordainsari-behar berriak ondorioztatuko dira, **adinaren araberako zerbitzu aktiboaren modulazioen** arauketaren eragina konpentsatzeko; zenbatekoa ez du ebaluatzen Segurtasun Sailak, hura aurkeztutako memoria ekonomikoaren defizita izanik. Bakarrik adierazten da neurri horietako batzuk dagoeneko aplikatzen direla gaur egun Ertzaintzan, eta eragin ekonomikoari Ertzaintzako langileei esleitutako aurrekontu-zuzkidurekin ari zaio erantzuten.

3.- Etorkizunean esanguratsua izan daiteke **Ertzaintzan lanbide-karreraren osagarria** ezartzea, euskal administrazio publikoan lanbide-karrera horizontala araututa. Hala ere, egoera hori ezin da ekonomikoki ebaluatu, ez baitago oinarri hartzeko aipamenik.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen inguruan proposatzen den aldaketak dakartzan langile aldetiko kostuen gorakadei urtero erantzun behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Segurtasun Sailari 1. kapitulurako esleitutako zuzkidura ekonomikoen bidez; horiek urtero egokituko dira Jaurlaritzak onesten dituen jarraibide ekonomikoetara.

i) EABJren irizpena

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 62/2016 Irizpena igorri du gure Sailera, 2016ko apirilaren 19koa. Irizpena aldekoa da. Legegintza-teknikari buruzko zenbait ohartarazpen egin digute, eta gehienak behin betiko testuan jaso ditugu. Ez dugu onartu, ordea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeko Legearen 16. artikulua indargabetzeko iradokizuna, iradokitakoa lege-proiektu honek araututakotik haratago baitoa; izan ere, legean araututako EKINBIDE bulegoak polizia-kexak artatzea baino eginkizun gehiago du. Bulegoaren jardun-eremua zabalagoa da, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema osoari eragiten diolarik, alegia polizia-zerbitzuei ez ezik larrialdiei eta babes zibilari ere eragiten die. Hortaz, 2012ko legean aurreikusitakoak eta lege honetan aurreikusitakoak ez dute talkarik egiten; alderantziz baizik, bata bestearen osagarri dira.

IV.- ALEGAZIOEN ETA OHARREN ANALISIA

Jasotako alegazioak eta oharrak aztertu ondoren, eta hasierako zirriborroetan aldaketak egin ondoren, aldaketak egin dira testuaren hizkera ikuspegi ez sexistatik berrikustean.

- Polizia-jarduera kontrolatzeko mekanismoak

Atal honetan esan behar da erakunde sindikalek egin dituzten alegazioak alegazio gisa hartu direla, kapitulu honetako edukia ez baitago negoziatu beharreko gaien artean.

Lehenengo zirriborroari dagokionez, ekarpen hauek egin ziren:

ERNE sindikatuak kendu egin nahi du. **ESAN** sindikatuak kapitulua kentzea iradoki du, bere ustez, “asmo politikoak” dituelako. **UGT** sindikatuak esan du udaltzaingoek beren sistema dutela; aldiz, toki-administrazioak adierazi du aukera dagoela kontrol-batzordean udaltzaingoko funtzionarioen ordezkariak egoteko (EUDEL). Oinarrizko Arauaren Taldean, udaltzaingoko eta Segurtasun Saileko ordezkariak EUDELekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan sortutakoan, iradoki da udaltzaingoko ordezkariak ere sartzea batzordean, udaltzaingoei dagozkien jardunei buruz hitz egitean. Eta batzordeari izen hau jartzea: “EAEko Polizia Kontrolatzeko Batzordea”.

Kontrol-batzordearen eginkizunei dagokienez, azaldu du nola bateratuko liritekeen batzordearen eginkizunak eta aribideko ikerketa penala 11.2.a) artikuluko kasuetan, zeinak penalki ohikoak diren egitateak izan daitezkeen, polizia judizialak ikertu beharrekoak eta agintaritzaren judizialari berehala ezagutarazi beharrekoak. **ESAN** sindikatuak esan du horrek epaileen lanean eskua sartzea ekar dezakeela.

Kontrol-batzordearen osaerari dagokionez, Emakundek eskatu du gizon eta emakume kopuru orekatua izan dezala. **ESAN** sindikatuak nahi du batzordekideak ez daitezela izan A taldekoak (hau da, oinarrizko eskalako agenteak ere izan daitezela,

unibertsitateko titulua baldin badute). Oinarrizko Arauaren Taldeak eskatu du udaltzaingoko funtzionarioak ere izan daitezela batzordekide.

Beste funtzionario batzuk kontrol-batzordeari laguntzera joateari dagokionez, **ESAN** sindikatuak uste du ez luketela zerbitzu-eginkizunean joan behar, haren ustez, horrek bidea ematen duelako aukera politikoengatik ezeztu dakien.

ERNE kexu da barne-arazoengatik jardunei hasiera emateko tresna eskusiboa bihurtu delako Ekinbide, baina ez du horren inguruko proposamenik egin.

Oharrak aztertu ondoren, balorazio hau egin da:

ESAN sindikatuari erantzunez, esan behar da lege orok programa politiko bat islatzen duela; hortaz, ez da logikoa arauak berezko duten zentzuagatik gaitzestea. Polizia-jarduera kontrol partidistaren pean dagoela esan nahi bada, hori ez da inola ere horrela. Polizia-jarduera jarduera administratiboa da eta, hala denez, ordenamenduan adierazitako kontrolen pean dago, bai administrazioaren eta gobernuaren hierarkia-kontrolaren pean, bai parlamentuaren kontrol politikoaren pean. Baina araua aldatzeak ez du eraginik kontrol horietan; aitzitik, kontrol horren gardentasunean eragiten duen mekanismoa konfiguratu du, polizia-jardun jakin batzuk aztertzeo eskumena ematen baitie eginkizun independenteak dituzten zenbait adituri.

Tokiko iradokizunei jaramon eginez, eta kontuan izanda badago ELA-Ertzaintza eta udaltzaingoak biltzen dituen EAeko polizia, hainbat administrazioen ardurapean dagoena baina helburu bera duena, hau da, erabateko segurtasuna bermatzea, onartzen da EAeko polizia osoa sartzea batzordearen jardun-esparruan.

Hortaz, aldatu egingo da hasieran proposatutako izendapena, eta kide izan ahalko dira EAeko polizia-kidegoetako A taldeko aditu guztiak. Hala ere, argitu behar da Segurtasun Sailak edo dagokion udalak hala eskatuz gero esku hartuko duela batzordeak, kidegoa zeinen menpe dagoen.

Bestalde, idazketa aldatu da, garbi gera dadin jarduteko zer aukera dituen batzordeak zigorbideetik ikertzen ari diren heriotza-kasuetan edo lesio larriko kasuetan izandako polizia-jarduna aztertzerakoan.

Horren ildotik, esan behar da batzordeak bere jardueraren berri emango diola agintaritzaren judizialari, ikerketa penala ez eragozteko, ezta jardunen erreserba ere. Eginbide penaletan ikertutako langileek ez du zertan batzordearekin elkarlanean aritu, eta batzordeak kasuarekin erlazionatutako dokumentazio administratiboa behar badu (ez eginbide penalak edo atestatua), edo *in situ* egin behar baditu ikuskapenak, agintaritzaren judizialaren onarpenera lortu beharko du.

Zehaztu behar da batzordearen jarduna ez dela egitateen egilea nor izan den ikertzea, ezta erantzukizunak argitzea ere. Hori dela eta, zuzendu egin dira zenbait hitzen erabilera, besteak beste, "ikerketa", eta aldatu egin da batzordearen beraren izendapena. Horrela, aurrerantzean, "jardunbide egokien batzordea" izango da. Indartu egin dira batzordearen izaera eta xedea, txostenetako edukia zehaztuta.

ERNEK Ekinbideri buruz egin duen kexa dela eta, esan behar da hura ez dagoela ezekin datutan oinarrituta. Areago, erraz egin dakioko kontra erakundeak urtero Legebiltzarrari bidaltzen dion memoriako datu estatistikoak erabilita baino ez.

Aurkeztutako alegazioei jaramon eginez, nabarmen aldatu du bigarren zirriborroak atal hori hasierako zirriborrotik, esandako ildotik.

Idazketa berria egin ondoren, **ERNEk** alegazio berberak egin zituen negoziazio-fasean, nahiz eta zenbait aldaketa egin ziren. Hala ere, bigarren zirriborroaren idazketak dagoeneko erantzun die **ERNEren** eta **ESANen** iradokizunetako batzuei.

CCOO sindikatuak eskatu zuen ezaba zedila proposatutako araudia, eta beste bat eman zedila. Horren arabera, aginte-kateak jarduera polizial bakoitzaren aurretik argitaratuko ditu jardun-aginduak, arrisku-maila zehaztuta. Ordezkariei horren berri emango litzaieke. Emandako aginduak batzorde espezifikoak aztertu eta baloratuko ditu; ordezkariei ere egongo dira batzorde horretan. Ezin da onartu proposamena. Poliziaren lana da arrisku-egoerei erantzutea. Arriskua ezin da beti erraz aurreikusi, edo alda daiteke, edo ustekabean ager daiteke. Halako egoeretan, agintaritzaren agenteek erabakiak hartu behar dituzte, haien ardura delako eta horretarako eskumena ematen dielako indarreko antolamenduak. Hortaz, ezin da egin proposatutakoa. Gainera, sindikatuen lana ezin da izan aginte-katearen erabakiak kontrolatzea.

Jardunbide egokien batzordeari dagokionez, **CCOOk** proposatu du erdiak ikertutako lanpostu eta kategoria bereko ertzainak izan daitezela, gutxienez 5 urteko antzintasuna dutenak, eta ordezkariei ere egon daitezela. **ELA** sindikatuak proposatu du jardunbide egokien batzordeko kideen erdiak Ertzaintzako funtzionarioak izan daitezela, kidegoan gutxienez 15 urteko esperientzia dutenak.

Jardunbide egokien batzordearen osakerari dagokionez, proposamen sindikalek kanpo uzten dituzte Ertzaintza ez den EAeko poliziako beste kidego batzuetako funtzionarioak edo funtzionario izandakoak. Hori dela eta, ez dago garbi ea onartzen duten batzordearen jardun-esparrua EAeko polizia osoa izatea. Proposatutako esparrua EAeko polizia denez, ez du zentzurik batzordekideen erdiak kidego zehatz batekoak izatea.

Alegazioak aztertzerakoan bada kontuan hartu beharreko beste faktore bat. Batzordearen lana ez da banakoen portaerak ikertzea, eta are gutxiago haiek epaitzea; alderdi konplexuagoz arduratzen da. Alderdi horiek gainditu egin ohi dituzte egintza bereziak, antolakuntzako alderdiak, egiturazkoak, etab., eta, haiek aztertzeko, gaikuntza profesional handia behar da.

CCOOren proposamenak ez du funtsik. Lehenik, ez dagokio batzordeari funtzionario zehatzak ikertzea (areago, berriaz esaten da ez dutela horretarako eskumenik). Hortaz, ikertutako lanpostuak ezin du inola ere izan batzordeko kideak izendatzeko elementu erabakigarria. Bigarren, jardun osoa aztertzen da (plangintza, garapena eta emaitzak), baita aurretik zeuden baldintzak ere (erabaki politikoak, arauak, baliabideak, plangintza eta gauzatzea); inoiz ez da aztertzen banakoen jarduna. Hori dela eta, proposatutako irizpideak ez du balio osaera zehazteko. Hirugarren, irizpide horren arabera, aztertutako kasu bezainbeste osaera egongo lirarteke. Hortaz, ez legoke osaera egonkorrik, eta osaera egonkorra izan dezan nahi du proiektuak.

Gauza bera esan dezakegu **ELA Ertzaintzak** egindako proposamenaz. Batzordean Ertzaintzako funtzionarioak egongo direla baino esaten ez duenez, euskal udaltzaingoetako beste hautagai posible batzuk kanpoan uzten direla dirudi (udaltzaingo horiek ere badaude aplikazio-eremuan). Antzintasunak ez du balio batzordearen osaera zehazteko irizpide gisa; bai, ordea, gaikuntza akademikoa eta

profesionala. Bestalde, ez dirudi onargarria denik batzordearen independentzia mugatzea, eta hari eskatzea, txostena amaitu aurretik, erakunde-organo paritario bati entzuteko (adibidez, Ertzaintzaren Kontseiluari). Batzordeak askatasuna izan behar du erabakitzeke zer lekukotza bildu behar dituen. Edonola ere, ez dirudi Ertzaintzaren Kontseiluaren lekukotza, berez, erabakigarria izango denik. Ezin da onartu, ezta ere, jardunbide egokien batzordeak Ertzaintzaren Kontseiluari ematea egiten duenaren berri.

Bestalde, **ELA** sindikatuak proposatu du Legebiltzarreko talderen batek edo Arartekoak hala eskatuz gero ere esku har dezala Batzordeak, eta, txostena eman aurretik, Ertzaintzaren Kontseiluari entzun diezaiola. Horri buruz esan behar da beti gorde behar direla jardunbide egokien batzordearen zintzotasuna, inpartzialtasuna eta independentzia. Hori dela eta, ez dirudi arrazoizkoa, ezta ere, Legebiltzarreko talderen batek hala eskatuta aktibatu ahal izatea mekanismoa, mekanismoaren erabilera alderdikoia bailitzateke hori; areago, gehiegizkoa eta berria litzateke alderdi politiko bakarrak aktibatzea mekanismo administratiboak, Legebiltzarraren erregelamenduan bertan ezarritako kontrol-mekanismoak alde batera utzita. Arartekoari dagokionez, kontuan izan behar da hark bere mekanismo eta prozedurak dituela ofizioz jarduteko, eta mekanismo eta prozedura horiek batzordearen eginkizunei kalterik egin gabe gauza daitezkeela.

DACIMAren txostenaren arabera, jardunbide egokien batzordeari dagokionez, kontuan izan behar da administrazio-prozedura erkideari buruzko lege berria. Haren arabera, oro har, baliabide elektronikoen bidez bidali behar dira deialdiak eta aktak. Proposamen horrek ez dakarkio ezer araudiari. Araudiak ez du arautzen ez nola egin batzordearen bileretarako deialdiak ez nola bidali aktak. Hortaz, aipatu diren prozedura erkidearen arauak aplikatuko dira, baina lege honen testuan ez da zehaztu beharrik zertan datzan prozedura.

Kapitulu honi amaiera emateko, eta ELAren proposamenari erantzunez (alegia, entzun dakiela ordezkari sindikalei Ekinbidek egindako espedienteetan, zerbitzuan izandako gorabeheren inguruko kexekin erlazionatutakoetan), esan behar da eskakizun horrek ez dakarkiola ezer kexaren prozedurari, eta eragotzi egiten duela herritarrekin zuzenean harremanetan egotea. Bestalde, Ekinbideren txostenak argitaratu egiten dira.

Ekinbideri dagokionez ere, ezin onar daiteke **ELA-Udaltzaingoaren** proposamena, alegia, ezaba dadila udalerriek kexen kudeaketa Ekinbideren esku uzteko aukera. Aukera hori egongo litzateke, nahiz eta proiektuan ez ezer esan.

- Kode deontologikoa

Kode deontologikoari dagokionez, **ERNE** sindikatuak zenbait aldaketa proposatu ditu.

Lehena da agintaritzaren agentearen izaera aitortzea (33. art.), baita zerbitzuz kanpo ere, polizia berme juridiko berberak eskaini ahal izateko euren edo ondarearen aurkako erasorik izanez gero. Gai hori lege autonomikoaren esparrutik kanpo dago: legeak ezar dezake agintaritzaren agentearen izaera dutela (Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoak bezala), baina ezin interpreta ditzake horrek izan ditzakeen ondorio penalak. Hala ere, indarreko Kode Penalak babes penal berezia ematen die agenteei atentatu-delitua gertatzean, ez bakarrik eginkizunak betetzen ari direnean (kontuan izan behar da zerbitzua etengabe emateko betebeharra dutela), baizik eta

baita eginkizunak betetzen ari direla eraso egiten dietenean ere. Haratago joanez gero, aldatu egin beharko litzateke Kode Penala.

Bestalde, **ERNEK** nahi du 34. artikulua aldatzea, armak erabiltzeari buruzkoa; hain zuzen ere, arriskua larria izatearen eskakizuna kentzea, baita erresistentzia armatua dagoenean edo norberarentzat edo hirugarrenentzat arriskua dagoenean eta beste bide batzuk erabilia erasotzailea gelditu edo azpiratu ezin denean su-armak erabiltzea muturreko neurria dela esaten duen aipamen oro ere. Egin nahi den aldaketa atzerapauso nabarmena da poliziak armak erabiltzearen inguruko legetan.

Azkenik, **ERNEK** proposatu du akusazio penalen kasuan funtzionarioek duten babes juridikorako bermea beste kasu batzuetara ere zabaltzea, besteak beste, funtzionarioei eurei edo ondasunei kalte eginez gero, eta polizia izanagatik mehatxuak edo irainak jasoz gero. Egia esan, proposamen hori badago 1995eko Dekretuan (kasu horietako ordezkartza eta babesa arautzekoan) eta laguntza juridikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektuan.

Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du funtzionarioarekin “adostea” administrazioak eskaintzen dion babesa. Ez da beharrezkoa hori zehaztea, defendatutakoa ados badago baino ezin baita hura defendatu eta ordezkatu, prozedura-legeen arabera.

Hizkuntza Politikaren txostenak bi proposamen egin ditu 30. artikuluari dagokionez:

- 30 bis.1.c) artikuluan aipatzea ez dela inor baztertuko hizkuntzagatik. Aginduak dio ez dela inor baztertuko ezaugarri pertsonalengatik, ezaugarria edozein dela ere, eta hizkuntza-eskubideak argiago jasota egon daitezke 30 bis 2 artikuluan; beraz, haren arabera aztertuko ditugu.
- Xedapen berria txertatzea: EAEko poliziak bermatu egin behar du biztanleek nahi duten hizkuntzan (euskaraz edo gaztelaniaz) jaso ahal izatea arreta, ahoz zein idatziz. 10/1982 Legearen bidez arautzen dira herritarren hizkuntza-eskubideak (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea), eta ez da komeni funtsezko araudia sakabanatzea. Hala ere, hel dakioko araudi horri. Beraz, aldatu egingo da 230 bis 2 artikulua, eta hau gehitu: *Herritarrekiko harremanetan, EAEko poliziak kontuan izango ditu Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean aitortutako hizkuntza-eskubideak.*

- Prestakuntza eta elebitasuna.

Proiektuan, polizien prestakuntzari eta elebitasunari buruzko zenbait alderdiri heldu zaie. Hainbat ekarpen egin dira gai horien inguruan, eta batera aztertuko ditugu.

Bestalde, eta EPL aldatzeko legearen proposamenetik harantz, **ERNEK** proposatu du LOSSPE aldatzea, PLEAko Kontseilu Errektorean udaltzaingoen kidegoetako sindikatu nagusiak ardura daitezten kidego horietako ordezkartzaz. Ez da onargarria, bi arrazoiengatik: a) PLEAk polizia-kidegoetako tokiko funtzionarioak prestatzen ditu, baina baita suhiltzaile-kidegoetakoak ere; hortaz, bertako ordezkartza ezin da polizia-kidegoetako funtzionarioen artean soilik banatu. b) Ezinezkoa izango litzateke

udaltzaingo-kidegoak soilik arduratzea ordezkartuz, udalerrietan batera egiten direlako polizia-kidegoen eta gainerako funtzionarioen hauteskunde sindikalak.

EPLren esparrutik kanpo ere, **ERNEK** proposatu du zehatz dadila PLEAko zer lanpostu bete behar dituzten polizia-funtzionarioek, eta publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituta hauta daitezela. Indarreko arategiak dagoeneko biltzen ditu aurreikuspen horiek; beraz, alderdi hori ez dagokio lege honi edo LOSSPEri, baizik eta, hala badagokio, PLEAren LPZri.

Prestakuntza dela eta, **ERNEK** proposatu du 39.2 artikulua berariaz ezar dezala PLEAko prestakuntza-planak nahitaez bete behar direla. Alabaina, proposamenak ez du zehazten nork bete behar duen. Gogorazi behar da erakunde instrumentala dela PLEA eta, nola ez, bere programazioak behartzen duela. Gainera, prestakuntzaren plangintzarekin eta programazioarekin erlazionatutako guztia LOSSPEn araututa dago.

CCOOK nahi du PLEA behar dadila agente bakoitzari jakinaraz diezaion zer prestakuntza-eskaintza osatu behar duen, eta ikastaroak bukatzean haiei buruzko dokumentazioa eman diezaion. **ELAK** proposatu du Legeak ezartzea administrazio bakoitzak arauz ezarriko duela, negoziazioa egin ondoren, urteko gutxieneko prestakuntza.

Legerik gabe ere erantzun ahal izango litzaioke horri. Hartzaile guztiei eman behar zaie prestakuntza-eskaintzaren berri, baina ez dirudi arrazoizkoa informazio pertsonala ematea. Ez dago argi, ezta ere, nahitaezko edo borondatezko prestakuntzaz ari diren. Ikastaro batzuk nahitaezkoak dira (birziklapen-ikastaroak eta beste batzuk), eta beste batzuk, berriz, borondatezkoak. Funtzionario bakoitzari dagokio esatea zein interesatzen zaion. Prestakuntza nahitaezkoa denean, polizia-arduradunek erabakitzen dute nork joan behar duen, baina ez PLEAk. Gainerakoetan, zer interes duen emango du izena funtzionario bakoitzak, eta, ikastaroaren arabera, hautaketa-irizpide batzuk edo beste aplikatuko dira. Gerta liteke funtzionario batzuek ikastaro batzuk baino gehiago egin izana, eta beste batzuek, berriz, bat ere ez. Baina hori hainbat gauzaren arabera egon daiteke (urteko programazioa, funtzionario bakoitzaren interesa, edo uneko antolakuntza-erabakiak), eta hori guztia ez da konponduko legea proposatu bezala aldatuta.

ELAK proposatu du prestakuntza eman dadila grebarako eskubideari eta etxebizitzarako eskubideari buruz, edota zentro ofizialetan edo polizia-zentroetan egindako ikasketak soilik baliozkotu daitezela. Lehenengoari dagokionez, ez dirudi arrazoizkoa adierazitakoen moduko bi eskubide irakats daitezkeen bereiztea, eta haiek bezain garrantzitsuak edo haiek baino garrantzitsuagoak diren oinarritzko gainerako eskubideak alde batera uztea. Eta, noski, ez da esan beharrik zentro ofizialetan edo polizia-zentroetan egindako ikasketak soilik baliozkotatu direla.

Uzi horiek, oro har, ez dirudite egokiak lege-erreforma honetarako, LOSSPEn jasotako PLEAren araudian sartzen direlako, edo beheragoko arau dinamikoagoei dagozkielako.

- Hizkuntza Normalkuntza

ERNEK proposatu du legeak modua eman diezaiola erregelamenduari prestakuntza-, gaikuntza- eta euskalduntze-ikastaroak zer maiztasunarekin egin behar diren zehazteko. Proposamen horri erantzunez, esan behar da horrelako zerbait adierazteak

ez duela erregelamendua gaitzen dagoeneko egin dezakeena egiteko. Hala ere, ez da erraza araudi bidez ezartzea maiztasun egonkorra; horretarako, egokiagoa da negoziazio kolektiboko tresnak edo prestakuntza-plangintza erabiltzea.

Elebitasunarekiko konpromisoari eta euskalduntzeari dagokionez, **ERNEk** eta **ESANek** liberalizazio-plana eskatu dute. **ERNEk** proposatu du, gainera, xedapen gehigarri eta iragankor berri batzuk barnera daitezela, hizkuntza-profila funtzionarioari lotzeko, eta ez lanpostuari, funtzionario guztiak hutsetik euskalduntzeko liberatzen ez diren arte, eta automatikoki aplikatzen dadila 47/2012 Dekretua, euskarazko ikasketak aitortzeari eta tituluen egiaztapenetik salbuesteari buruzkoa. Bestalde, CCOO sindikatuak proposatu du ez dadila beste derrigortasun-datarik ezarri Ertzaintzan eta, lehiaketetan, euskararen gehienezko balorazioa lehiaketako lanpostu guztien % 3 izan dadila gehienez, harik eta hala nahi duten funtzionarioak hutsetik liberatu arte (horretarako, gutxienez 100 agente liberatuko lirarteke urtean).

Ertzaintza euskalduntzeko prozesuan beste edozein funtzionario-taldeetarako ezarritako mekanismo berberak aplikatzen dira, baina hizkuntza-profil bereziak ere diseinatu dira polizia-lanaren berezitasunak aintzat hartuta. Hizkuntza-profilek lanpostuaren eta ingurunearen beharrei erantzuten diete; horregatik ezin dute egon pertsonari lotuta. Gainera, euskara ikasteko liberazio-politikan, ezinezkoa da langileak bitartekoekin ordeztzea. Bi alderdi horiek direla eta, ezin da onartu **ERNEk** proposatutakoaren moduko erregimen iragankorra.

Bestalde, zuzenean aplikatuko dira 47/2012 Dekretuko salbuespenak, bertan adierazitakoaren arabera: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 2. artikuluan adierazitako administrazio publikoek eta erakundeek EAEn antolatzen dituzten enplegu publikoko hautapen- eta hornikuntza-prozeduretan, hizkuntza-titulu edo -ziurtagiriak baldintza gisa ezarri edo merezimendu gisa baloratzen direnean izango dituzte ondorioak Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritako salbuespenek.

Dirudenez, proiektuari ez dakarkio ezer **ELA-Udaltzaingoaren** proposamenak, alegia, hizkuntza-gaikuntzari dagokionez erakunde bakoitzaren euskalduntze-planak aipatzeak.

- Aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak.

ERNE ez dago ados gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzera bideratutako ekintza positiboko neurriekin, baina ez du horren inguruko beste proposamenik egin. Bestalde, **ELA-Ertzaintzak** proposatu du ez dadila aplikatu berdintasun-legea lanpostuak hornitzeko prozeduretan, baina ezin da onartu.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du, hautapen-prozeduretan 3 plaza baino gutxiago eskaintzen direnean, gutxieneko portzentajea ez dadila zertan izan % 25 baino txikiagoa; bestela, plaza guztiak emakumeentzat gorde beharko lirarteke. Jaramon egin zaio iradokizunari. Testua aldatu da, eta hau txertatu: *Oro har, emakumeak sustatzeko planak egiten ez diren bitartean, gutxieneko portzentajeak ezin du izan % 25 baino txikiagoa, betiere, hiru plaza baino gehiago badaude deialdian.*

Emakundeak proposatu du seme-alabak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik hartutako eszedentzia-aldiak ere kontuan har daitezela erretiro aurreratuari begira.

Alabaina, horrek gainditu egiten du Euskadiko legegintza-ahalmena, Gizarte Segurantzaren legeria orokorra aldatzea baitakar.

- Sarrera eta hautapena.

CCOO sindikatuak proposatu du urtero egitea deialdiak plantilla osoa betetzeko, baita oinarrizko ikastaroa amaitu aurretik erretiroa hartuko dutenen kopurua ere. Ezin da onartu. Ertzaintzan, ez dago lan-eskaintza publikorik. Edonola ere, legean sartzeak ez luke eragotziko Espainiako gobernuak bi urtetan egin dituenaren moduko errekurtsioak egitea; baliteke horrek legearen aurka beste errekurtsio bat jartzeko bidea ematea. Gainera, ezin izango liriteke lan-eskaintza publikoan sartu deialdia egiterakoan hutsik ez dagoen lanposturik.

Kidegoan **sartzeko baldintzei** dagokienez, batetik **EUDEL** pozik dago, hautagaiei zuzenean eskatzen baitaie C1 azpitaldeko titulua izatea. Hala ere, uste du mekanismo iragankorra ezarri behar dela azpitaldean legea indarrean jarri aurretik sartu direnentzat, ordainketa- eta administrazio-ondorioetarako.

ERNEK, ELAK, UGTk eta **CCOOK** eskatu dute ken dadila **kidegoan sartzeko gehienezko adina**. Kidegoan sartzeko gehienezko adinari dagokionez, gogorarazi behar da gaur egun ez dagoela eskakizun horren aurkako epairik Ertzaintzaren kasuan. EKAN adina mugatzearen alde azaldu da eparen batean; hala ere, berriki, EEJARA bideratu du gaia, arazo prejudizial gisa. Barne-jurisprudentziaren aurrekariak Espainiako polizia nazionalari dagozkio (hori dela eta, goardia zibilean ere mugatura dago adina); eta Europako jurisprudentzia, berriz, Asturiasko udaltzaingoari. Gai horren inguruko eztabaida juridikoaren oinarria da ea badagoen justifikazio arrazionalik halako neurri batek arrazoizko diskriminazioa dakarrela esateko. Ertzaintzaren kasuan, hainbat arrazoirengatik adieraz daiteke adina baldintzatzaile erabakigarria dela antolaketan: a) 40-50 urtetik aurrera, pixkanaka galtzen dira baldintza psikofisikoak (hori dela eta, 55-56 urtetik aurrera, ohiko jardueretako batzuk egitetik salbuesten dira, eta 59 edo 60 urterekin erretiroa ematen zaie); b) 50/60 urterekin erretiro aurreratua hartzeko aukera arautzen duten koefizienteak kalkulatu dira (kalkuluak egiteko, kidegoan batez beste 25-30 urte bitartean eramatea hartu da aintzat). Edonola ere, epaitegiek erabakiko dute neurria justifikatuta dagoen ala ez.

Bestalde, **EUDELEK** proposatu du gehienezko adina udaltzaingoen kidegoetan emandako zerbitzuekin konpentsatzeko aukera ez dadila automatikoa izan, baizik eta deialdiaren oinarrietako udal erabakira jo dadila. Ez dirudi arrazoizkoa deialdi bakoitzean erabakitzea hori, ez bailuke segurtasun juridiko nahikoa eskainiko sartzeko baldintzei dagokienez.

Erretiro aurreratuari begira seme-alabak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik hartutako eszedentzia-aldiak ere kontuan har daitezten **Emakundek** egin duen proposamenari dagokionez, arrazoizkoa izan liteke, baina LOGSSeko gaia da. Legeak benetan lan egindako urte osoak aipatzen ditu.

Hautapen-epaimahaien osaera arautzeari dagokionez, **ERNEK** uste du ez direla kanpoan utzi behar bitarteko funtzionarioak. Funtzio publiko osoan uzten dira bitarteko funtzionarioak hautapen-epaimahaietatik kanpo, EPOEn hala ezarrita dagoelako.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du, baterako deialdien kasuan, arau bidez zehatz daitezela epaimahaien osaera eta plazak esleitzeko formulak. Ez da beharrezkoa hori zehaztea, baterako deialdiek ezarriko baitituzte arauak.

Era berean, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du prestakuntza-ikastaroaren eta praktikaldiaren iraupena, oro har, ez dadila izan 24 hilabetetik gorakoa (egun, legeak dio 30 hilabetekoa izango dela); ikastaroa 6 eta 9 hilabete bitartekoa izatea, eta praktikaldia ez izatea 12 hilabetetik gorakoa. Ikastaroen eta praktikaldien iraupena estandarizatuta dago; ez du arazorik sortzen, eta ez dirudi aldatuko denik. Legegileak muga ezarri zuen, baina, ikastaro estandarizatuena gainditu arren, ez du arazorik sortzen eta, ondorioz, ez du legea aldatzera behartzen.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak bi ohar egin ditu:

- Sartzeko deialdiaren baldintzak ez aldatzeko arauari eta haien salbuespenei dagokienez, txostenak dio, indarreko hautapen- eta prestakuntza-erregelamenduan jasota egon arren, neurritz mugatu behar dela deitutako eta eskabidea aurkezteko epe berririk gabeko plaza kopuruaren gehikuntza, hartzaileen espektatibak alda ez daitezela. Hori gertatzen bada, derrigorrean ireki beharko da eskabideak aurkezteko beste epe bat, edo geroagoko beste prozedura baterako deialdia (47. artikuluan bosgarren zenbakia gehitzea). Ez dira onartzen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren iradokizunak, ez baita beharrezkoa ehunekorik ezartzea, legean nekez erabaki ahal izango litzatekeelako aurrez legean. Hautaketa eta prestakuntzarako erregimenean indarrean den testu berari eutsi zaio.
- Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten aholkulari adituei dagokienez, proposatu du haien jardunak objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bete behar dituela. Onartu da testua, eta txertatu egin da.

- Lanpostuak betetzea

- Lanpostuen katalogoa edo zerrenda

ERNEK eskatu du lanpostuen katalogoa egin dadila eta, bertan, polizia-kidego guztietako lanpostuak eta lanpostuen eginkizunak jaso daitezela, bigarren jarduerako lanpostuak ezagutzeko, kudeatzeko eta zehazteko. Aurrekoaren ildotik, 68. artikuluari buruz dio ez dadila lanpostu bereizirik egon lanpostuen katalogoa egiten den arte.

Eskaerak, ordea, ez dakar proposamen zehatzik lege-proiektuari begira, baina esan behar da lanpostuen zerrendak erakunde bakoitzeko lanpostuak identifikatzen dituela, eta katalogoaren berdina dela. Monografietan zehazten dira lanpostu bakoitzaren eginkizunak. Polizia-erakundeetako lanpostuak arrazionalizatu eta kategorizatu nahi badira eta, ondoren, lanpostuen zerrenda berri, legeak ez du ahalmenik eman behar horretarako. Polizia-erakundeetan, lanpostu gehienak orokorrak dira eta kategoria jakin bateko lanpostu-ereduari dagozkion eginkizunak dituzte. Proporzioan, lanpostu berezituak urriak dira, baina, gaur egun, badira batzuk. Lanpostu berezituak ez dira sortzen egin beharreko lana askotarikoa denean.

Espezialitateak egoteari dagokionez, **ERNEk** 43.2. eta 65 bis 3 artikulua ezabatzea proposatu du, iraupen-konpromisoa eta eguneratze-hautaprobak gainditu beharra ezabatzeko. Ez da onartu alegazioa. Bestalde, **EUDELe**k proposatu du udaltzaingoetan ere espezialitateak egotea. Onargarria izan daiteke hori.

ERNEk iradoki du 67.1 artikulua aldatzea eta 67.2 artikulua ezabatzea, lanpostuak betetzeko deialdiak eta haien ebazpena Ertzaintzaren aldizkarian eta iragarki-tauletan argitara daitezzen, eta ez EHAA-n. Gaur egun, EHAA-n argitaratzen dira deialdiak (ez baitzen sortu Ertzaintzaren aldizkaririk), baita iragarki-tauletan ere; aldiz, Gureneten argitaratzen dira esleipen-ebazpenak. Lege-proiektuan jada ez dago Ertzaintzaren aldizkaria sortzeko aurreikuspena; hortaz, egun egiten den bezala egingo da. **ERNEren** proposamena ez da bateragarria Ertzaintzaren aldizkaria desagertzearekin, eta indarreko jardunbideak aukera ematen du publizitate-printzipioa eta konfidentzialtasun- eta segurtasun-eskakizunak bateragarri egiteko.

ELA-Ertzaintzak proposatu du lanpostuen zerrendan iraupen maximoko baldintza ezartzen bada soilik eskatzea iraupen-konpromisoa. Ez da proposamena ulertzen; LPZn jasota daude iraupen minimoko edo maximoko eskakizunak.

Bestalde, **ELA-Ertzaintzak** proposatu du 71.3 artikuluko bigarren paragrafoan jasota gera dadila, gaur egun bezala, aldi baterako osagarria emango zaiela lanpostua ezabatzearen ondorioz behin-behinean atxikita daudenei, parte har dezaketen lehenengo lehiaketa ebazten den arte. Agindu hori ez da aldatuko aurreproiektuan; 71.3 artikuluko lehenengo paragrafoa soilik aldatuko da.

- Merezimendu-lehiaketa

Lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeari dagokionez, **ERNEk** 65.2 artikulua proposatu du, merezimendu gisa ez daitezela hartu, soil-soilik, antzinasuna eta egindako lana, gainerako merezimenduak (prestakuntza-ikastaroak, titulazioak, etab.) ez daitezela hartu besterik gabe berdinketa hausteko, eta aldi batez, kolektibo osoa euskalduntzen ez den arte, euskara ez dadila baloratu berdinketa hausteko irizpide gisa.

Onar liteke ERNEren proposamena, alegia, lanpostu jakin batzuetarako merezimendu gisa har daitezela antzinasuna eta egindako lana, eta gainerako merezimenduak (prestakuntza-ikastaroak, titulazioak, etab.) berdinketa hausteko har daitezela. Alabaina, irizpide hori ezin zaie lanpostu guztiei aplikatu, desitxuratu egingo lukeelako enplegatu publikoen legeria orokorrean ezarritako merezimendu bidezko lehiaketaren kontzeptua bera. Aldiz, ezin da onartu euskara aldi batez soilik har dadila kontuan, berdinketa hausteko irizpide hutsean geratuko bailitzateke. Hori dela eta, proposatu da beti balora daitezela antzinasuna eta egindako lana, baita euskara ere baldintza ez denean; eta gainerako merezimenduak, berriz, deialdian berariaz hala erabakitzen bada soilik jaso daitezela, lanpostuekin duten harremana kontuan hartuta.

Bestalde, **UGTk** proposatu du arauen bidez gara dadila egindako lanaren kontzeptua. Horri dagokionez, esan behar da lanpostuak betetzeko erregelamenduak dagoeneko garatzen duela alderdi hori.

Aldaketa hauek proposatu ditu **CCOOK**:

a) Eginkizunez gabetzeko zehapenek inoiz ez izatea ondorioz antzinatasunaren merezimendua kontuan hartzean. Ez da onartu. Kontrakoa bidegabeagoa izango litzateke lana behar bezala egin dutenentzat.

b) Lehiaketa bidez lanpostua lortu dutenak hurrengoetara ere aurkeztu ahal izatea, 2 urte pasatu ez badira ere. Ezin da onartu. Baldintza hori funtzio publiko orokorrean aplikatzen da, eta aukera ematen du gutxieneko egitura batzuk finkatzeko eta erakundeak etengabe goitik behera aldatu behar ez izateko, unitate zehatzak osatu aurretik.

c) Lanpostua desagertzearen ondorioz lanposturik gabe gelditu direnek lanpostua herri berean lortzeko lehentasuna kentzea edo, gutxienez, ondorio hauetarako, kendutako lanpostuari dagokion udal mugartea izatea herria, eta, herri horretan unitaterik egon ezean, herri horretaz arduratzen den komisaria. Lanpostua kenduz gero, lehentasunak bermea ematen dio funtzionarioari, eta funtzio publiko orokorrean jasota dago. Ez da beharrezkoa legea aldatzea, adibidez lanpostuak betetzeko erregelamenduan proposatutakoaren moduko interpretazio-araua jaso dezan. Erregelamenduaren gauza da hori, ez legearena.

d) Unitateen arteko zerbitzu-eginkizunak biltzea, lanpostuko antzinatasuna eta kategorian sartzeko puntuazioa hartuta berdintasuna hausteko irizpide gisa. Ez da beharrezkoa alderdi hori legean jasotzea, dagoeneko ageri delako hura garatzen duten arauetan.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du beharrezkoa dela Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean agertzen den maila pertsonala aipatzea 65.2 artikuluan. Onartu egin da, arlo horretan Ertzaintzaren eta udaltzaingoen artean erregimen-desberdintasunak daudela kontuan hartuta.

- Izendapen askea

Lanpostuak izendapen aske bidez betetzeko prozedurari dagokionez, **ERNEK** proposatu du 63.3 artikulutik kanpo utz dadila prozedura, oinarrizko eskalako lanpostuak, ikuskaritzakoak eta komisariorde-lanpostuak betetzeko, eta ezaba dadila izendapen aske bidez bete daitezkeen lanpostuen gehienezko ehunekoari buruzko paragrafoa. **ELA-Ertzaintzak** proposatu du "goi-zuzendaritzako" lanpostuetara muga daitezela, eta **CCOOK**, berriz, goi-mailako eskalako lanpostuetara.

Gaur egun, lanpostuak betetzeko erregelamenduan ezarritako mugatik behera dago izendapen aske bidezko lanpostuen ehunekoa. Egokia dirudi horri eustea, eta izendapen askeko lanpostuak behar-beharrezkoetara mugatzea. Bistakoa denez, erakundeko maila goreneko lanpostuetan aplikatzen da, hein handiagoan, izendapen askearen irizpidea, erantzukizun eta konfiantza handiagoa eskatzen dutelako. Hala ere, kasu bakan batzuetan, beheragoko kategorietan ere aplikatu daitezke. Hortaz, baliteke sindikatuaren proposamenak lanpostuak betetzeko mekanismoak etetea. Horren ordez, proposatu da arauen bidez gehienezko portzentajeak ezar daitezkeela, ez bakarrik kidego osoan, baizik eta baita eskala edo kategorietako bakoitzean ere.

- Trukea

Udaltzaingoko trukeari dagokionez (hasierako zirriborroaren 21. xedapen gehigarrian jasoa), **EUDELeK** proposatu du LPZn ezarritako baldintzak bete daitezela. Arrazoizkoa da hori. **UGT** sindikatuak dio ez dela halako araudirik behar, badagoelako aurreikuspen

hori. UGTren proposamenak zentzua du; hori dela eta, onartu egin da, eta kendu egin da araudia bigarren zirriborrotik.

Bigarren zirriborroa ikusita, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du trukearen arauak berriro sartzea, eta ez aplikatzea udaltzainen artean soilik, baizik eta baita EAEko poliziaren edozein kidegotako funtzionarioen artean ere.

Ez da jasoko araudia, eta onartu egin dira UGTk adierazitako irizpideak. Hala ere, kontuan izan behar da administrazioarekiko auzien zenbait epaitegik zalantzan jarri dutela trukearen figura, agian ez datorrelako bat lanpostuak betetzeko ezinbestekoak diren berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin.

- Fakultatiboen eta teknikarien eskala

ERNEK proposatu du 105.3 artikuluan gehitu dadila klausula bat sei hilabetetan gara dadin fakultatiboen eta teknikarien eskala (unitateak eta plazak ezartzea, eta lanpostuen zerrenda aldatzea). Hori dela eta, gogoan izan behar da eskala hori badagoela, eta egungo lanpostuen zerrendak ez duela eskala horretako plazarik.

- Karrera eta barne-sustapena

- Barne-sustapena

CCOOK proposatu du 3 hilabeteko epean egin daitezela barne-sustapenerako deialdiak edo espezialitatedun plazak betetzeko deialdiak, plaza hutsen kopurua kategoria edo espezialitateko plazen % 10 baino handiagoa denean. Ezin da onartu proposamena. Denbora behar da barne-sustapenerako deialdiak aurreikusteko, planifikatzeko eta gauzatzeko; hori dela eta, ezein administrazioek ezin ditu egin beharreko lanak egin proposatutako epeen barruan.

ERNEK proposatu du ez dadila inoiz baldintzetatik kanpo utzi titulazio akademikoa (horrek gaitasun-ikastaroak kentzea dakar); zehatzago, **CCOOK** proposatu du ezaba daitezela barne-sustapenerako gaitasun-ikastaroak (art .59.2). Aurreproiektu honen helburua ez da gaitasun-ikastaroetako araudia aldatzea. Ikastaroak nolabait lotuta daude funtzionario-karrera konfiguratzeko moduarekin; alegia, oro har, kategoria baxuenetik (hots, C1 azpitaldea) egiten dela nahi den kategorian sartzeko eskaera. Eredu horrek barne-sustapenaren araudia baldintzatzen du, titulazioak bezainbeste erabakitzen baitu lanean hartutako esperientziak ondorengo sustapena. Aurreproiektuak murriztu egin nahi du igo ahal izateko kategoria bakoitzean zerbitzuak ematen egin behar den denbora, baina, denbora hori guztiz ezabatuz gero, administrazio-karrerak oso bizkor hasiko dira urte gutxitan, eta ez dute izango agintemaila bakoitzean hartutako esperientziarik. Hori gauzatzuz gero, zalantzan jarriko litzateke aginte-eskaletatik txanda librean sartzeko mekanismoen itxiera.

ELA-Ertzaintzak proposatu du barne-sustapenean parte hartzeko aukera ematea 2 hilabetetik gorako falta egin eta zigorra jaso dutenek (alegia, eginkizunez gabetuta egon direnek). Proposamen hori lotuta dago beste sindikatu batzuek egindakoekin. Proposamen horietan, aukera berberak eman nahi zaizkie, kasu jakin batzuetan, eginkizunez gabetuta egon direnei merezimendu-lehiaketetan parte hartzean. Batera aztertuko dira proposamen guztiak.

ERNEK proposatu du ez dadila eskatu aurreko kategorian gutxienez urte kopuru jakin bat eman izana (hau da, ez dadila soilik merezimendu gisa baloratu), eta ez daitezela kendu ezein eratako laneko bajak benetan egindako zerbitzuen zenbaketatik. Aurreko kategorian egin beharreko denbora betetzearen laneko bajak benetan egindako zerbitzu gisa zenbatzeari dagokionez, arrazoizkoa dirudi proposamenak, eta kontuan izan da bigarren zirriborroan.

ERNEK adierazi du ados dagoela hiru deialdien gehienezko kopurua ezabatzearekin. **CCOOK** ere aipatu du hori, eta dagoeneko jaso da zirriborroan.

Azkenik, testua berriro irakurrita ondorioztatu da komenigarria dela hobeto definitzea zer administrazio-egoeretatik igo daitekeen, eta “antzeko beste egoera batzuk” kontzeptuaren zehazgabetasuna saihestea, nahiz eta testuingurutik ulertu zer esan nahi duen.

- Ibilbide profesionala

Lanbide-karrera horizontalari dagokionez, **ESANek** zuzenean eskatu du kapitulua kentzeko. **ERNEK** proposatu du idazketa ordezkia dadila eta Ertzaintzaren 2011ko erabakia jar dadila. **UGT** sindikatuaren ustez, eskubidea eratu baino, emakida anbigua arautzen du. Bestalde, eskatu du udaltzaingoa sar dadila ordainsari-erregimenaren araudian, lanbide-karrerako osagarriari dagokionez. **ELA-Ertzaintzak** proposatu du lanbide-karreraren eraginkortasuna ez dadila egon aurrekontuetan erabilgarri dauden baliabideen arabera eta ezaba dadila maila finkatua galtzeko aukeraren aipamena; akats bat ere zuzendu du numerazioan. **ELA-Udaltzaingoa** proposatu du 2 urteko epea ezar dadila lanbide-karrerako sistemak ezartzeko. **EUDELe** adierazi du beharrezkoa dELA-Udaltzaingoaren karrera horizontalean eta funtzionarioenean aldi berean sartzea oro har, denborazko edo bestelako disfuntziorik gabe.

ESANen proposamenari dagokionez, esan behar da, lanbide-karrera legez araututa ez badago, ezin izango litzatekeela garatu.

ERNEren proposamenari dagokionez, kontuan izan behar da EAEko polizia osoari buruz aipatzen direla karrera horizontalaren arauak aurreproiektuan. Hortaz, ez da erraza Ertzaintzan egon daitezkeen erreferentziak besterik gabe kolektibo horretatik kanpo aplikatzea, udalerrietan eta autonomian egon litezkeen beharrei jaramon egin gabe. Horrek eragotzi egiten du ERNEren proposamena; gainera, legearen esparruan, oinarrizko printzipio eta arau batzuk prestatzen dira, unean uneko beharren arabera garapena egin ahal izateko. Hortaz, araudian, legearen erreserba-printzipioak lege formalei eskatzen dizkien arautzeko oinarrizko eta beharrezko elementuak jasotzen dira; elementu horiek aukera emango dute eremu bakoitzean garapen profesionaleko edo karrera horizontaleko sistemak ezartzeko etorkizunean.

Horrek **UGTri** erantzuten dio.

ELA-Ertzaintzak proposatu du lanbide-karreraren eraginkortasuna ez dadila egon aurrekontuetan erabilgarri dauden baliabideen arabera eta ezaba dadila maila finkatua galtzeko aukeraren aipamena.

Ezin da onartu **ELA-Udaltzaingoaren** proposamena, kontuan hartu behar baita EUDELe egokiro dioena.

Hori guztia bat etorrarazi behar da **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren** txosteneko ondorioekin eta berriki Eusko Legebiltzarrerara bidali den euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektuaren edukiarekin.

Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektuak aukera ematen du Ertzaintzan araudi espezifikoak egon dadin, baina lege horretan eta haren garapen-araudian ezarritakoaren osagarri gisa aplikatu dadin. Proiektuaren abiapuntua da lanbide-karrera horizontaleko sistema bakarra egon dadila euskal administrazio publiko edo eremu sektorial bakoitzean, baina, horretaz gain, sistema guztiek bat egin dezatela, Euskadiko Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak proposatzen dituen lanbide-karreraren erregelamendu-ereduei esker, horrela errazagoa izango baita enplegatu publikoak administrazio batetik bestera mugitzea eta garapen profesionaleko mailak elkarri aitortzea.

Kontuan izan behar da Ertzaintzarako soilik aipatzen dela araudi espezifikoak sortzeko aukera, ez udaltzaingoetarako.

Funtzio publiko orokorraren konfigurazioa koherentea izan dadin EAEko poliziaren sektorekoarekin, eta irizpide guztiak bete daitezten, bereziki udaltzaingoan, EUDELe esan bezala (alegia, administrazio guztietan lanbide-karrerako sistema bakarra egotea; EAEko poliziaren sektorean garapen profesionaleko mailak harmonizatzea eta elkarri aitortzea, eta administrazio arteko mugikortasuna erraztea, berezia baita udaltzaingokidegoen kasuan), beharrezkoa da bi araudiak koherenteak izatea.

Esandakoari jaramon eginez, onartu egin dira Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako proposamenak, eta testuan txertatu dira.

- Eskubideak eta betebeharrak

- Ordainsari-erregimena

ERNEK proposatu du ordainsariak murrizteko debekua sar dadila 74.1 artikuluan. Proposamen horrek ezin du izan polizientzat espezifikoak; horrenbestez, hala badagokio, enplegatu publikoen araudi orokorrean jaso behar litzateke.

Bestalde, UGTk eskatu du udaltzaingoa sar dadila ordainsari-erregimenaren araudian, lanbide-karrerako osagarriari dagokionez. Hala ere, aginduak, oro har, Ertzaintza soilik du hizpide, udaltzaingoen ordainsari-erregimenak oro har tokiko funtzionarioentzat ezarritakoari jarraitzen baitio. Enplegatu publikoaren lege-proiektuak dagoeneko ezartzen ditu halako osagarriak funtzionario horientzat.

ELA-Ertzaintzak proposatu du, goragoko kategorietako zerbitzu-eginkizunetan, funtzionarioak eskubidea izan dezala ordainsari osagarria jasotzeko nagusia de facto ordeztu duenetik, eta, zerbitzu-eginkizun horretan 3 urte ematen baditu, finka dadila goragoko kategorian jasotzen den destino-osagarria (74.a art.). Alabaina, ezintasun legala dago uzi hori onartzeko, gaintu egiten baititu funtzio publikoaren araurik oinarritzkoenak. Batetik, indarrean jartzen dituelako de facto juridikoak ez diren egoerak, de facto zerbitzu-eginkizunak eta zerbitzu-eginkizun arautuak berezita. Bestetik, barne-sustapenerako mekanismo ezkutua proposatzen duelako, zerikusirik ez duena merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin eta publizitate-printzipioarekin; mekanismo horren bidez, finkatu egingo lirateke titulazio-talde bateko kategoriatik bateko

ordainsari osagarriak, kontuan izan gabe kategoria horrek ez duela beharrezko titulazioa eta ez dela kategoriara igo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituta barne-sustapenerako prozedura arautuan.

- Bateriaezintasunen erregimena

Bateriaezintasunen erregimenari dagokionez, **ERNEk** proposatu du sei hilabeteko epea ezar dadila erregimena egokitzeko eta leuntzeko. **UGTk** proposatu du argi utzi behar dela inguruabar jakin batzuetan bateragarritasunerako eskubidea dagoela. **CCOOK** uste du ez dela beharrezkoa aldaketarik egitea, murriztailea delako, eta Euskadin krisialdiak edo larrialdiak daudenean soilik izan behar lukeela bateraezina erreserbista izatea. Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** uste du EAEko poliziako kide guztiei aplikatu behar zaiela bateraezintasun hori.

Horri buruz esan behar da, erreforma horren bidez, bateraezintasunen erregimena leundu nahi dela, eta, azken jurisprudentiaren babesean, enplegatu publikoen erregimen orokorrera hurbildu.

ERNEren proposamena dela eta, ez da beharrezkoa eperik ezartzea erregimena doitzeko, berehala aplikatuko bailitzateke legea indarrean sartzean. **UGTren** iritzia dagokionez, ez da ezer argitu beharrik, araudi erkidea aplikatzea baitakar.

Erreserbista izatearen bateraezintasunari dagokionez, ez dago **CCOOK** adierazitako asmo edo "beldurrik"; gaiaren oinarrian ez dago halakorik. Aldiz, Estatuko arauetan erreserbista nola araututa dagoen da arazoa. Beraz, asmoa da Estatuko araudian jasota dagoen erreserbista izatearekiko bateraezintasunen erregimenak goardia zibilari ematen dion tratamendu bera ematea. **CCOOK** berak onartu du, inguruabar jakin batzuetan, bateraezina dela jarduera hori. Dirudienez, aurrekoa ezin da EAEko polizia osora estrapolatu, udaltzaingoek eginkizun desberdinak dituztelako ordena publikoaren arloan.

- Bizitokia bertan izateko betebeharra

ERNE eta **CCOO** sindikatuek iradoki dute ezaba dadila 76. artikuluan ezarritako betebeharra, hots, bizitokia bertan izatekoa. Horri buruz esan behar da ahalik eta malgutasun handienaz idatzi dela legea; halako malgutasunez, ezen 1992ko legearen bizialdi osoan betebeharrak aplikatzeak ez baitu eragotzi langileak destinoa dagoen herritik kanpo errolatuta egotea, baita inguru geografiko zabal samarrean ere, errealitateari jaramon eginez.

- Jardunaldia eta oporraldia:

ELA-Udaltzaingoak jardunaldiari eta oporraldiari buruz egin dituen proposamenek ez diote ekarpen arautzailerik egin gaur egun indarrean dagoen araudiari negoziatu beharreko arloak direla eta.

- Laneko arriskuen prebentzioa

ERNEK proposatu du akordio arautzailearen V. tituluan idatzitakoa ere (laneko arriskuen prebentzioari eta laneko osasunari buruzkoa) jaso dadila legearen testuan. Aipatutako proposamenak ikusita, badirudi onargarria izan daiteke ELA-Ertzaintzaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioan jasotako oinarrizko printzipioak legearen testuan sartzekoa, baina ez akordioaren testua bera, neurrigabea eta gehiegizkoa izango bailitzateke, egokiagoa delako erregelamendu multzo batean jasotzeko, lege formaletan baino.

Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du 3. paragrafoa gehitzea 79. artikuluan eta, bertan, zehatz-mehatz jasotzea gutxienez zer arrisku hartu behar diren kontuan laneko arriskuei aurrea hartzeko planetan. Proposatutako testua zehatzegia da lege honetarako; izan ere, legeak berak jasotzen du laneko arriskuen legeriako araudia, eta araudian aipatzen da laneko arriskuei aurrea hartzeko planetako edukia.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenak ez du egoki interpretatu 79. artikulua. Hari buruz dio, laneko arriskuei aurrea hartzeari dagokionez, osasun-zerbitzua izan behar dela, eta, horretarako, “ kontratuak edo lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ahal izango direla profesional medikoekin edo osasun-erakunde publiko nahiz pribatuekin”. Txostenaren arabera, zerbitzu medikoak eskumena izango du kontratu edo hitzarmen horiek sinatzeko. Testutik, ordea, ez da halakorik ondorioztatzen; aldiz, zerbitzua barnekoa izan daitekeela edo hirugarrenekin hitzartu edo osa daitekeela aurreikusten du.

- Gizarte-babeserako mekanismoak

ERNEK hau proposatu du:

- Doluaren aipamena ezabatzea (79 bis 2 artikulua). Horrek esan nahi du aseguru-estaldura ez litzatekeela aplikatuko arduragabekeria-egoeretan, baina bai doluzkoetan, eta horrek ez du zentzurik.
- Zerbitzu-egintzan hilez gero ematen den konpentsazioa hiru urterokoetakoa izatea (eta ez biko), hildakoek 25 urtetik beherako seme-alabak badituzte.
- Zerbitzu-egintzaren ondorioz ezinduta geratuz gero, pentsio osoa jasotzea, eta ez pentsioaren % 80, orain arte bezala.

ELA sindikatuak proposatu du, hirugarrenen legez kontrako ekintzek eragindako ezintasunagatik funtzionarioak nahitaezko erretiroa hartu behar badu, aldi baterako prestazio ekonomikoaz gain, kalte-ordaina ere jaso dezala, lanpostuan jasotzen zituen ordainsari osoen bi urterokori dagokiona, heriotzagatiko kalte-ordainekin parekatzeko.

Ez dira onartu proposamenak. Ertzaintzako funtzionarioek dagoeneko badute estaldura egokia, ez bakarrik Gizarte Segurantzaren babesaren bidez, baizik eta baita sinatutako aseguru-polizen bidez ere. Araudi hau ere gehitu behar zaie, zeinak objektibatu egiten baitu zerbitzu-egintzan hilez gero edo nahitaezko erretiroa hartu behar izanez gero aplikatzen zen lehengo araudia.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du, EPLren hamargarren xedapen iragankorrean (Ertzaintza Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrari lotuta dagoela dioenak), EAEko polizia aipa dadila, eta ez Ertzaintza, udaltzaingoak ere sar daitezten. Ez da zehaztapenik egin behar. Toki-administrazioko funtzionario orori aplikatzen zaion erregimena aplikatzen zaie udaltzaingoei, eta hamarkadak daramatzate Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean.

- Administrazio-egoerak

- Behin-behineko eginkizun-gabetzea

ELAk proposatu du itzul dadila behin-behinean eginkizunez gabetuta egondako aldian jasotakoa; eta **CCOOK**, berriz, ezaba daitezela 84. artikuluko 5. eta 6. zenbakiak (eginkizun-gabetze irmoa, behin-behinekoa izan ondoren). Ez da onartu. Funtzionarioentzat bermea da behin-behinean eginkizunik gabe emandako denbora eginkizun-gabetze irmoaren denboralditik deskontatzea, eta araututako gainerakoa esandakoaren ondorioa besterik ez da.

- Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa:

Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboari dagokionez, **EUDELeK** proposatu du legean jasota gera dadila udaltzaingoetan egokitzapenera pasatzeko adina ez dela izango 56 urtetik beherakoa (Ertzaintzan bezala). Hori eskatzeko arrazoia da komenigarria dirudiela legeak erreferentziako edo gutxienerako adina ezartzea; hala ere, positibotzat jo da tokiko autonomia errespetatzea. Arrazoizkoa dirudi horrek, baina agian hobe da gutxienerako 60 urtetan egotea, aurreko legegintzaldiaren proiektuan bezala. Bestela, gehiegi mugatzen da udalen ahalmena zerbitzua dauzkaten aukeren arabera egokitzeko.

Bestalde, **EUDELeK** proposatu du udaltzaingoan ere aukera egon dadila egokitutako zerbitzu aktibora atxikitzen diren funtzionarioek erretiro aurreratua eskatzeko konpromisoak barneratzeko. Jaso daiteke.

UGTk proposatu du Ertzaintzarako aurreikusitako egokitzapenaren araudi zehatza udaltzaingoetara ere hedatu dadila nahitaez. Hala ere, kontuan izan behar da mekanismoaren birtualtasuna eta baldintzak langile kopuruaren eta egin beharreko lanen arabera egon daitezkeela. Hortaz, hobe da dagokion administrazio-esparruan erabakitzea. Horren ildotik, arrazoizkoa dirudi **EUDELen** proposamenak, alegia, 85.4 artikuluan jaso dadila aintzatespen horren ondorio ekonomiko eta administratiboak tokiko araudian ezarriko direla.

ERNEK eskatu du ezaba dadila polizia-zerbitzuan jarraitzeko bermearen baldintza 85.4 artikuluan ezarritako adina dela-eta egin beharreko egokitzapenaren arauditik. Kontuan izan behar da eskakizun hori udaltzaingoentzat soilik dela, eta ez Ertzaintzarako. Udaltzaingo txikietan, langile batzuk adina dela-eta egokitutako zerbitzura igarotzen badira eta gaueko txanda egitetik salbuesten badira, polizia-zerbitzu iraunkorretik kenduko dira.

EUDELeK iradoki du egokitutako zerbitzu aktibora pasatzeko aukeratik kanpo uztea udaltzaingoetako goi-mailako eskalako eta eskala fakultatiboko langileak. Proposamen horrek justifikatu egin nahi du antzekotasunak daudELA-Ertzaintzako fakultatiboan eta teknikarien eskalarekin (eskala hori ez da sartzen). Hala ere, antzekotasun horiek ez dute logikarik, eta, goi-mailako tituludunak egokitutako zerbitzutik kanpo utziz gero, EAeko polizia-kidego guztietako goi-mailako eskala eta betearazpen-eskala guztietakoak ere kendu behar lirateke.

Aurreproiektua berriro irakurri ondoren ofizioz egiaztatu da ez direla adina dela-eta egokitutako zerbitzuan sartu bigarren jardueran daudenak (zuzena da hori), zerbitzu aktiboaren egokitzapena baita. Horri kalterik egin gabe, uste da adina dela-eta egokitzeko eskubide berberak izan behar dituztela bigarren jarduerako funtzionarioek eta zerbitzu aktiboan daudenek.

ERNEK proposatu du, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboko funtzionarioak aldi batez destinatorik ez duen bitartean, ordain diezazkiotela egoera horretara igarotzerakoan jasotzen zituen ordainsariak, eta ez gaur egun egiten dena eta proiektuak ezartzen duena; alegia, ez ordaindu berariazko osagarriaren osagarri berezia.

Bestalde, zerbitzu aktiboa adina dela-eta egokitzeari dagokionez, **ERNEK** eskatu du 194/2012 Dekretuan ezarritako idazketa jaso dadila legearen testuan (194/2012 Dekretua, langileak adinagatik babesteko neurriak hartzen dituen Ertzaintzaren hitzarmen arautzailea aldatzekoa). Gure ustez, proposatutako araudiak ez ditu aldatzen dekretu horretako aurreikuspenak, baizik eta gaitu egiten ditu. Beraz, ez du zentzurik arautegietan hain oinarrituta dagoen zerbait legean txertatzea.

ELA-Udaltzaingoak bigarren jarduerako proposamena egin du, adina dela-eta, bi fasetan: a) 55-60 urte bitartean zerbitzuan, ohiko langile taldeko lanpostuei gehitutakoetan, gaueko txandarik gabe eta egoera berrira pasatu aurretik kobratzen zuena kobratuta; eta b) 60 urtetik erretiroa hartu bitartean, lanik egin gabe (salbuespenezko deialdiak izan ezik) eta ordainsari osoa kobratuta, udalaren kontura. Eusko Jaurlaritzak udaltzaingoko ordezkariaren soldata finantzatzeko luke. Ezin da onartu proposamena.

Horrekin nolabait kontraesanean, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du ez dezala udal bakoitzak ezarri egokitutako zerbitzu aktibora borondatez pasatzeko adina udaltzainen kidegoan, baizik eta, legez, 56 urtetan finka dadila, edo negoziazio kolektibo bidez erabakitzen den adin txikiagoan. Ez da onartu.

- Bigarren jarduera:

ELA-Ertzaintzak aipatu du bigarren jarduerako beste hitzarmen bat negoziatu behar litzateke ELA-Ertzaintzan, baina ez du proposamen zehatzik egin, aztertu ahal izateko.

ELA-Udaltzaingoak hau nahi du: a) Alderdiak eskatuta soilik pasatu ahal izatea bigarren jarduerara. Ezin da onartu, ez baita bateragarria enplegatzaileak laneko arriskuen prebentziorako (adibidez) dauzkan betebeharrekin. b) Ebaluazio-epaimahaian, alderdi interesdunak eskatuta jardun dadila hiru kideetako bat. Ez da posible, eragotzi egingo bailuke epaimahaiak osaera egonkorra izatea antzeko kasuetarako irizpide komuna finkatzeko. Horretaz gain, akastu egingo luke ebaluazio-organoaren inpartzialtasuna (interesdunak edonoiz aurkeztu ahal izango ditu alderdiaren txosten medikoak, edo ebaluazio-organoaren irizpidea ezeztatu). c) 86.6.2 artikuluan (bigarren jarduerara pasatuz gero erretiroa erretiro aurreratua hartzeko adinean hartzeko konpromisoa), udaltzaingoak ere sar daitezela Gizarte Segurantzaren legeria aldatuz gero, eta Ertzaintzaren egungo araudiko baldintza berberak aplika daitezela (hori eginez gero, arau baldintzatua sartu behar litzateke, baina posible da). d) 86.5.2 artikuluan, udalak ere aipa daitezela (eta hala behar luke). e) Bigarren jarduerako langileen ordainsariak aurretik jasotzen zituenak izatea gutxienez (bete den lanpostuarenak jasotzea da logikoena). f) Udalei 2 urteko epea

ematea bakoitzak bigarren jarduerari buruzko araudia presta dezan nahitaez (lege hau garatzeko eskumen arautzaileak ezin du udalena izan).

EUDELeK proposatu du ezaba dadila 20. xedapen gehigarria, bigarren jardueran udaltzainek poliziarenak ez diren lanpostuak betetzeko aukera izateari buruzkoa. Haren iritziz, ez da beharrezkoa legean sartzea, udalen antolaketa-ahalmenak onartzen baitu atxikipen hori. Irizpide horri jaramon eginez, bigarren zirriborroan hogeigarren xedapen gehigarria ezabatzea erabaki zen. Hala ere, hutsune legal bat sortu da, ELA-Udaltzaingoak adierazi bezala, 86.5.2 artikuluan ez dagoelako udaltzaingoei aplikatu dakiekeen araurik. Hortaz, zuzendu egin behar da.

CCOOK proposatu du aldi batez destinorik gabe eta altan dagoen bigarren jarduerako edo egokitutako zerbitzu aktiboko funtzionarioek betetako azken lanpostuko ordainsariak jasotzen jarrai dezatela, berriazko osagarri berezia izan ezik, zerbitzu aktiborako aurreikusitakoetatik txikiena (berriazko osagarri berezia, 11). Egia esan, egoera hori ia pentsaezina da, bigarren jardueran edo egokitutako zerbitzu aktiboan daudenean, lanpostu berean jarraitzen baitute funtzionarioek, jarduera egokituta edo nolabait aldatuta. Dirudenez, ez da inola ere arrazoizkoa ordainsari berberak izatea lanean edo lanik egin gabe.

ERNEK iradoki du bigarren jarduerako egoerara pasatzeko aukera ematea fakultatiboan eta teknikarien eskalako langileei. Gaur egun, ez da halako egoerarik jasotzen eskala horretan, bertako eginkizunek ez dutelako behar, EAEko poliziako gainerako eskaletan bezala, aurreikuspen espezifikorik kalte funtzionala dagoenean.

UGTk uste du araudia asmo handikoa dela (laudorio moduan, agian), baina ez dela eraginkorra udaltzaingoetan akordio instituzionalik egiten ez bada. Ez du esaten, ordea, zer eratako akordioak izan behar luketen. Kontua da udaltzaingoetarako proposatu den bigarren jarduerako administrazio-egoeraren profila, funtsean, indarrean dagoenaren antzekoa dela.

EUDELeK proposatu du bigarren jarduerako egoerara pasatzeko ebaluazio-epaimahairen osieran (86.3 art.) fakultatiboetako bat interesdunak proposatutakoa izan dadila edo, bestela, ordezkari sindikalek proposatutakoa. Ez dirudi uzia onar daitekeenik, epaimahaiak adina kasu egongo lirartekeelako, eta epaimahaikideak ad hoc izendatuko lirartekeelako. Horrek, gainera, doktrina sortzea eragotziko luke, baita kasuak berdintasunez tratatzea ere. Araudia bat dator gai honen inguruan indarrean dagoenarekin.

Bigarren jarduerara igarotzeko epaimahai ebaluatzaileen osarari dagokionez, batzuetan udalerriek proposatu dute Ertzaintzako epaimahai ebaluatzailea arduratzea udaltzaingoetako kasuak aztertzeaz, udalerriak hala agintzen dionean. Arrazoizkoa dirudi aukera hori aztertzeak.

Bigarren jarduerako egoerara pasatuz gero jaso beharreko ordainsariei dagokienez, Saileko langile-zerbitzuek iradoki dute ezaba dadila ordainsariak arau bidez ezarriko direlako erreferentzia. Izan ere, araua bada administrazio-egoera horretan lanpostua betetzen dela, erreferentziazko ordainsariak lanpostuari dagozkionak izango dira. Egokia dirudi arrazoibideak.

Bigarren jarduerako ordainsariekin jarraituz, **ERNEK** proposatu du 86.7 artikuluan ezar dadila ordainsariak ez direla izango administrazio-egoera horretara pasatu aurretik zegozkienak baino txikiagoak. Horri erantzunez esan behar da korrespondentzia egon

behar duela ordainsari osagarrien eta egindako lanaren artean. Ezabatu egin da 86.7 artikuluko paragrafoa, bigarren jarduerako langileen ordainsaria nolabait egokitzeari buruzkoa, lanpostu arruntetako baina ordainsari txikiagoa jasoko dela pentsarazten baitzuen.

UGTk bermearen osagarriari buruz (87. artikulua) proposatu du, egokitutako zerbitzuan edo bigarren jardueran dagoen funtzionarioa salbuespen gisa eta aldi batez altan geratzen bada beste lanpostu bat eskaintzen edo egokitzen zaion arte, aldi baterako osagarri pertsonal gisa jasotzen zuen guztia ordain diezaiotela, ez bakarrik Ertzaintzaren kasuan, baizik eta baita udaltzaingoan kasuan ere. Aurreproiektuan, oinarrizkoak eta osagarriak bermatzen dira, berariazko osagarri berezia izan ezik, lanpostu zehatz bati lotuta dagoelako. Kontuan izan behar da salbuespena baina zerbait gehiago dela, hots, hipotetikoa, eta korrespondentzia egon behar duela osagarri berezi horiek jasotzearen eta lanpostu zehatz batean benetan aritzearen artean. Bestalde, arrazoizkoa izan daiteke agindua udaltzaingoei aplikagarri izatea. Beraz, aldatu egin da zirriborroa.

Bereiz aztertu beharrekoak dira **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak** egokitutako zerbitzu aktiboari eta bigarren jarduerako egoerari buruz egin dituen oharrak.

Lehenik, ohartarazi behar da okerra dela lege-aurreproiektuen legezkotasun-parametro gisa erabiltzea ea indarreko beste lege arrunt batzuetara egokitzen den. Izan ere, lege-proiektuen baliozkotasuna neurtzeko parametroa goragoko mailako arauak soilik ezar dezakete (konstituzioa edo autonomia-estatutua), edo aplikagarri diren Estatuko oinarrizko arauak.

Txostenaren arabera, baliteke araudiak arazoak sortzea antolaketan. Funtzionario asko eta asko destinoaren zain geratuko lirake; horrek gailur handia eragingo lioke administrazioari, baina, trukean, ez litzuke zerbitzuak jasoko. Izan ere, haren ustez, destinorik gabe eta Administrazioaren esku egon daitezke bigarren jarduerara edo egokitutako zerbitzu aktibora igaro direnak destinoa esleitzen zaien arte edo lanpostua egokitzen zaien arte; eta hori, aurretik jasotzen zituzten ordainsari guztiak jasota, antzeko beste egoera batzuetan gertatzen ez den bezala (besteak beste, destinoaren zain egotea edo nahitaezko eszedentzia-aldian egotea).

Ondoren, arrazoibide horiek aztertuko ditugu, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako proposamenaren bideragarritasunari buruzko justifikazioa osa dezaten.

Gaur egun, Ertzaintzan badaude bigarren jarduerako egoera eta adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboarena, eta ez dago funtzionariorik inguruabar horientzatik destinoaren zain.

2014ko datuen arabera, gutxi gorabehera 100 ertzain zeuden bigarren jarduerako egoeran; guztiak ere lanpostuan. Kontuan izan behar da 2012az geroztik indarrean dagoen gutxiegitasunagatik bigarren jardueraren araudiak bermatu egiten duela lanpostu egokitu berean edo beste batean zerbitzua ematen jarraitzea.

Ertzaintzan, 56 urtetik aurrera eska dezakete adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa, eta 60 urtetik aurrera erretiro aurreratua eska daiteke. Horrenbestez, normalean, 56 eta 59 edo 60 urte bitartean aitortuko litzateke egokitutako zerbitzu aktiboa.

Arau gisa, egokitutako zerbitzu aktiboa aitortzeak ez dakar lanpostutik mugiaraztea, baizik eta jarduera egokitzea. Egokitzapen horretan, funtsean, aukera ematen da gauez lan ez egiteko eta, 59 urtetik aurrera, polizia-instalazioetik kanpo patruilan ez ibiltzeko. Horrenbestez, ez da egia Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txosteneko baieztapena; alegia, araudiak aukera ematen duela destinorik eta lanik gabe dagoen funtzionario talde batek ia ordainsari guztiak kobra ditzan.

Salbuespen gisa baino ez, eta unitate operatiboei eta ikerketa kriminalari dagokienez, aukera dago, lanpostuaren eginkizunak egokitu ezin badira, unitate bereko beste lanpostu batera edo lanpostu huts batera atxikitzeko, aurrez ezarritako lehentasunezko irizpideen arabera. Aldi batez, lanpostua egokitu edo beste lanpostu batera atxiki arte, soilik egon ahal izango da destinorik gabe Administrazioaren esku. Horrenbestez, ez zaio erakundearen zati handienari (hots, herritarren segurtasunari) aplikatuko aldi batez destinorik gabe egoteko aukera; ezohiko eta iraupen laburreko kasua da, bermea dakar, eta ez du sortzen destinoaren zain egoteko eskubide edo aukerarik.

2014ko datuen arabera, Ertzaintzako langileen % 10ek zituzten 56 urte edo gehiago, hau da, 756 pertsonak, eta haietatik % 80 oinarritzko eskalakoak ziren. Garai hartan, ertzainen batez besteko adina 47 urtekoa zen. Egokitutako zerbitzu aktiboa eskatu ahal izango luketenetatik, % 85ek eskatu zuten; hau da, 756 pertsonatik 639k.

2014an egokitutako zerbitzu aktiboa aitortuta zuten 639 pertsonatik, 355ek gauez lan egiten zuten, eta 284k (hau da, % 45ek) gaueko txandatik salbuestea eskatu zuten.

Datu horietan oinarrituta, datozen urteetarako estrapolazioa egin daiteke, alderdi hauei erreparatuta: langileen adin-piramidea, egokitutako zerbitzu aktiboa aitortzeko eskaeren ehunekoak (% 85) eta gaueko txandatik salbuesteko eskaeren ehunekoak (egokitutako zerbitzu aktiboa aitortuta dutenen % 45).

	Egokitutako zerbitzu aktiboa eskatu ahal izango lukeen pertsona kopurua (1)	Egokitutako zerbitzu aktiboa aitortuta izango lukeen pertsona kopuruaren aurreikuspena (2)	Polizia-instalazioetatik kanpo patruilan ibiltzetik salbuetsita dagoen pertsona kopuruaren aurreikuspena
2015	1.082	414	226
2016	1.412	540	339
2017	1.711	654	471
2018	1.965	752	654
2019	2.137	817	804
2020	2.215	847	855

- (1) Urte jakin batean 56 eta 60 urte bitarteko adin-tartean dauden langileak. Gure kalkuluen arabera, eskubidea dutenen % 85ek eskatuko dute egokitutako zerbitzu aktiboa.
- (2) Urte jakin batean egokitutako zerbitzu aktiboa aitortuta izango lukeen pertsona kopuruaren aurreikuspena, egokitutako zerbitzu aktibko eskaeren egungo ehunekoen estrapolazioa (eskubidea izango luketenen % 45)
- (3) 59 urte beteta izateagatik polizia-instalazioetatik kanpo patruilan ibiltzetik salbuetsita dagoen pertsona kopuruaren aurreikuspena.

Esandakoa ikusita, ezin dugu ados egon Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren prebentzio eta ondorioekin. Alderantziz, proiektuak indargabetu egiten du indarreko legeriaren arabera bigarren jarduerako funtzionarioentzat arau orokorra zena. 2012ko erregelamendu-aldaketen ildotik, ziurtatu egin nahi da, funtzionarioak baldintza psikofisiko nahikoak ez dituenen edo adinagatik haren gaitasunak murrizten direnean baina erretiroa hartzeko besteko egoerak ez direnean, zerbitzuak ematen jarraituko duela polizia-erakundearen, baldintza pertsonalen arabera eta lanpostu egokian.

Egia da, datozen urteetan, Ertzaintzan nabarmen handituko dela erretiroen eta beste baja begetatibo batzuen kopurua, eta, ikusi dugun bezala, baita egokitutako zerbitzu aktibora igaroko den edo igaro ahal izango den langile kopurua ere. Zailagoa da iragartzea zenbat igaroko diren bigarren jarduerako egoerara, baina estatistikak beti antzekoak izan ohi dira, eta ez dute zerbitzua asaldatzen.

Langileen osasuna zaindu behar denez, adin jakin batetik aurrera, eta interesdunak hala eskatzean, egokitu egin behar da laneko jarduera. Baina, ikusi dugunez, horrek ez dakar lanpostua aldatzea, salbuespenezko kasu batzuetan eta unitate jakin batzuetan izan ezik (edonola ere, unitate horiek ez dira erakundearen zatirik handiena). Horrenbestez, ez da ikusten txostenean aipatzen diren antolaketa- eta aurrekontu-arazoak egon daitezkeenik langileetako batzuk destinatorik gabe geratuko balira, ezta neurritz gaineko ordainsariak jasoko litzuketarik ere.

Bestalde, Funtzio Publikoa ez dago ados bigarren jarduerako langileak Administrazioaren esku geratzearekin, eta ez Segurtasun Sailaren esku, ezta haiei administrazio orokorrean zerbitzuak emateko deitzearekin, nahiz eta horretarako aukerarik ez eman lanpostuen zerrendak administrazioetako beste kidego edo sektore batzuetako funtzionarioentzat ere zabaldua. Administrazioa aipatu arren, eta ez Segurtasun Saila, ondorioa bera da. Hala ere, agindua argitzeko asmoz, aldaketa hauek egin dira: a) EAEko poliziako funtzionarioak aipatuko dira, eta ez bakarrik Ertzaintzakoak; eta b) funtzionarioa polizia-kidegoaren esku egongo litzateke, eta ez, oro har, administrazioaren esku.

Bigarren jarduerako administrazio-egoerari dagokionez, proposatu du segurtasun-indar eta -kidegoetako funtzionarioek bete dezaketen lanpostu gisa sailka dadila bete beharreko lanpostua dagokion lanpostuen zerrendan. Ondorio horretan, prebentzioa handiegia da, ez du zerikusirik aginduaren logikarekin, ez ditu kontuan hartzen EPLko beste agindu batzuk, eta argi baino argiago uzten du ezinezkoa dela, oso kasu zehatz batean izan ezik, polizia-funtzionarioak administrazio orokorreko berezko eginkizunetara bideratzea. Baina, horretaz gain, proiektuko agindua irakurrita, ezin da inola ere egin txostenak egiten duen interpretazioa.

Bestalde, uste du, adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboari dagokionez, txostenak negoziazio kolektiboko lan-baldintzak egokitu besterik ez duela egiten, eta egokitzapena ez dela lege bidez arautzekoa. Hori dela eta, proposamenaren kontrako txostena egin dute.

Egokitutako zerbitzu aktiboari buruzko araudiaren lege-mailaren aurkako oharra ez du irizpide legal edo konstituzionalik, baizik eta egokitasun-iritzia soilik. Ez dago erregelamendu-erreserbarik ezein gaitan, ezta legeari debekatu zaion gairik ere. Lanpostuan aritzea da, noski, zerbitzu aktiboaren oinarria. Horren ildotik, zerbitzua egokitzeak ez du aldatzen administrazio-egoeraren mota. Hala ere, indarreko araudiari eta, areago, proposamenari jarraiki, bigarren jarduerako egoerak zerbitzua etengabe

ematea dakar, baina horrek ez du esan nahi administrazio-egoeraren izaera eztabaidatu edo legetik kendu behar denik.

Edonola ere, zerbitzu aktiboa adina dela-eta egokitzea administrazio-egoera bereizia ez izateak ez du esan nahi hutsala denik legean jasotzea erregelamendu bidez aitortuta dagoenari buruzko arauak, aitopenaren oinarriek ondorio erabakigarriak baitituzte egokitzapenari heltzen dion funtzionarioaren eskubide eta betebeharretan. Era berean, kontuan izan behar da legeak aldatu egin nahi dituela bigarren jarduerako administrazio-egoeraren kasuak.

Hori gorabehera, azter daiteke ea beharrezkoa den lege-mailako arauan jasotzea, ez bakarrik figuraren oinarrizko printzipio eta arauak, baizik eta baita agintarauetara hobeto egoki litezkeen alderdi zehatzei buruzko xehetasunak ere (Ertzaintzan dagoeneko indarrean da). Eta are gehiago araudia EAEko poliziakide guztientzat berdina ez denean; izan ere, Ertzaintza ere hartzen du barnean, baina ez dator bat udaltzaingoen kasuan administrazio bakoitzak bere garapena egitearekin.

- Diziplina-erregimena

- Faltak.

92.2.b) artikulua dela eta, **ERNEK** exijitu nahi du tratu gizagabea bereziki larria izan dadila, falta oso larritzat har dadin. Ez da onartzen, tratu bidegabea oso larria baita; tratu bidegabe oro da larria.

92.2.g) artikuluko faltari dagokionez, **ERNEK** proposatu du “behin eta berriro edo jarraian” gehitzea funtzioak nabarmen ez betetzeari. Hori, ordea, ez da beharrezkoa, “nabarmen” hitzak larritasuna adierazten baitu, behin eta berriro egiteaz gain. **UGTk** proposatu du errendimendu-falta “ziurtatua” izan dadila, eta ez “nabaria”. Baina hori ere ez da onargarria: batetik, gertakariak beti egiaztatu edo frogatu behar direlako; eta, bestetik, “nabaria” haratago doalako, errendimendu-faltak ageria eta antzemateko modukoa izan behar duelako. **ELAK** proposatu du, errendimendu-falta eta funtzioak nabarmen ez betetzea zigortu ahal izateko, aurrez jokabide horien ondoriozko informazio-espeditentea egotea. Ez da ulertzen zer motatako espeditentea izango litzatekeen hori, non eta diziplinazkoa ez den, ezta nola amaituko litzatekeen ere, non eta zehapen-ebazpenarekin amaitzen ez den, ohartarazpenezkoa bada ere.

92.2.l) artikuluari dagokionez, **ERNEK** proposatu du ez daitezela areagotu jokabide larriak oso larrietara behin eta berriro gertatu izanagatik, erantzukizuna banakatu egin behar baita falta bakoitzean. Proposamen horri erantzunez, esan behar da zehapen-erregimen osoan kualifikatzen edo areagotzen duela falta behin eta behin gertatu izanak.

Emakundek iradoki du “jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpenera lanean” esamoldea gehitzea 92.1bis artikuluko falta oso larrien artean, Berdintasun Legearen 43.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, irizpide hori jasotzen baitu. Onartu egin da.

- Zehapenak:

ERNEK areagotu egin nahi ditu falta arinengatiko zehapenak. Gaur egun, 1 eta 4 egun bitartean kentzen dira lana eta soldata, baina, sindikatuak proposatu duenez, 14 egunez ere kendu ahal izango dira. Era berean, falta larriengatiko zigorra ere areagotu nahi du, gutxieneko zehapena 15 egunekoa izatea nahi baitu. Bestalde, eskatu du ken dadila “ordainsaria galtzea” erreferentzia eginkizunez gabetzen direnean.

Aurreko legegintzaldian ere proposatu zen zehapen arinak areagotzea, baina ez zen akordiorik lortu sindikatuekin, eta baztertu egin zen. Orduan, zehapen arinak gehitu nahi izan ziren, zehapen larrien kalterako, estatistikoki nabarmengoak izan ohi baitziren. Eginkizun-gabetze arinak eragin txikiagoa zuen administrazio-karreraren, gabetze-aldia ez delako antzinasunetik kentzen. Bestalde, diziplina-zehapenei aurre egiteko aseguru-polizek falta arinengatik ezarritako zehapenak estali ohi dituzte, baina falta larriengatik ezarritakoak.

Hala ere, zehapen arinetako zigorrak areagotzeak ez du aldatzen falten egungo sailkapena; besterik gabe, arin edo larri gisa zehatzen diren jokabideei zigor handiagoak ezarriko litzaizkieke.

Beste kontu bat da zenbait falta larri arin bihurtzea, edo eginkizunez gabetzeko zehapen larrietan diziplina-ondorioak egokitzea. Adibidez, zehapen larri gisa gehienez 15 egunez eginkizunez gabetuz gero, antzinasunetik ez galtzea.

Gainerakoan, egokia da **ERNEren** iradokizuna, alegia, eginkizunez gabetzean “ordainsaria galtzea” erreferentzia kentzearena. Auzi penalean emandako epai bidez edo diziplina-zehapenaren ondorioz pasatzen da eginkizun-gabetzeko administrazio egoerara. Kautelazko neurri gisa ere erabiltzen da diziplina-espeditenteak bideratzen direnean edo prebentziozko espetxealdia ezartzen denean, baita epaileak hala erabakiz gero ere lanpostuan aritzeko ezintasuna adierazteko (behin-behineko gabetzea). Administrazio-egoera horretan, ezin da ordainsaririk edo bestelakorik jaso, non eta gabetzea behin-behinekoa ez den (oinarrizko ordainsariak eta seme-alaba zaintzeagatiko laguntzea). Horrenbestez, ordainsariak galtzea ez da zehapenaren ondorioa, baizik eta administrazio-egoerarena.

Bestalde, **ERNEK**, ekarpena baino, nahitaezko lekualdatzearen zehapenari buruz proposatutako araudiaren inguruko interpretazioa egin du, interpretazio egokia egin ere. Haren ustez, zehapen-ebazpenak zehaztu egin behar du destinoa galduko den ala ez. Destinoa galduko ez bada eta hala adierazten bada zehapenean, hura betetakoan destinora itzuliko da, eta ez da zigortu behar destinora itzuli izana.

- Graduazioa

ERNEK ohartarazi du 94. artikuluko e) eta h) letrak ia berdinak direla. Hala da. Hortaz, h) letra ezabatu da.

ERNEK uste du, zehatzerakoan zigor penalaren garrantzia haztapen-irizpide gisa hartu ordez, hobe litzatekeela doluzko delituaren falta oso larria aldatzea. Horrela,

askatasunaz gabetzeko zigorra dakarren doluzko delituagatiko zigor-kasuak soilik zehatuko lirateke diziplina-bidetik kausa horrengatik, delitua zerbitzuarekin erlazionatuta badago edo Administrazioari nahiz pertsoneri kalte larriak eragiten badizkie. Ez da onartzen. Legea urratu duen polizia-agentea espetxeratzeak zerbitzu osoan du eragina, delitua jazarri behar duenak deliturik ez egitea espero baita.

Kendu egin behar dira falta penalen erreferentziak, azken erreforma penalak kendu egin duelako figura hori.

Onartzen da berariaz sartzea ordezkari sindikalaren erreferentzia espedientepeko funtzionarioari 95.2.bis artikuluan aipatzen den konfiantzazko pertsonaren laguntza jasotzeko eskaintzen zaion aukeran.

- Prozedura.

DACIMAREN txostenak 95.2.ter artikuluari buruz dio administrazio-prozedura erkideari buruzko lege berriak dioena jaso behar dela, alegia, nahitaez erabili behar direla baliabide elektronikoak. Kontuan hartu da, eta testua aldatu da.

- Iraungitzea:

ELA-Udaltzaingoak nahi du 95.5 artikuluan ezarritako iraungitze-epea 3 hilabetekoa izan dadila, gaur egun bezala, eta ez 6 hilabetekoa, proposamenean bezala. Ez da egia; gaur egun, iraungitze-epea ez da 3 hilabetekoa. Beste diziplina-erregimen batzuekin alderatuta ikus daitekeenez, epea 12 hilabetekoa da Estatuko funtzionario zibilen kidegoan; 6 hilabetekoa, euskal enplegu publikoari buruzko legean; eta 6 hilabetekoa, baita ere, Espainiako polizia nazionalaren diziplina-erregimenean. Diziplina-prozeduretan egin behar diren izapideak eta prozedura-bermeak ikusita, ezin da bermedun diziplina-espedienterik bideratu 3 hilabeteko epean. Hori dela eta, ez da onartu proposamena.

- Preskripzio-epeak:

ERNEK preskripzio-epeak laburtzea proposatu du, 3 urtetik (oso larria), 2 urtetik (larria) eta 3 hilabetetik (arina) urtebetera (larriak) eta hilabetera (arinak). Baita zehapenen preskripzio-epeak ere. **UGTK** proposatu du hilabeteko epean preskriba daitezela falta eta zehapen arinak. **CCOOK** proposatu hilabetera murriz dadila (3 hilabetetik) falta arinen preskripzio-epea. **ELAK** proposatu du falta eta zehapen larrien preskripzio-epeak 18 hilabetera murriz daitezela, eta arinenak, berriz, hilabetera.

Enplegu publikoari buruzko euskal lege-proiektuan, preskripzio-epe hauek daude: falta oso larriak, 3 urte; larriak, 2 urte; eta arinak, 6 hilabete. Zehapen oso larriak, 3 urte; larriak, 2 urte; eta arinak, urtebete. Zentzuzkoa da, segurtasun juridikoagatik, preskripzio-epeak nolabait komunak izatea euskal administrazioetako enplegu publikoen talde guztietan. Hala ere, zirriborroan, falta eta zehapenen preskripzio-epeak txikiagoak dira erregimen orokorrean baino.

- Betearaztasuna eta betearazpena:

ERNEK iradoki du gehi dadila zehapenaren betearazpena kautelaz eteteko aukera arautzen duen manuan (97 BIS art.) interesdunak berariaz hala eskatzen badu soilik aplikatuko dela kautelazko etenaldia. Iradokizunari erantzunez, aldatu egin da 97 bis artikuluko bigarren paragrafoa: *“Administrazio-bideko diziplina-zehapen irmoaren betearaztasuna kautelaz eteteko eskatu ahal izango du interesdunak, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztuko duela adieraziko dio Administrazioari.”*

ERNEK iradoki du gehi dadila 97 ter artikuluan, zehatutakoari ahalik eta kalterik txikiena eginez betearazteko printzipioari buruzkoan, unitateko buruzagitzarekin hitzarmena egiteko aukera. Ezin da onartu iradokizuna, betearazteko modua ez baitago zertan unitateko buruzagitzaren erabakiaren menpe.

Aurreproiektua hemen berrikusi ondoren, uste dugu 97.ter.2 artikuluan (funtzionarioak beste egoera batzuetara pasatzean zehapena betearazteko moduari buruzkoan) adierazi behar dela ezin dela zehapena bete, nahitaezko erretiroa hartu eta funtzionario izateari utzi zaiolako.

ERNEK proposatu du bost urtekoa izan dadila (eta ez seikoa) zehapenen multzoaren muga 97 TER 3 artikuluan, eginkizunak kentzeko zehapen bat baino gehiago betetzeari buruzkoan. Hortaz, adibidez, launa urteko bi zehapen jarri eta eginkizunak kentzen badizkidate, bost urte baino ez nintzateke egongo zigortuta, eta ez zortzi. Ez dirudi neurritzakoa. Zentzuzkoagoa dirudi dagoen bezala uzteak.

97 ter 4 artikulua dela eta (ordainsariak kendu eta zatikatzea), galdera da ea nola aplikatuko den prozedura hori, eginkizun-gabetze irmoa baita eta egoera horretan ez baita ordainsaririk jasotzen. Badira antzeko aurreikuspenak Espainiako polizia nazionalaren eta goardia zibilaren diziplina-erregimenean. Hala ere, polizia nazionalaren kasuan, falta larrien ondoriozko eginkizun-gabetzeetan soilik aplika daiteke zatikatzea (falta larriagatik eginkizun-gabetzea gehienez 3 hilabetekoa da) eta, goardia zibilaren kasuan, ezin da zatikatzea aplikatu, non eta ez den ordainsariak eta bestelakoak kenduta zehatzen (zehapen ekonomikoa da, baina ez du zerikusirik enplegu-gabetzearekin).

Gure kasuan, ordainsariak eta bestelakoak kentzea ez da zehapen ekonomikoa, baizik eta administrazio-egoera baten ondorioa. Gainera, praktikan, bideraezina litzateke kendutako ordainsariak zatikatzea zehapenak gainditu duenean nomina baten denboraldia.

97 ter 5 artikuluari dagokionez, **EUDELeK** proposatu du jaso dadila zehapena betetzeko ordezkari neurria ez dadila izan, besterik gabe, zehatutakoaren eskubidea, baizik eta administrazioak onartu egin beharko duela, bestela, zehapenak eredugarri izateari utziko liokeelako. Onartu da.

Testua hemen berraztertu ondoren, proposatzen dugu “gehienez 15 egun” kentzea eta “15 egun edo gutxiago” jartzea.

97. artikuluari dagokionez, **ERNEK** esan du aparteko lana alta-egoeran egiten dela eta kotizatzen dela Gizarte Segurantzari. Ez dirudi esplizitatu behar denik, langilea zerbitzu aktiboan baitago, eta ez eginkizun gabetuta.

- Funtzionarioen ordezkariak eta partaidetza. Ertzaintzaren Kontseilua.

ERNEK proposatu du 99.5 artikulua aldatzea, Ertzaintza osorako hautesbarruti bakarra ezartzeko polizia-kidego horretako ordezkarien hauteskundeetan (gaur egun, hiru hautesbarruti daude). Zirriborroan ez dago proposamen hori. Hala ere, ez du kapituluko funtsezko ezer aldatzen, eta beste sindikatuek ere ez dute eskatu alderdi hori aldatzea. Gai horri heltzeko, nolabait ados jarri behar lukete eragile sindikalek.

ERNEK eskatu du Ertzaintzaren negoziazio-mahaiaren eskumen eskusiboa izan daitezela negoziatu beharreko gai guztiak, eta ez administrazio-mahai orokorrarena. Uzi hori ez da onargarria, negoziazio-elementu batzuek euskal administrazioaren eta sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden langile guztiei eragiten baitiete, eta ezin baitira guztiz banandu negoziazio-eremuak, gobernu-politikaren koherentziari eusteko.

CCOOK hainbat gauza proposatu ditu: langileen ordezkariak zerrenda irekien bidez hauta daitezela; langileen ordezkari bakoitzak kudea dezala ordu-kreditua, eta ez erakunde sindikalek; eta audioan eta bideoan graba daitezela, nahitaez, negoziazio-mahaiaren bilerak, eta sailaren intranetean jar daitezela funtzionarioen esku. Proposamen horiek ez dute oihartzunik izan beste erakunde sindikaletan. Gai horri heltzeko, nolabait ados jarri behar lukete eragile sindikalek.

ELA-Ertzaintzak proposatu du euskal legegileen esku utz dadila lan-baldintzei buruzko akordioak aldatzeko eginkizuna. Deigarria da, sindikatuek aitortu egiten baitute legeak gaitasuna duela indarreko negoziazio kolektiboaren emaitza aldatzeko, hura alde batera utzita. Baina, horretaz gain, hainbat arazo sortzen ditu: a) Gaiari ezin zaio heldu funtzionario talde espezifikoari buruzko lege sektorialaren bidez, baizik eta funtzio publiko osorako araua izango litzateke eta, hortaz, ez litzateke lege honetan sartuko. b) Zenbait eginkizun kentzen dizkio botere betearazleari, eta botere legegileari bidegabe esleitzen dizkio, eta proposamengileak ez ditu kontuan hartu horren guztiaren ondorioak, jarraian adieraziko direnak. c) Prozedura legegilearen bidez soilik onar ditzake arauak botere legegileak, kasu honetan bitxia dena, legearen bidez soilik aldatu ahal izango litzatekeelako erregelamendua eta horrek blokeatu egingo lukeelako, materialki, ondoriozko arauaren maila. Horrenbestez, Legebiltzarrak esku hartu ondoren, negoziazio kolektiborik gabe, mugatu egingo litzateke sindikatuek eta administrazioak akordioak egiteko ahalmena, Legebiltzarrak ere ados egon behar lukeelako eta bide legegile egokietatik onartu beharko lituzkeelako.

Ertzaintzaren Kontseiluaren erregulazioari dagokionez, proposamen hauek egin dira:

CCOOK proposatu du negoziazio-mahai espezifiko bihurtzea, polizia-jardunetan segurtasunarekin zerikusia duen guztiaz arduradain, eta kontseilu horretako erakunde sindikalek ertzainen aurkako salaketak egin dituzten herritarrak auzitara eramateko ahalmena izatea, salaketek ez badute zigorrik ekarri eta salatutako ertzainak absolbitu egin badira. Ez da onartu kontsulta-organo hau beste negoziazio-mahai sektorial bat, EPLren 103. artikuluan ezarritakoaz bestelakoa, bihurtzeko uzia. Bestalde, edozein erakunde sindikalek bidera ditzake ekintza penalak; ez da beharrezkoa erantzukizun hori administrazio-organoari transferitzea. Horretaz gain, Administrazioak muga legalak ditu akusazio penal gisa agertzeko (eta administrazio honek badu horretan esperientzia).

ELA-Ertzaintzak proposatu du funtzionarioen aurkako diziplina-espeditente guztien berri eman dezala Ertzaintzaren Kontseiluak (falta arinen kasuan izan ezik), eta Kontseiluan ager dadila espeditentepekoa. Proposamena ikusita, ez da ulertzen funtzio

gisa gehitzea hasitako gainerako espedienteak eta haien ebazpena ezagutu beharra (falta arinenak soilik geratuko lirateke alde batera). Gaur egun, zirriborroaren arabera, kasurik larrienetan eta espedientepekoa ordezkari sindikala denean eskatzen da Ertzaintzaren Kontseiluaren txostena. Ertzaintzaren Kontseiluak diziplina-espediente guztietan txostena egin dezala eskatzeak Kontseilua gainkargatuko luke, baina horrek ez du prozedura-berme handiagorik ematen. Aitzitik, atzeratu egingo luke espedienteak izapidetzeko eta ebazteko prozesua, eta espedienteak iraungitzeko arriskua egongo litzateke (arriskua baino, ziurtasuna izango litzateke zenbait proposamen onartuko balira, besteak beste, espedientearen indarraldia 3 hilabetera murriztea). Gainerako funtzionarioen diziplina-erregimen erkidera hurbiltzeko eskatu duenez ELAk, ez da ulertzen proposamena: diziplina-prozedurak, prozedura idatzia (ez ahozkoa) denak, kontraesan-, entzunaldi- eta defentsa-printzipioak bermatzen dizkie espedientepekoiei Ertzaintzaren Kontseilua kontsulta-organoa da, ez instrukzio-organoa (instrukzio-ahalmena izango balu, ohorezko auzitegienaren antzeko esku-hartzea izango luke zehapen-prozeduretan; Konstituzioaren 26. artikulua arabera, debekatuta daude ohorezko auzitegiak administrazioaren eta erakunde profesionalen arloan).

Antzekoa esan daiteke ohoreak emateari buruzko ELAren proposamenari dagokionez.

- Egitura profesionala:

ELA-Ertzaintza sindikatuak nahi du 105.2.c) artikuluan jasota gera dadila, prestakuntza ondorengo praktikaldiran, C1 sailkapen-taldearen arabera ordainduko zaiela izangaiei. Bistakoa da, legea onartu ondoren, hala izango dela, ezin baita beste inola izan; alegia, ezin izango litzateke beste edozein sailkapen-talderen arabera ordaindu, C1 titulazioa eskatzen baitzaie prozesuan parte hartu ahal izateko.

Egitura profesionalari dagokionez, **ELA-Udaltzaingoak** nahi du unibertsitateko titulua eska dakiela agenteak edo agente lehenak ez diren udaltzain guztiei. Ez dago argi **ELA** sindikatuak irizpide bera duen Ertzaintzari dagokionez, edo, euskal polizia-kidegoen artean halako egitura-desberdintasun nabarmena egotea nahi duen.

ELA-Ertzaintza sindikatuak nahi du aginduzko aditza erabil dadila 112. artikuluan, polizia judizialeko funtzionarioak epaitegi zehatzetara betiko atxikitzeke aukerari buruzkoan. Kasu honetan, bidegabekoa da aginduzko aditza erabiltzea, aginduan ez baita zehazten zer epaitegitara atxikiko liratekeen (areago, ezin izango litzateke). Epaitegi bakar eta zehatzera atxikitzearen figura polizia judizialari buruzko 1987ko erregelamenduan jasota dago, polizia judizialeko unitateek botere judizialaren organoekiko menpekotasun funtzionalaren berezitasun gisa, eta epaitegi zehatz edo fiskaltza berezi batek funtzionarioak modu iraunkorrean atxikitzea behar duenean sortzen da. Artikulu honetan aipatzen den polizia judizialari buruzko erregelamenduko aginduak habilitazioa dakar, baina ezin da agindu zehatz gisa hartu, aurrez ezin baitira zehaztu zer organo judizial zehatzetara atxikiko diren. Hori dela eta, ez da egokia aginduzko aditz-forma erabiltzea.

- Udaltzaingoak

- *Izendapena:*

Nahiz eta aurreproiektuaren xede ez izan, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du “Udaltzaingoa / Policía local” izendapen bakarra erabil dadila udaltzaingoez hitz egiteko. Horren ildotik, 2. artikulua eta 24.3 artikulua aldatzea proposatu du. Arrazoizkoa dirudi izendapena bateratzeko uziak. Hala ere, kontuan izan behar da, baita ere, udaltzaingoen oinarritzko arauak prestatzerakoan eztabaidatu zela horren inguruan, eta komenigarritzat jo zen udalerrri bakoitzean izendapen tradizionalei eustea, oso errotuta zeudelako (adibidez, “udaltzaina”, “polizia municipal”, “guardia urbana”, “policía municipal”, etab.). Ez da onartu.

- Erakunde armatuaren kontzeptua:

Nahiz eta aurreproiektuaren xede ez izan, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du paragrafo bat gehitzea 25. artikuluan, “erakunde armatua” kontzeptua eta su-arma eramateko edo ez eramateko betebeharra argitzeko. Hala ere, proposatutako testuak besterik gabe dio arau bidez ezarriko dela polizien hornidura, besteak beste, su-arma, bastoia eta gainerako ekipamendua, baita haiek erabiltzeko prestakuntza teoriko eta praktikoa ere, bitartekoak homogeneizatzeko. Erakunde armatuen izaera Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikotik dator, eta jada ageri da indarreko EPLn. Hortaz, ezin izango litzateke ezer zehaztu gai horren inguruan. LOSSPEn ere jasota dago bitartekoak eta hornidurak homogeneizatzeko ahalmena. Beraz, ez da egin ekarpen berririk. Pentsa liteke proposamenak oinarritzko arauak aldatu edo garatu nahi dituela, hornidurak homogeneizatu ahal izateko oinarriak sartuta.

- Funtzioak:

Nahiz eta aurreproiektuaren xede ez izan, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du alda dila 26.3 artikulua, eta ezar dezala udaltzaingoko kidegoek antolamendu juridikoaren bidez segurtasun-kidego eta -indarrei egokitu zaizkien funtzioak beteko dituztela, baita legeak berariaz ezartzen dizkienak ere. Proposamen hori ez dator inola ere bat Estatuko araudiarekin, polizia-arloko eskumen orokorra emango bailitzaieke udaltzaingoei. Hortaz, udaltzaingoei dagozkienak izan ezik, Ertzaintzaren eskumen guztiak ere izango litzukete, baita Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoenak ere. Hori ez dator inola ere bat Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoarekin; gainera, nahaspila sortuko luke Ertzaintzarekin eskumenei eta operazioei dagokienez, funtzioak eta zerbitzuak bikoiztuta egongo bailirateke.

- Lurraldez kanpoko jarduna:

AJEPLE-EUBEK proposatu du lurraldez kanpo jarduteko aukera sar dadila polizia-zerbitzuak eskaintzeko egiten diren lankidetzak-hitzarmen edo elkartzeetan. Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeko legeak jada aurreikusita du jardun mota hori.

- Sarrera eta hautapena:

EUDELeK proposatu du jasota geratzea gutxienekoak izango direla 50.1 artikuluan aipatzen diren udaltzaingoetan sartzeko oinarritzko arauak. Ez da onartu, erredundantea izango litzatekeelako: hain zuzen ere “gutxienekoak” direlako dira “oinarritzko” arauak.

- Egitura profesionala, eskalak eta kategoriak

EUDELen ustez, kidegoan sartzeko C1 taldea eskatzeak garbi uzten du egungo sailkapen-ereduak ez duela funtsik. Hala ere, komenigarritzat jotzen du erregimen iragankorra ezartzea C2 agente-plaza dutenentzat (C1 agenteekin parekatu dira orain, baina askok ez dute titulurik). Izan ere, plazak C1 izatera pasatzen badira, birsailkapenak ez du ondorio ekonomiko gehigarririk izango, dagoeneko onartu baitzitzaizkien. Bestalde, kontuan izan behar da egungo bitartekoak ez daudela C2 taldean sailkatuta ere. Ohar horiei erantzunez, xedapen iragankor batzuk eman dituzte.

Bestalde, **AJEPLE-EUBEK** eskatu du goi-mailako eskala eta betearazpen-eskala A1 gisa sailka daitezela (aurreproiektuan A2 dira); ikuskapen-eskala, A2 gisa (aurreproiektuan, C1); eta intendente-kategoria nahitaezkoa izan dadila 150.000 biztanle baino gehiago edo 200 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan (aurreproiektuan, "y"). Partzialki zentzu berean proposatu du **ELA-Udaltzaingoak** A2 azpitaldean sar dadila ikuskapen-eskala.

Irizpide hori ez dator bat **EUDELen** iritziarekin, egitura berriak hierarkizazio handiegia dakarrela esan baitu. Dударik gabe, onartuz gero, **AJEPLE-EUBEren** proposamenak larriagotu egiten ditu gai hau eta **EUDELeK** proposatutako besteak, hots, proposamenaren finantza-kostuari buruzkoak.

Hainbat ondorio izango lituzke horrek, baina, besteak beste, unibertsitateko graduatuentzat izango liratekeela oinarritzko eskalakoak ez beste plazak, eta ez bakarrik udaltzaingoetan (hortaz, 8 kategoriatik, 6 unibertsitateko graduatuentzat izango lirateke). Alde handia da hori, orain arte, eskola-graduatu baino ez baitzen eskatzen polizia-kidegoetan sartzeko eta karrera egiteko (zenbait muga egon arren).

Gainera, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du, legea indarrean sartzean, A2 azpitaldean barnera daitezela, automatikoki, egun ofizial edo ofizialorde gisa ari direnak, nahiz eta horretarako behar den unibertsitateko titulua ez izan, eta 4 urteko antzintasuna duten agente lehenek aukera izan dezatela, titulua izan gabe ere, ikuskapen-eskalara igotzeko. Proposamen hori ez dator bat funtzio publikoko oinarritzko arau erkideekin, guztiz bereizten baititu sailkapen-taldea eta titulazioaren kategoria edo eskala.

Beraz, baztertu egin dira **AJEPLE-EUBEK** eta **ELA-Udaltzaingoak** gai horri buruz egin dituzten proposamenak. Onartu egin da, ordea, 150.000 biztanle baino gehiago edo 200 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan (aurreproiektuan "y") intendente-kategoria nahitaezkoa izan dadila dioen proposamena.

Egitura profesionalari dagokionez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenak adierazi du, udalerriko populazio-parametroak aldatuz gero, udaltzaingoaren egitura doitu beharko litzatekeela. Oharrik ez du egin, baina, haren iritziz, aldaketetara moldatzeak buruzagitzaren kategoria murrizten badu, eta kategoriak titularra badu, titularrak eginkizunak betetzen jarraituko du, eta lanpostua "desagertzeko" daudenen artean sailkatuko da. Eskalak sailkatzeko aplikatzen diren baremoak aldatzearen ondorioz goranzko aldaketa gertatuko balitz, funtzionarioek lanpostuan jarraituko dute, izendatu zituztenean zeuzkaten baldintzekin eta betetzen ari diren lanpostuari benetan esleitu zitzaizkien ordainsariak jasoz.

Egitura profesionala dela eta, **ELA-Udaltzaingoak** esan du lege bidez ezarri ordez garatu egin behar dela Udaltzaingoetan kategorien arteko proportzionaltasun-irizpideak finkatuko dituen araudia (aurreproiektuan bezala), legeak berak finka ditzala irizpide horiek, eta ratio batzuk proposatu ditu. Dena dela, ez du ekarri proposamenaren proportzionaltasuna babesten duen elementu objektibo edo azterketarik. Gai zaila da;

ganorazko azterketak egitea eskatzen du, eta ez du inprobisatzeko aukerarik ematen, ondorioak baititu plantilletan. Izan ere, kontuan hartuta bi udaltzain egon behar direla 1.000 herritarreko, eta kategorien artean proportzionaltasuna egon behar dela, udalerrri askok nabarmen handitu behar lukete udaltzain kopurua, eta gutxi batzuek, berriz, txikitu. Beharrezkoa litzateke, azterketa eztabaidaezinak egiteaz gain, arauak kontuan izatea, baita ere, beste faktore batzuk, ez bakarrik populazioarena edo kategorien arteko proportzionaltasun aritmetikoa, malgutasunez hartzea udalerrri bakoitzaren benetako beharrak, eta dagokion marjina ematea tokiko antolaketa-autonomiari. Gaia lege formalaren bidez finkatuko balitz, tokiko autonomia gehiegi murrizteaz gain, egiturak gehiegi eten ere egingo lirateke, udaltzainen plantillan erabakigarriak izan daitezkeen beste faktore batzuei jaramon egin gabe (aldi jakin bateko populazioa, arrisku sozioekonomiko bereziko faktoreak, etab.), eta legeen berezko zurruntasunak zaildu egingo luke bat-bateko aldaketa sozialetara egokitu ahal izatea. Horregatik, egokiagoa dirudi botere betearazlea gaitzea udaltzainen plantilletako parametro homogeenak zehazteko. Horrenbestez, ezin da onartu proposamena.

Gainera, proposamenak areagotu egingo luke **EUDELen** sentsazioa, hau da, egitura berriak behartu egiten duela, ez bakarrik gaur egungoen gainetik dauden kategoriekin buruzagitza-lanpostuak sortzera, baizik eta baita bitarteko kategoria guztiak sortzera ere. Horren ondorioz, baliteke plantillak handitu behar izatea eta kostuak areagotzea, eta horrek eragina izan dezake euskal udal batzuen edo guztien aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuetan. Horren ildotik uste dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera, legegileak finantza-eragin hori kalkulatu behar lukeela, eta udalerrriak baliabideez hornitu, diru nahikoa dutela bermatzeko.

EUDELen ohartarazpenari dagokionez, kontuan izan behar da prozeduraren memoria ekonomikoan aztertzen duela zer eragin izan dezakeen alderdi horiei buruzko araudi berriak tokiko administrazioetan. Jarraian jaso da araudia, laburtuta.

Hala ere, ez gaude ados beste adierazpenarekin; alegia, alderdi horren inguruko lege-erreformak derrigortu egin behar duela legegile autonomikoa udalerrriak baliabidez hornitzera, legea betetzerakoan diru nahikoa dutela bermatzeko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen aurreikuspen horretako kasuetan, Estatuko legegileak edo legegile autonomikoak eskumen berriak eman dizkie udalerriei. Baina hori ez da gure kasua, udaltzaingoaren arloko eskumena tokiko eskumena baita; areago, udaltzaingoaren funtzio mugatzaileak aldatu ere ez dira egin.

Kontuan izan behar da, gainera, indarrean dagoen maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretuak, Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituenak, zenbait irizpide ezartzen dituela kidego horietako eskalak eta kategoriak egituratzeko. Kidego horietan, udalerrriko populazioaren arabera esleitzen zitzaizkien buruzagitza-lanpostuak kategoria jakin batzuei, eta, horregatik, egokitzapenak egin behar ziren. Egiaz, erreforma legalak partzialki aldatzen du oinarritzko arauari buruzko dekretuaren emaitza, baina, dekretu horrek zer eragin izan duen ikusita, erreforma legalarena txikiagoa da.

Kontuan hartzen baditugu 58/2015 Dekretuaren ondoriozko egokitzapena eta proposatutako legearen erreformak eragin lezakeena, udalerriek kategoria hauek sortu beharko dituzte legearen egokitzapen-aldian, 58/2015 Dekretua indarrean sartu aurreko egoerari dagokionez:

- Intendentea: Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián.

- Komisarioa: Vitoria-Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Irun
- Komisariordea: Getxo; Irun; Santurtzi, Errenteria, Sestao, Basauri, Durango, Eibar, Zarautz, Leioa, Galdakao
- Ofiziala: Santurtzi, Eibar, Galdakao, Hernani, Tolosa, Arrasate- Mondragon, Sopela, Mungia, Lasarte-Oria, Llodio, Amorebieta, Gernika-Lumo, Ermua, Andoain
- Ofizialordea: Andoain, Arrigorriaga, Etxebarri, Oiartzun; Gorliz: Ordizia: Zumaia: Ondarroa: Lekeitio: Muskiz: Urretxu: Balmaseda: Gueñes: Ortuella: Elorrio: Abadiño: Astigarraga: Orio: Villabona: Zalla: Plentzia, Urnieta, Derio; Lezo; Ugao-Miraballes; Usurbil; Mutriku;

Hala ere, lege-proiektuak zer eragin izango duen baino ez badugu hartzen kontuan, koadro hau izango dugu:

a) Intendentea: gaur egun, borondatez sortzen da, eta 300.000 biztanletik gorako udalerrietan soilik ezar daiteke, betiere, plantillak 400 udaltzain edo gehiago baditu. Proposamenaren arabera, kategoria nahitaez sortu behar da 150.000 biztanle baino gehiago edo plantillan 200 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan. Hiru hiriburuek soilik betetzen dituzte baldintza horiek, baina haietako batean ere ez dago intendenterik. Hortaz, egokitu egin behar lukete egitura berrira. Hala ere, badituzte gainerako kategoriak. Beraz, ez lituzkete bitarteko beste plazak sortu behar.

b) Komisarioa: gaur egun, 150.000 biztanle baino gehiago edo plantillan 100 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan ezar daiteke. Proposamenaren arabera, 50.000 biztanle baino gehiago edo plantillan 100 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan ezarri ahal izango litzateke kategoria hau. Udalerri horien artean daude Barakaldo, Getxo eta Irun; hirurek betetzen dituzte biztanleen eta plantillaren baldintzak. Hala ere, gaur egun, batek berak ere ez du kategoria hau. Iruni dagokionez, komisariorde-kategoria ere sortu behar litzateke, gaur egun ez baitago.

c) Komisariordea: gaur egun, 100.000 biztanle baino gehiago eta plantillan 40 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan ezar daiteke. Proposamenaren arabera, 25.000 biztanle baino gehiago edo plantillan 40 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan ezarri ahal izango litzateke kategoria hau. Horrek udalerri hauetan izango luke eragina: Santurtzi, Errenteria, Portugalete, Sestao, Basauri, Durango, Eibar, Zarautz, Leioa, Erandio eta Galdakao. Gaur egun, haietako batzuek ez dute ofizial-kategoria ere.

d) Ofiziala: gaur egun, 15.000 biztanle baino gehiago eta plantillan 20 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan ezar daiteke. Proposamenaren arabera, 15.000 biztanle baino gehiago edo plantillan 20 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan ezarri ahal izango litzateke kategoria hau. Horrek indarreko dekretuan agertzen diren udalerri berberetan izango luke eragina. Hala ere, betebeharrak berria izango litzateke Andoainerako; populazioaren parametroak ez du behartzen, baina bai plantillako udaltzain kopuruak.

e) Ofizialordea: gaur egun, 15.000 biztanle baino gutxiago eta plantillan 5 udaltzain edo gehiago dituzten udalerrietan ezar daiteke. Proposamenaren arabera, 15.000 biztanle baino gutxiago eta plantillan 5 udaltzain baino gehiago dituzten udalerrietan ezarri ahal izango litzateke kategoria hau. Horrek indarreko dekretuan agertzen diren udalerri berberetan izango luke eragina. Hortaz, legea onartzeak ez luke eragin berririk izango udalerri horietan.

Azken batean, lege-proposamenak eragin mugatua izango luke. Horrela, intendente-kategoria sortu beharko litzateke hiriburuetan; komisario-kategoria, Barakaldon, Getxon eta Irunen; eta komisariorde-kategoria, Santurtzin, Errenterian, Portugaleten, Sestaon, Basaurin, Durangon, Eibarren, Zarautzen, Leioan, Erandion, Galdakaon eta Irunen.

Bosgarren xedapen iragankorrari dagokionez (udaltzaingoetako funtzionarioak automatikoki goragoko kategorian integratzea), **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren** txostenak uste du, kidego horietan intendente-kategoria duen langilerik balego, koherentea izango litzatekeela langileen ordainsariak arautzeko atal bat biltzea. Hala ere, gaur egun ez dago halako langilerik. Hortaz, ez da beharrezkoa zehaztapena.

- Udaltzaingoko buruzagitza

119. artikuluari dagokionez, **EUDELe**k dio kontuan izan behar litzatekeELA-Udaltzaingo guztiek ez dutela (eta ez luketela izan behar) pertsona bakarreko buruzagitza profesionala; Bilbo da horren adibide. Kontuan hartu da proposamena.

Artikulu hori bera dela eta, **AJEPL-EUBEK** dio zehaztu egin behar dela nola hornitzen diren buruzagitza-lanpostuak izendapen aske bidez kidegoaren kategoria gorenetan dauden kidegoko bertako funtzionarioen artean, eta kategoria hori egon ezean soilik beteko liratekeela lanpostu horiek EAEko poliziako beste kidego batzuetako kideekin. Ez da beharrezkoa alderdi hori arautzea, administrazio bakoitzak erabaki behar baitu bere lanpostuak beste administrazio batzuetako funtzionarioei eskaini nahi dizkien.

EUDELek 5. xedapen iragankorra aipatu du, udaltzaingoen kidegoetako zenbait langile goi-mailako eskalan integratzeari buruzkoa. Pertsona horiei unibertsitateko titulua izatea eskatu zitzairen, 1992 baino lehen, polizia-kidegoetan sartzeko, baina urte berean EPL indarrean sartzean jatorrizkoa baino beheagoko eskalara itzuli ziren. Bilboko Udaleko hamar funtzionario baino gutxiago dira. Aurreproiektuak goragoko eskalan sartu ditu, baina horrek ezingo du ekarri gastu publikoa handitzerik, ez eta funtzionario horiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarrizko ordainsarien hazkundera beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute. EUDELen iritziz, eraldatze automatikoko irizpideak ezarri behar lirateke. Dirudienez, halaxe ondorioztatzen da aurreproiektutik, eta ordeko testua proposatu du. Onartu da proposatutako testua.

AJEPL-EUBEK proposatu du buruzagitzak egokitzeko epea 3 urtetik 2 urtera murriztea, baita denboraldi jakin batean behin betiko destinoa izan beharra ere, 5 urtetik 4 urtera. Ez da onartu, arrazoizko epeak direla uste baita.

AJEPL-EUBEK eskatu du, integrazioa eginez gero, oinarrizko ordainsariak handi daitezela, eta ez daitezela geratu osagarrietan jasota. Ez da onartu, funtzionarioak berriro sailkatzeko antzeko kasu guztiei aplikatu baitzaie.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenaren arabera, langileak udaltzaingoetako buruzagitza-lanpostu berrietan integratzeko prozesuak Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitu behar du, baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpenetan adierazitakora ere. Horrenbestez, beharrezkoa da titulazio nahikoa izatearen baldintza betetzea. Txostenak oker interpretatzen du seigarren

xedapen iragankorreko 2. zenbakiko bigarren paragrafoa; txostenaren arabera, integratzen diren baldintza guztiak independenteak dira eta, ondorioz, antzinateak titulaziotik salbuesten du. Baina hori ez da inola ere horrela, ezta agindua hitzez hitz interpretatuta ere; ikus daitekeenez, zerrendaketa da eta, amaieran, emendiozko juntagailua du, ez aurkaritzakoa.

- Fakultatiboen eta teknikarien eskala

EUDELek proposatu du udaltzaingoan ere fakultatiboen eta teknikarien eskala sortzea. Proposamena ez dator bat kidegoetako egiturekin, tamainarekin eta plantillekin, eta nolabait inprobisatu egin dela dirudi, orain arte udal erakunde bakar batek ere ez baitu adierazi eskala sortzearen alde dagoenik.

- Polizia judiziala:

EUDELek eta Oinarrizko Arauaren Taldeak proposatu dute beste artikulua bat gehitzea, PLEAn polizia judizialari buruzko prestakuntza emateko udaltzainei. Ezin da onartu, testuaren arabera Ertzaintzaren egiturari buruz ari baita.

Hala ere, AJEPLE-EUBEk egokiago adierazten du legean jasota egon behar lukeela PLEAk aukera duela ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko prestakuntza-jarduerak espezifikoki antolatzen, LOSSPERen 44.3 eta 44.4 artikuluetan aipatutako lankidetzak hitzarmenak sinatu dituzten udaltzaingoez gertatzen. Onartu da, baina egoki kokatu behar da testuan.

- Bitarteko funtzionarioak:

ERNEk proposatu du debeka dadila udaltzaingoetan bitarteko funtzionarioak izendatzea (25. artikuluan, karrerako funtzionarioen baldintza sartzea; eta zioen azalpenean eta 120. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, bitarteko funtzionarioen aipamenak kentzea).

Udaltzaingoaren Erregistroko datuen arabera, 81 udaltzaingotatik 68 udalerritakoek bitarteko funtzionarioak dituzte; hau da, 13 udalerritan soilik ez dago (edo ez da egon) bitartekorik (haietatik, Zestoak eta Eskoriatzak bi agente baino ez dituzte plantillan; eta Aulestik, bat). Gaur egun, Euskadiko udaltzain guztien % 11,4 dira bitarteko funtzionarioak, alegia, 379 udaltzain.

Epairen batek zalantzan jarri du udaltzaingoko bitarteko funtzionarioen figura bera, baina erabilitako arazoibideak berdin-berdin aplikatu ahal izango litzazkieke karrerako funtzionarioentzat izan litezkeen jarduneko administrazio publikoen zerbitzura dauden bitarteko funtzionario gehienei. Adierazpen hori ez da inola ere doktrina gisa finkatu, eta epaia eman duen organo judizialak (EAEko Auzitegi Nagusia) beste adierazpenen batean ere zehaztu du bere iritzia, nahiz eta ez den berriro arazoaren muinean sartu (adibidez, udaltzaingoko bitarteko lan-poltsa eta adinaren eskakizuna).

Kontua da, onartzen badugu lege ezin direla udaltzainen funtzioak bete bitarteko funtzionario gisa, automatikoki kendu behar liratekeela kargutik legez kontra funtzio horietan ari direnak, hau da, 379 pertsona, plaza hutsak karrerako funtzionarioek bete ote ditzaketan zain egon ere egin gabe. Paradoxikoa litzateke hori izatea alegazioa egin duen sindikatuaren asmoa.

Bestalde, **ELA-Udaltzaingoak** ez du nahi udaltzaingoetan bitarteko funtzionarioirik ez egotea, baina bai aldi baterako edo une jakin batzuetako beharrak estaltzeko kasuetara mugatu aukera hori, eta inoiz ez dadila erabili lanpostu hutsak betetzeko. Hala ere, kontuan izan behar da aurreproiektuak ez duela arautzen zer kasutan izendatu ahal izango lirartekeen bitarteko funtzionarioak, baizik eta funtzio publikoaren araudi aplikagarrian ezarritakora jotzen duela, eta besterik gabe dio, bitarteko funtzionarioirik izendatu behar izanez gero, gutxieneko prestakuntza izatea eskatu behar zaiola izendatutakoari. Edonola ere, egokiago adierazi behar da 120.1 artikulua, baina ez, hain zuzen ere, lanpostu hutsak betetzeari dagokionez. Halaber, **ELA-Udaltzaingoak** proposatu du ad hoc hautapen-prozesuetatik atera daitezela Akademiak kudeatu ahal izango lituzkeen lan-poltsak, eta ez Ertzaintzan sartzeko deialdietan plazarik gabe dauden onartuen zerrendatik. 120. artikulua ez du inola ere esaten nola sortuko lirartekeen poltsak.

- Mugikortasun-agentek:

UGT ez dago ados figura horrekin, eta, haren ordean, udaltzaingoetako plantillak indartzeko eskatu du. Horri buruz esan behar da administrazio bakoitzari dagokiola udaltzainen plantillak indartzea (beharren arabera), eta ez legegileari; gainera, figura hori jasota dago Estatuko legerian, eta duela urte batzuk zenbait euskal udalerritan (tartean, Donostia).

Bestalde, **EUDELe** nahi du ez dadila biztanle askoko udalerrietara mugatu, eta zabal dadila edozer udalerritara edo legeak zehaztutakoa baino biztanle kopuru handiagoko udalerrietara (edo horretarako aukera egon dadila). Oinarrizko Arauaren Taldeak proposatu du ezaba dadila figura sortzeari buruz esandakoa; alegia, “ez handitzea udaltzain kopurua, ezta langile-kostuak ere”. Ez da onartu ez batek ez besteak esandakoa, hartu beharreko irizpideak ez lirartekeelako bat etorriko Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan ezarritakoekin eta, ondorioz, beharbada inpugnatu egingo litzatekeelako zati hau Konstituzio Auzitegian, aurreko beste kasu batean gertatu zen bezala (kasu horretan, indargabetu egin zen Euskadiko segurtasun publikoko sistema antolatzeke legearen agindu bat).

ELA-Udaltzaingoak ezabatzea proposatu du, “*horrek ez dezan handitu udaltzain kopurua, ezta langile-kostuak ere*”. Halaxe dago jasota Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan eta, euskal legetik ezabatuko balitz, beharbada indargabetu egingo luke Konstituzio Auzitegiak. Ezin da onartu arrazoibidea.

- Aguazilak:

UGT sindikatuak proposatu du figura ezabatzea eta udaltzainen mankomunitateak sortzea.

Euskadiko Aguazilen Elkarteak zenbait alegazio egin ditu, oro har egungo aguazilak udaltzain bihurtzeko eskatzeko (eginkizun berberak, arma eramateko aukera, C1 azpitaldera igarotzea, udaltzainen uniforme berdina, eta erretiroa 60 urtetan hartzea).

5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztietan egon daiteke udaltzaingoa, baita biztanle gutxiagoko batzuetan ere, udalari komenigarria iruditzen bazaio eta baimena

ematen bazaio. Horrenbestez, aguazilak egon ala ez erabakitzeko, udalerrri bakoitzeko beharrak ebaluatzen dira. Horrela, mantendu egingo dira aguazilak beharrezkotzat jotzen ez bada udaltzainen funtzioak beteko dituen zerbitzua jartzea eta nahikoak badira aguazilak bestela udaltzainek egingo lituzketen funtzioetako batzuk egiteko.

Hortaz, udal bakoitzak erabakiko du aguazilak udaltzain bihurtu ala ez, ebaluazioaren emaitzan oinarrituta, baina ezin da legez ezarri.

ELA-Udaltzaingoak proposatu du argi eta garbi zehatz dadila zer funtzio dituzten aguazilek, 27.1 artikuluan aipatzen diren udaltzainen funtzioetatik bereizi beharrik izan gabe. Proposamenari jaramon eginez, berridatzi egin da agindua.

Aguazilen Elkarteak bi alderdi nabarmendu ditu legea indarrean sartu aurretik aguazil gisa ibilitako lan-kontratudun langileei buruzko xedapen iragankorraren inguruan: a) egoera horretan dauden bitartean agintaritzaren agentetzat hartuko diren argitzea; eta b) 3 urteko epea finkatzea barne-sustapen bidez funtzionario bihurtzeko. Bigarren alderdiari dagokionez, arrazoizkotzat jo daiteke esatea udalek ezarri behar dituztela prozedura horien epeak. Lehenengo alderdia dela eta, esan behar da, eginkizun horietan diharduten bitartean, legeak aguazilei ematen dien babes juridikoa izango dutela.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenak aguazilei buruz egindako oharrik direla eta, hau esan daiteke: Aurreproiektuak funtzionarioentzako lanpostu gisa kalifikatzen ditu, berariaz, aguazil-lanpostuak. Hortaz, ez da beste ezein arautara jo behar, nahiz eta EPOEko aurreikuspenekin bat etorri; izan ere, aguazilek, beren eginkizunetan, aginpideaz baliatu behar izaten baitute, edo polizia administratiboko ikuskapen-lanak egin. Baina EPOEk ez du lanposturik gordetzen lan-kontratudunentzat. Hortaz, legeak funtzioarentzat gorde ahal izango lituzke EPOEren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erreserba gaintitzen dituzten lanpostuak. Izan ere, mugikortasun-agenteei dagokienez, Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan erresebatzen zaizkie lanpostuak funtzionarioei. Horrenbestez, ez da gehitu behar EPOEko xedapen horretara daraman oharrik.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenak dio beharrezkoa dela aguazilek prestakuntza jasotzea armak erabiltzen ikasteko. Hori, ordea, ez da horrela, eta zirriborrotik ere ez da halakorik ondorioztatzen. Era berean, ondorioztatu du lan-kontratudun aguazilak ezin direla funtzionario izan, baina hori ez da aurreproiektuaren asmoa. Areago, testuak argi eta garbi zehaztu du zer egoeratan geratuko diren lehengo lan-kontratudun langileak, baita haiek funtzionario bihurtzeko mekanismoak ere.

Zortzigarren xedapen iragankorrari dagokionez (udalek udaltzaingoa sortzea erabakitzen dutenerako hipotesia jasotzen duena), txostenak dio funtzionario aguazilak soilik integratuko direla sortuko den udaltzaingoa, eta funtzionario ez direnak zer egoeratan geratuko lirartekeen ere zehaztu behar dela. Onartu da. Halaber proposatu du gehi dadila eskala horretan sartzeak ezingo duela ekarri gastu publikoa handitzerik, ez eta funtzionario horiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarritzko ordainsarien hazkundea beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute.

V.- LEHENENGO ZIRRIBORROARI DAGOKIONEZ EGINDAKO ALDAKETEN LABURPENA.

Zioen azalpena:

- II d).- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Jardunbide Egokien Batzordearen konfigurazio berrira egokitu da.
- IV b) eta c).- Barne-sustapeneko eta lanpostuak betetzeko araudian egindako aldaketetara egokitu dira.
- V.- Testuan egindako aldaketetara egokitu da.
- VII.- Testuan egindako aldaketetara egokitu da.

Bat. I. tituluko II. kapitulua.- Poliziaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak. Berridatzi egin dira artikuluko hauek: 10, 11, 12, 13 eta 14. Izena eta jardun-eremua aldatu zazkio lehenengo zirriborroko Ertzaintzaren Kontrol Batzordeari. Aurrerantzean, EAEko Poliziaren Jardunbide Egokien Batzordea izango da. Eremu horretara egokitu dira haren funtzioak, eta hobeto zehaztu dira, alderdi hauek argitzeko asmoz: a) haren helburua eta ahalmenak ez direla banakako erantzukizunak ikertzea eta araztea, baizik eta jardunbideak aztertzea, hobekuntzak proposatu ahal izateko; eta b) Batzordearen jardunak ez dezala bidegabe eragotzi jurisdikzio penalaren jarduna eta, horretarako, zenbait neurri har ditzala. Batzordearen osaera aldatu egin da, funtzio-eremu berria kontuan hartuta, alegia, EAEko polizia osoa.

Zazpi. 30 bis artikuluan, herritarrekiko harremanaren printzipioei buruzkoan, berariaz aipatu dira, 2. paragrafoan, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea) aitortzen dituen hizkuntza-eskubideak.

Zortzigarrena. Akatsa zuzendu da 40. artikuluan.

Bederatzi. 43. artikuluan espezialitateak aipatzen dira. Lehen, Ertzaintzakoetara mugatzen ziren, baina, orain, EAEko polizia osokoetara zabaldu dira. Hortaz, ez du mugatzen beste polizia-kidego batzuetan ere espezialitateak egon daitezkeenik.

Hamaika. 47. artikuluko 5. zenbakiaren 2. paragrafoan, ordeztu egin da administrazio-prozedura erkideari buruzko legearen aipamena. Horren ordez, indarrean ekainean sartuko dena jasoko da.

Hamabi. 47 bis artikuluko berrian (emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lortzeko neurriei buruzkoa), aldatu egin da 4. zenbakiko hirugarren paragrafoa, eta adierazi da, emakumeak sustatzeko planik ezean, ordezeko gutxieneko ehunekoa erabil dadila gutxienez 3 plaza bete nahi direnean.

Hamahiru. 48.7 artikulua dio hautapen-epaimahaiaren aholkulariek hautapen-epaimahaiko kideen objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipio berberak bete behar dituztela.

Hamabost. 55 bis artikuluko berriak argitzen du, legeak berak berariaz ezartzen dituen salbuespenetan izan ezik, eskaerak aurkezteko epearen amaieran bete behar direla sartzeko baldintzak.

Hamazazpi. 59. artikuluko 1. paragrafoaren e) hizkian, Ertzaintzako fakultatiboan eta teknikarien eskalan sartzeko araua txertatu da.

Hemeretzi. 59. artikuluko 4. paragrafoak zehazten du jatorrizko kategorian egindako benetako zerbitzualdia kalkulatzeko zenbatzen dela praktikaldia, betiere, hautapen-prozesua gainditu bada.”

Hogeita bi. 65. artikuluko 2. paragrafoan (merezimendu-lehiaketa lanpostuak betetzeko modu gisa erabiltzeari buruzkoa), deialdi guztietan ex lege aplikatzen diren merezimenduak zehazten dira; beste merezimendu batzuk ere aplikatu ahal izango dira, deialdiak hala ezartzen badu, bete beharreko ezaugarrien arabera egokiak direlako.

Hogeita bost. Garbi adierazten da zer baldintza aplikatuko diren merezimendu-lehiaketako prozeduren deialdietan, eta zer baldintza izendapen askekoetan.

Hogeita zortzi. III. tituluan erantsi den II bis kapitulu berrian (“Sustapena eta lanbide-karrera”), bi arau gehitu dira: garapen profesionaleko mailatik ondorioztatutako ordainsari-osagarrien atzeraeraginik ezarena; eta ordainsari-osagarriaren kontura halako ordainsariak ezin jasotzekoa.

Hogeita hamahiru. V. kapitulua ezarri da III. tituluan, laneko osasunaren babesari, laneko arriskuen prebentzioari eta gizarte-babes arrunt eta osagarriari buruzkoa.

Hogeita hamalau. V bis kapitulua gehitu da III. tituluan, ohorezko kondekorazioen erregimenari buruzkoa.

Hogeita hamasei. Behin-behineko eginbide-gabetzea gabetze irmo bihurtzeak zer ondorio dituen biltzen du, edo, alderantziz, irmo bihurtu aurretik gabetzea kentzeak zer ondorio dituen. Lehenengo zirriborroan ez bezala, gehitu da, zigor irmo bihurtu ezean, itzuli egin beharko dela benetan jasotako ordainsarien eta eskubide guztiak izanez gero jaso izango zirenen arteko aldea.

Hogeita hemezortzi. Aldatu egin da adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboari buruzko araudia, haren erregimenak printzipio orokorrak ere bil ditzan. Irizpide orokor horiei esker, administrazio bakoitzak aukera du, negoziazio kolektiboa egin aurretik, egokitzapenak aitortzeko adina eta dagozkion lan-baldintzen egokitzapenak zehazteko.

Hogeita hemeretzi. Udaltzaingoak aipatzen dira. Lehenengo zirriborroan Ertzaintza baino ez zen aipatzen, eta nolabaiteko hutsune legala sortu zuen udaltzaingoentzat. Garbi utzi da bigarren jardueran polizia-kidegoko lanpostuak betetzen direla, baita egokitutako zerbitzu aktiborako ezarritako zerbitzuaren prestazioaren egokitzapenari heldu ahal izango diotela bigarren jarduerako langileek ere.

Berrogei. Aldatu egin da 87. artikulua, garbi gera dadin, funtzionarioa bigarren jarduerara edo egokitutako zerbitzura pasatu bitartean beste lanpostu batera atxikitzen bada, polizia-kidegoaren esku gera daitekeela, eta ez, oro har, administrazioaren esku.

Berrogeita hiru. Sexu-jazarpenaren eta laneko jazarpenaren falta definitzerakoan, jazarpen sexista ere sartu da.

Berrogeita lau. 93. artikuluan, ezabatu egin da, eginkizunez gabetzean, ordainsariak galduko direla dioen zatia, ondoriozko administrazio-egoerak berak baitakar ordainsariak galtzea. Beraz, erredundantea da.

Berrogeita bost. Zuzendu egin da 94. artikulua agertzen den numerazioko akatsa, hizki bat errepikatuta baitzegoen.

Berrogeita sei. 95. artikuluan gehitu den 2 bis paragrafo berrian, berriaz gaineratu da diziplina-prozedurako espedientepekoak ordezkari sindikal baten laguntza izan dezakeela prozeduraren jardunetan.

Berrogeita zazpi. Aldatu egin da 95. artikuluan gehitu den 2 ter paragrafo berria, ekainean indarrean sartuko den administrazio-prozedura erkideari buruzko lege berriko aldaketak aintzat hartuta.

Berrogeita hamar. Falta arinengatiko zehapenen preskripzio-epea aldatu da, eta 3 hilabetera murriztu.

Berrogeita hamaika. 97 bis 1 artikulua berriko bigarren paragrafoan gehitu da interesdunak zehapenaren betearaztasuna kautelaz eten ahal izango duela eta, horretarako, Administrazioari adierazi behar diola administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuko duela.

Berrogeita hamabi. 97 ter 2 artikulua berriak dio arazoak egon daitezkeela zehapena betearazteko, ezinezkoa denean, funtzionarioak erretiroa hartu duelako, baina a posteriori kidegora itzultzeko aukera sortzen bada. Era berean, 97.ter.5 artikulua (zehapena betetzeko ordezkotz neurria) zehazten du badagoela aukera hori zehapena 15 eguneko baldin bada, eta beharrezkoa dela administrazioak ordezkotz neurria onartzea.

Berrogeita hamasei 117. artikuluan, aguazilen funtzioak zerrendatu dira.

Berrogeita hamazazpi. 118.3 a) artikuluan (intendente-kategoria), gainerako kategorietan aplikatzen den eskakizun hautakari bera ezarri da.

Berrogeita hamazortzi. Aldatu egin da 119. artikulua, gaur egun bezala, udaltzaingoetan pertsona bakarreko buruzagitza egon ez dadin, baizik eta kide anitzekoa, dagokion politika-zuzendaritzaren menpe.

Bosgarren xedapen iragankorra. Beste xedapen iragankor bat gehitu da, oinarrizko eskalako langileak integratzeko.

Seigarren xedapen gehigarria. EPL indarrean sartu aurretik A taldeko titulua eskatzen zien plaza lortu zutenen goragoko eskalan udaltzaingoko funtzionarioak integratzeari dagokionez, EUDEL-en araua edo irizpidea txertatu da.

Zortzigarren xedapen iragankorra.- Aguazilak. Argitu egin da zertan datzan aguazil-lanpostuetan ziharduten eta hala diharduten lan-kontratudun langileei eginkizunetan ari direnean dagokien babes juridikoa.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Aguazilak udaltzaingoan sartzea. Argitu egin da zer egoera juridikotan geratuko diren kidego berrian sartzen ez direnak.

VI.- ARAUTEGIAREN GAINEKO ERAGINA.

a) Eraginen analisisia

Eskumenen ordenara egokitzea: Autonomia Erkidegoak eskumena du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen aldaketa hau arautzeko, polizia autonomoaren erregimenaren eta funtzionario publikoen erregimenaren arloan dauzkan eskumenen arabera. Estatuko oinarrizko legeria errespetatu da; Segurtasun

Indar eta Kidegoen Oinarrizko Legearen agindu batzuk soilik aplikatuko dira, eta EPOE ez zaie zuzenean aplikatzen segurtasun-indar eta -kidegoei.

Araua lege autonomikoa da, eta lehendik zegoen lege-mailako araua aldatzen du. Horrenbestez, aldatutakoan du eragina arau berriak, baita aldatutakoa garatzen duten erregelamenduzko xedapenetan ere.

b) Oro har ekonomian dituen ondorioak.

Lehiari dagokionez, arauak ez du ondorio nabarmenik lehian, ezta enpresa txiki edo ertainetan ere.

Ez dirudi, ezta ere, eragin zuzena duenik administrazio-kargen ikuspegitik, haien definizio zorrotzean oinarrituta. Hala ere, prozedurak hobetu eta sinplifikatzen ditueneg (adibidez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokionez, hautapen-organo iraunkor gisa; edo udalerrien arteko lankidetzarako mekanismo jakin batzuei dagokienez; edo udaltzaingoetako antolaketa-egitura profesionalak osatzeko malgutasunari eta arrazionaltasunari dagokienez), administrazio-kargetan eragin positiboa izango duela pentsa liteke oro har.

C.- Ekonomiaren eta aurrekontuen gaineko eragina.

Memoria ekonomikoak zehatz-mehatz azaltzen du aurrekontuen ikuspegitik egindako analisia. Ondorio orokorra da legea zuzenean aplikatzeak ez dakarrela gaur egun dauden aurrekontuen bidez ordaindu ezin den gasturik. Ez dakar diru-sarreraren aurreikuspenik egin beharra.

Beste erakunde publiko batzuetan (adibidez, udalerrietan) izango duen eraginari dagokionez, aurrekontuetan izan dezake eragina legeak, memoria ekonomikoan adierazi bezala. Nahiz eta eskalak, kategoriak eta sailkapen-taldeak berregituratzeak antolatetan izan eragina, eta, batzuetan, buruzagitza-lanpostuak sortzera behartu, aurrekontua ez handitu behar izateko moduan integratuko dira lehendik dauden langileak egitura berrietan, eta oinarrizko ordainsariak handitutakoa beste murriztuko dira osagarriak. Bestalde, aurreproiektuaren neurri batzuek arrazionalizatu egiten dituzte udal kostuak, lankidetzeta-formulak erabilia, esaterako, hautaprosesuak batera antolatzeko aukera, edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak prestatutako langileez osatutako lan-poltsak sortzeko aukera.

d) Genero-eragina:

Genero-eragin positiboa du arauak; genero-eraginari buruzko txostenean aztertu da.

e) Beste eragin batzuk:

Ikuspegi sozialetik, polizia-administrazioaren kudeaketa fidagarria dela erakusten du legeak.

Poliziaren Etikaren Europako Kodearen 61. aurreikuspenari erantzuten diote (2001eko Kontseilu Europarraren gomendioa) polizia-kontrolerako mekanismoen arauak, poliziaren eta herritarren arteko elkarreraginak eta kontuak emateko konpromisoak. Aurreikuspen horren arabera, "erantzukizunaren alde egiten duten eta herritarren eta

poliziaren arteko komunikazioan eta ulermenean oinarritzen diren mekanismoak ezarriko dira”; hori guztia bat dator Berrikuntza Publikoaren Planeko (2014-2016) gardentasunaren eta gobernu onaren filosofiarekin.

Oso garrantzitsuak dira gai hauek: kontu ematearekiko konpromisoa, publizitate aktiboaren bidez; polizia-zerbitzua ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak, besteak beste, polizien zeregina ebaluatzeko mekanismoak edo, neurri hertsatzaileez gainera, prestakuntzan, prozeduretan edo lan-giroan hobekuntzak egiteko ereduak eta arrisku-faktoreak aztertu ahal izateko prebentzio-mekanismoen ezarpena; eta poliziaren eta herritarren arteko derrigorrezko interakzioa, kexak tratatzeko mekanismoak zerbitzu polizialarekiko independenteak izango direla bermatuz, herritarrek neutraltasunez eta korporatibismorik gabe tratatuko dituztelako konfiantza izan dezaten, jardunbide egokien batzorde baten sorrerarekin sendotuta.

